

# ZER JATEN DUTE GAIZKI JATEN DUTENEK EAE-N



EAE n pobrezia egoeran dauden pertsonen elikadura eta nutrizio egokirako eskubidearen azterketa eta proposamenak

INURRI OIANKO, ISA ÁLVAREZ VISPO, RUTH L. HERRERO, DAVID LOPATEGI ESCUDERO,  
MARIBI UGARTEBURU: ITZULTZAILEA

EDIZIOA:



**zambra**  
iniciativas sociales



Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea  
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos

## ZER JATEN DUTE GAIZKI JATEN DUTENEK EAE-N?

INURRI OIANKO, ISA ÁLVAREZ VISPO, RUTH L. HERRERO, DAVID LOPATEGI ESCUDERO

### EDIZIOA

#### ZAMBRA INICIATIVAS SOCIALES

C/ FRANCISCO CÁRTER 1, 1º, 1ª - 29011 MÁLAGA

ZAMBRADISTRIBUIDORA@GMAIL.COM - 655 40 02 97

HTTP://DISTRI.ASOCIACIONZAMBRA.ORG



### BALADRE

COORDINACIÓN ESTATAL DE LUCHAS CONTRA LA PRECARIEDAD,

EL EMPDRECIAMIENTO Y LA EXCLUSIÓN SOCIAL

C/ FRANCISCO CÁRTER 1, 1º, 1ª - 29011 MÁLAGA

WWW.COORDINACIONBALADRE.ORG

BIZILUR-LANKIDETZARAKO ETA HERRIEN GARAPENERAKO ERAKUNDEA  
ORGANIZACIÓN PARA LA COOPERACIÓN Y EL DESARROLLO DE LOS PUEBLOS  
CALLE CARDENAL GARDOQUI, 9, 5ºDCHA 48008 BILBAO

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: MESTURA ESTUDIO

### FINANTZIATZAILLEAK:



AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



1. EDIZIOA: 2024ko MAIATZA

ISBN: 978-84-127154-6-0

DL: MA 1903 - 2024

Attribution-NonCommercial-NoDerivs 4.0 International (CC-BY-NC-ND)

[HTTPS://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)

THIS LICENSE ENABLES REUSERS TO COPY AND DISTRIBUTE THE MATERIAL IN ANY MEDIUM OR FORMAT IN UNADAPTED FORM ONLY, FOR NONCOMMERCIAL PURPOSES ONLY, AND ONLY SO LONG AS ATTRIBUTION IS GIVEN TO THE CREATOR. CC-BY-NC-ND INCLUDES THE FOLLOWING ELEMENTS:

BY: CREDIT MUST BE GIVEN TO THE CREATOR.

NC: ONLY NONCOMMERCIAL USES OF THE WORK ARE PERMITTED.

ND: NO DERIVATIVES OR ADAPTATIONS OF THE WORK ARE PERMITTED.



*"Elikagai-programak, haien beharrea den orori laguntzeari ezik, beste edozein baldintzaren mende jarri nahi direnean, programa horiek ez dute gosea arintzeko balio, lotsa elikatzeko baizik".*

Mikki Kendall. Auzoko feminismoa.



SARRERA \_ 7

ORRIALDE HAUEI BURUZKO OHARRAK \_ 11

HELBURUAK \_ 15

OINARRIZKO KONTZEPTU BATZUK \_ 17

TESTUINGURUA \_ 21

TOKIKOTIK GLOBALERA \_ 23

TESTUINGURU HISTORIKOA \_ 29


NON GAUDE? LEGE ESPARRUA \_ 35

METODOLOGIA \_ 43

KRONOGRAMA \_ 49

EMAITZAK \_ 53



- 
- A) EAE-KO EGOERAREN ERRADIOGRAFIA \_ 57  
B) ELIKAGAIEN LAGUNTZARAKO BIDEAK: IBILBIDEAK \_ 75  
C) NARRAZIOAK ETA EZTABAIDAK \_ 108

ONDORIOAK \_ 157

PROPOSAMEN POSIBLEAK \_ 165

ERANTZUNAK HEGOALDE GLOBALTIK \_ 175

EUSKAL HERRIAN ELIKADURA ETA NUTRIZIO EGOKIRAKO  
ESKUBIDEAN AURRERA EGITEKO ERRONKAK \_ 185

ERREFERENTZIAK \_ 197

ERANSKINAK \_ 203





## SARRERA

Gosean pentsatzeak, hegoaldeko latitudeetaraino garamatza. Ez dugu ikusten edo ez dugu ikusi nahi ongizatea aurreikusten den herrialde eta kontinente honetan, ezegonkortasun egoeratan egon daitezkeen pertsonen bizitzari eusteko gai garelakoan gauden honetan, gizarte ondoeza egon, badagoela, gero eta nabarmenagoak diren sistema kapitalistaren irtenbide faltsuen aurrean.

Elikagaietarako sarbidean dauden gabezien kasuan, gaur egun erakunde publikoek dituzten aukerek, elikagaiak eman ordez, jateko produktu hutsak ematen dituzte. Helburua da urdailak betetzea, kuantitatiboa dena —kaloriak— ebaztea, kontuan hartu gabe elikatu beharrekoa pertsonen gorputzak eta bizitzak direla. Bizimodu duina izateko eskubidea eta elikadura eta nutrizio egokia izateko eskubidea duten pertsonak. Egoera hori gero eta eskandalagarriagoa da, eta gizartearen iruditerian normalizatzen ari da pobrezia egoeran dauden pertsonen konformatu egin behar dutela, eta, gainera, eskertu egin behar dutela, elikadura oso urria eta prekariora izan arren. Asistentzialismoak gizarte eskubiak ordezten ditu, eta banatzaile handien interesek, elikadura sistema ez ezik, gizarte arretarako mekanismo publikoak ere blaitu egiten dituzte.

Covid-19ren pandemiak alde horretatik zeuden gabeziak agerian utzi zituen. Egun haietan Espainiako Estatuan, Madrilén, esate baterako, sekulako esperpen-toak ikusi genituen; izan ere, Telepizza eta Rodilla zabor

janarien kateek eskola jantokiak eta adingabeak hornitu zituzten janari osasungaitzarekin; edo hurbilagoko lekuetan, eskolak ixtean jantokiaren mende zeudenak elikagairik gabe geratu ziren. Edo Eusko Jaurlaritzak nekazarien azokak ixtea agindu zuenean, elikagaien saltoki handiak irekita zeuden bitartean. Erabaki hori, gainera, atzera bota behar izan zuen, herritarren presioaren ondorioz.

Hori guztia gertatzen zen bitartean, auzoetan eta herrietan elkartasun guneak eta laguntza sareak sortu zirela ikusi genuen, hurbileko produktuen eskaria igo egin zen eta erakundeen erantzunen mugak ikusita, lapiko herrikoiak eta jantoki autogestionatuak antolatu ziren. Baina ez hemen bakarrik. Hegoalde globaleko ia herrialde guztietan, nekazariak eta gizarte mugimenduak arduratu ziren herritarren elikadura egoeraz: elikagaien oparitzeak egin ziren (*verdurazo* edo *cestazo* deiturikoak), kale ekintza horien bidez helarazten zitzaizaien janaria okerren pasatzen ari ziren pertsoneri. Ez da kasualitatea egoera berean antzeko erantzunak izatea latitude desberdinetan. Beharrak asetzen saiatzen zen erantzuna kolektibotik etorri zen. Gosea arazo orokorra dela eta erantzunak kolektibotik, elkartasunetik eta antolaketa komunitariotik pasatzen direla frogatu zen. Hala ere, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez, erakunde publikoek irtenbide faltsuak jartzen jarraitzen dute, pertsonak elikatu beharrean, korporazioen interesak elikatzen dituztenak. Sistema horren euskarria desberdintasuna baita. Desberdintasun horrek pobrezia eta beharrezana sortzen ditu. Horren aurrean, sistema bera jartzen da, arazoaren eragilea bera, irtenbide posible gisa.

Horregatik guztiagatik hasi ginen txosten hau egiten. Gure inguruan dauden pobrezia egoerak, bertan dauden pertsonen ibilbideak eta jasotzen dituzten jateko produktuak (gutxi dira elikagaiak) ikusaraztea beharrezkoa dela uste dugu. Garrantzitsua da egoera ezagutzea eta abian jartzen ari diren erantzunak bistaratzeko, pertsona guztientzako elikadura eta nutrizio eskubide egokia benetan bermatzen duten bideetan, batera lan egin ahal izateko. Aldi berean, hori ezin da egin funtsezko sektore bat, lehen sektorea, kontuan hartu gabe; izan ere, nekazaritza baita, oinarri agroekologikotik, elikatu gaitzakeena, pertsonetikiko eta lurrarekiko justua den moduan.

Bide horretan, beste latitude batzuetara ere begiratzen dugu, handik ikasteko asko daukagulakoan. Brasilera eta Argentinara begiratzen dugu. Herrialde horietan, nahiz eta aldaketa politiko berri larriak izan, nekazarien zein hiriguneetako herri mugimenduen bidez proposamenak egiten ari dira, pertsona guztiek eta, bereziki, herritar klaseek elikatzeko duten eskubiderantz doazenak, gizarte justiziari eta ingurumenari begira.

Duela urte batzuk hasi zen Baladre taldetik *Zer jaten dute gaizki jaten dutenek* izeneko mugimendua; Estatu osoan egoera larrian dauden pertsonen taldeak biltzen dituen prozesu parte-hartzailea da. Zer jaten dugun eta nola elikatu nahi dugun galdetzen du. Orain, Bizilur elkartearekin batera, lupa jarri dugu EAEn, gure lurraldeko egoera ikusaraziz eta eredu bidezkoagoak eraikitzeke proposamenak partekatuz.



## ORRIALDE HAUEI BURUZKO OHARRAK

### ZERTARAKO DOKUMENTU HAU?

Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia egoerak bizi dituzten pertsonen elikadurari buruzko ikuspegi deskribatzailea eta analitikoa eman nahi da. Dokumentu honetan, kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartu nahi izan dira, baita egoera horretan dauden pertsonen egoera zeharkatzen duten ardatzak ere. Horretarako, elikadurari ez ezik, pertsonen bizipenei ere erreparatzen zaie, eta eskura dauden baliabideetara iristeko pertsonak egiten dituzten ibilbideak eta elikagaiak haiengana iritsi arte egiten dituztenen ibilbideak aztertzen dira. Horrez gain, hainbat eragileren iritziak eta esperientziak eta “elikagai laguntza” deritzona inguratzen duten narrazioak daude.

### NONDIK DATOR?

Elikadura burujabetzaren paradigmaren inguruan hainbat erakundek egiten duten lanaren ondorioz sortu da azterketa hau. Horien artean, *Bizilur-Herrien Lankidetzeta eta Garapenerako Elkarteak*, eta *Baladre Koordinazioa*.

*Bizilur* hasiera-hasieratik ari da lanean elikadura burujabetza garatzeko, munduko hainbat tokitan, proposamen eraldatzaile gisa, eta La Vía Campesinaren inguruan artikulatutako baserritarren mugimendua benetako aldaketa subjektu gisa babesten du.

Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka koordinatze-ko, *Baladre* ere beteranoa da bere taldeekin lanean. Gogoeta bat jartzen dute oinarrian: zer jaten dute gairi jaten dutenek? Pobrezia egoeran dauden pertsonen buruz ari da, eta egoera horiek zeharkatzen dituzten desberdintasun ugariak ikusarazten ditu, elikadurari dagokiona barne.

Argitalpen hau proiektu zabalago baten parte da, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak finantzatua. Izenburua, hauex: *“Eskubidedun elikadura sistemak: gizartean bazterturik eta/edo desabantailan dauden pertsonen elikadura. Agroekologiatik eta elikadura burujabetzaren ikuspegitik egindako hurbilketa”*.

Proiektu honen bidez, tokiko agendan kokatu nahi da elikadura osasungarri eta iraunkorra lortzeko aukerari buruzko eztabaida, eta arreta berezia jarri nahi da kolektibo ahulenen elikaduran, eskubideen ikuspegitik eta bizigarritasunaren ikuspegi global zein lokaletik.

Helburu hori lortzeko, lehentasunezko hiru ekintza planteatzen ditugu ardatz gisa: Euskal Herrian agroekologiaren aldeko mugimendua indartzea, parte-hartzea, feminismoa eta interseksionalitatea gako bezala hartuta; 1. eta 3. sektoreen artean proposamen berritzaileak sortzea, elikagai sistemen sustapenean eragiteko, elikadura zuzenbidearen ikuspegitik, eta artikulazio eta eragin eremu iraunkorrak sustatzea, beste eragile batzuekin batera.

Gainera, erakunde aliatuekin batera lan egiten dugu. Horien bidez, aipatutako ardatz horietako bakoitzean jarduerak garatzen ditugu, eta, Bizilur eta Baladre-rekin batera, proiektu honen bihotza dira:

**EHKOlektiboa,** nekazarien eta herritarren talde mistoa, Euskal Herriko lurralde guztietan agroekologiaren alde lan egiten duena.

**Zapalan** Elkartea, Urduñako gizarte hezitzaile eta bizilagunen taldea, adinez nagusi izan ondoren bakarrik bizi diren gazte atzerritarrek bizi duten zaugarritasun egoerarekin arduratuta dagoena eta kolektibo horren bizitza, presakuntza, lan eta gizarte beharrei erantzuteko lan egiten duena.

**Agharas,** Imazigh (Berbere) etorkin gazteek sortutako elkartea, Barakaldoko kulturarteko sentsibilizazioarekin eta gizarte kohesioarekin konprometituta eta arduratuta dagoena.

Lan honen bidez, gure gizarteko talderik ahulenen elikadurarako sarbidearen egoerari buruzko argazki eguneratua, eta ildo horretan abian diren estrategia, plan eta politika instituzional eta sozialak bildu nahi dira, ikuspegi lokal-global batetik eta horien azterketa kritiko batetik.



## HELBURUAK

Azterlan hau gidatzeko, honako helburu hauek ezarri dira:

**Lehenengo helburua EAEn pobretutako pertsonen elikadurarako duten eskubidearen egoera ezagutzea izan da.** Horretarako, pobrezia egoeran dauden pertsonen elikadurara iristeko (edo ez) mekanismoak ezagutzen saiatzen gara, baita “elikagai laguntza” izeneko kanaletik jasotzen dituzten produktuen ibilbidea ere. Hala, helburu hori betetzeko, beste helburu zehatzago batzuk lantzen dira:

Testuinguru historikoa, soziala eta legediari dagokiona ezagutzea

EAEko elikadura arloko baliabideak eta haietara iristeko prozedurak aztertzea.

EAEko elikadura baliabideetara iristen diren pobrezia egoeran dauden pertsonen datu sozio-demografikoak eta profilak ezagutzea.

Elikadura eta nutrizio egokirako eskubideari buruzko narrazioetan agertzen diren elementu tematiko nagusiak zehaztea.

Baliabide/programa sozial nagusietan ematen diren elikagaien ibilbidea ezagutzea.

**Bigarren helburua EAEko pertsona pobreen elikatze eskubideari buruzko egoera aztertzea izan da, Hegoaldeko ikuspegi globaletik.** Horretarako, honako hauek egin dira:

Argentinan eta Brasilen elikadura eskubideari buruzko ekimenak eta praktika onak ezagutzea.

EAEko egoera eta Argentinako eta Brasilgo kasuak alderatzea.

**Hirugarren helburua da EAEn pobretutako pertsonen elikatze eskubidearen egoera hobetzeko proposamen batzuk ezartzea, elikadura burujabetzaren ikuspegitik.**

Horren bidez, dokumentu hau beste urrats bat emateko eta politika eta programa sozialei buruzko proposamen berritzaileak partekatzeko tresna izatea nahi dugu: bai EAEko erakunde publikoei, bai Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorereko erakundeei etorkizuneko erronka batzuk planteatzeko tresna.

Elikadura funtsezko eskubidetzat hartuta, gure gizarteko sektore guztiek elikadura osasungarria eta kalitatezkoa izateko aukera ematen duten proposamenetan sakontzen dugu. Ikuspegi horrek elikagaien ekoizpenarekin lotzen gaitu ezinbestean, ikuspegi agroekologikotik.

Ikerketa hau gidatu duten galderetako batzuk hauek dira: Nork eta zenbat pertsonak jasotzen dituzte elikagaiak “elikagai laguntzarako” kanalen bidez? Zer jaten dute EAEn gaizki jaten duten pertsonak? Zeintzuk dira janaria eskuratzeko bideak? Zeintzuk dira banatzen diren produktuen ibilbideak? Zein da elikagai laguntzarako hainbat kanaletan parte hartzen duten pertsonen ikuspegia? Zer narrazio dira nagusi sare sozialetan eta komunikabideetan? Eta, azkenik, elikadura eta nutriziorako eskubidea behar bezala betetzen al da?

## 0INARRIZKO KONTZEPTU BATZUK

Interesgarria iruditzen zaigu glosario txiki bat egiten hastea, dokumentu honen orrialdeetan lagunduko dituguten definizio eta kontzeptu garrantzitsu batzuekin.

- a. Elikagaien segurtasuna:** Elikagaien Segurtasuna 1996ko Elikaduraren Munduko Goi bileran definitu zen, honelaxe: “Elikagai segurtasuna gertatzen da pertsona guztiek elikagai seguruak, elikagarriak eta mantenugaiak eskuratzeko aukera fisiko, sozial eta ekonomiko etengabea dutenean, eta behar adinako kopuruan elikadura beharrak asetzeko eta bitzta aktiboa eta osasungarria izateko”.
- b. Elikagaien segurtasunik eza:** Elikagaien segurtasunik eza da bizimodu osasungarri eta aktiboa izateko behar adina elikagai, elikagarri eta seguru ez izatea edo eskuratzeko aukera mugatua izatea. Hori hainbat faktorek eragin dezakete, hala nola pobreziak. Elikagaien eskuragarritasunik eza ez ezik, modu egonkorrean elikagai elikagarriak eta kalitatekoak eskuratzeko aukera falta ere bada. Pertsona batek behar adina janari izan dezake, baina janari hori elikagarria ez bada, elikadura egokiaren oinarriko beharrak betetzen ez baditu edo modu egonkorrean sartzen ez bada, hori ere elikagaien segurtasunik eza dela jotzen da.
- c. Elikadura burujabetza:** Elikadura burujabetza Via Campesina antolakundeak definitu zuen 1996an. Herriek euren elikadura politikak zehazteko daukaten eskubidea da, nekazarien ekoizpenean eta eli-

kagaiak ekoitzi, kontsumitu eta banatzeko sistema jasangarrietan oinarrituta, erauzketa sistemetatik urrun. Elikadura burujabetza kontzeptu politiko bat da, eta kontzeptu horrek, pertsona guztiek elikaturta egon behar dutela adierazteaz gain, elikagaien jasangarritasuna edo iraunkortasuna eta herrien erabakitze eskubidea ere aztertzen ditu.

- d. Agroekologia: Agroekologia zientzia, praktika eta mugimendu gisa definitzen da.** Agroekologiaren helburua da elikadura sistema bidezkoagoak eraikitzen dituzten diagnostikoak egitea eta praktikak sustatzea, hiru dimentsioko ekintzak aztertuz eta sustatuz: alderdi teknikoa, etxalde erabilerari dagokiona; dimentsio sozioekonomikoa, elikaduraren eta dimentsio politikoaren inguruan sortzen diren ekonomiei eta harremani dagokiena, eta erabakimenaren dimentsioa, erabakiak hartzea eta gobernantza elikadura sistemetan nola gertatzen diren eta nork parte har dezakeen edo ez ebazten duena.
- e. Elikatzeko eskubidea:** Elikatzeko eskubidea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan aitortzen da. Artikulu horretan aitortzen da pertsonak bizi maila egokia izateko eskubidea dutela, elikadurarako sarbidea bermatuko diena. Esparru horretatik abiatuta, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean lantzen da zehatzago. Itun hau loteslea da estatu sinatzaileentzat. Arau lotesle horien barruan, GEAUren 25. artikuluan ezarritakoa onartu arren, "pertsona orok gosearen aurka babestuta egoteko duen oinarritzko eskubidea" ere zehazten du eta horretara lotzen ditu estatuak.
- f. GJH: Garapen Jasangarrirako Helburuak dira GJH, 2030erako diseinatuak, eta gaur egun hainbat**

mailatako politiken oinarria dira. 17 helburu dira, eta hainbat alderdi lantzen dituzte, hala nola zero gosea (2. GJH), genero berdintasuna (5. GJH), ingurumen jasangarritasuna... Helburu horiek EZ dira lotesleak, estatuek kontuan hartu beharreko borondatezko helburuak dira. Gaur egun ikusten ari gara Nazio Batuen esparru eta narratibetan GJHek Giza Eskubideak ordezkatzeko ari direla. Hori dela eta, tresna juridiko bat (Giza Eskubideak) galtzen ari da, eta borondatezko xede ez-lotesleak ordezkatzeko dute. Ondo ulertutako esparrua izanez gero, giza eskubideen osagarri gisa tresna ona izan daitekeen arren, praktikan gertatzen ari dena da GJH 2 (zero gosea) elikadura eta nutrizio eskubide egokien esparruaren ordezkari dela erabiltzen.

- g. Pobrezia:** “Pobreziak esan nahi du giza garapenaren aukera funtsezkoenak ukatzen direla: bizi luze osasuntsu eta sortzailea bizitzea eta bizitza, askatasuna, duintasuna, bere buruarekiko eta bestee-kiko errespetua izatea” (PNUD, 1997). Hori dela eta, “gabeziaren ikuspuntutik” hitz egingo dugu, hau da, pertsona guztiek dituzten funtsezko aktibo eta aukerak kentzeari buruz.
- h.** Logika horri jarraituz, txosten honetan “pertsona txirotuaz edo pobretzen den pertsonaz” hitz egingo dugu, oinarrizko beharrak asetzeko baliabideetara sartzetik ez duen pertsona definitzeko. Hala ere, terminologia ofizialak “bazterketa edo zaurgarritasun arriskuan dauden pertsonak” terminoak erabiltzen ditu, eta arautegiek eta hizkuntza ofizialak erabiltzen duten terminologia horixe dela identifikatzeko erabiliko dira. Baina lan honen asmoa da pertsona guztiek jateko duten eskubidearen problematikari gizatasuna kentzen dioten eskalak edo bereizketak ez egitea.

- i. Elikagaia/produktu jangarria:** Ez da gauza bera elikagaia eta jateko produktua. “Elikagai” terminoa erabiltzen dugu asetzeaz eta gosea saihesteaz gain, organismoa elikatu eta ekosistemak elikatzen dituzten produktuez hitz egiteko. Horien aurrean, produktu jangarriak ditugu, hau da, indarrean dagoen araudiaren arabera kaltegarriak ez direlako irents daitezkeen produktuak, baina ez dituzte pertsonak elikatzen, haien osasuna ere kaltetzen dute eta, gainera, eragin negatibo handia dute landatzen diren lurreen.

# TESTUINGURUA





## TOKIKOTIK GLOBALERA

Oraintsu arte, bidaiatzearen plazer handienetako bat (beste herri, eskualde, estatu edo kontinente batera) norbere jatorrizko lekuarekiko desberdintasunak eta berritasunak topatzeko aukera zen: kultura, moda, arkitectura, natura, janaria, edaria, etab. Oraindik ere gauza ezezagunak aurki daitezkeen arren, globalizazioak ekarri duen errealtatea kontsumo ondasun gehienen, eta bereziki elikaduraren, mundu mailako estandarizazioa da.

Alde horretatik, ziurta dezakegu planeta osoan zehar elikagai sistema industrialak kultura gastronomikoak, dietak eta zaporeak kolonizatu eta homogeneizatu egin dituela: ia produktu berak kontsumitu eta eros ditzakegu planetako edozein tokitako janari-denda gehienetan. Orduan, galdera pertinentea da ea nolatan iritsi garen egoera honetara?

Iraultza Berdea<sup>1</sup> deiturikotik, elikadura sistemak aldatu egin dira nekazaritzan oinarritutako elikagaien ekoi-zen sistema batetik (nekazari txikien protagonismoa, tokiko hazi eta arrazak, intsumo naturalak, dibertsifikazio handia, tokiko ekonomiak, etab.); hurbiltasuneko (geografikoa eta kulturala); eta naturaren zikloekin bat datorrena (urte sasoiak, luraren denborarekiko

.....  
<sup>1</sup> Wikipediaren arabera, nekazaritzako produktibitateak eta, beraz, elikagaiak 1960 eta 1980 artean Ameriketako Estatu Batuetan izan zuten hazkunde garrantzitsua deskribatzeko nazioartean erabiltzen den izena da, eta gero hainbat herrialdetan zabaldu da.

errespetua, uraren erabilera eta laborantza, etab.) eskala globaleko sistema industrializatu batera, non nekazariak makinek ordeztu baitituzte; dibertsifikazioak monolaborantzari bide eman dio; ongarrri naturalek pestizidari eta plagizida kimikoei; merkataritzak muga guztiak gainditu ditu eta elikagaien prezioa Chicagoko Burtsan erabakitzen da.

Prozesu horretan, elikagai korporazio handiek zeregin protagonikoa hartu dute lehen nekazariak zuten gizarte rolean: herria elikatzea. Ez hori bakarrik. Gainera, enpresa horiek elikadura katearen maila guztietan erabaki politikoak zehazten dituen eragile bihurtu dira. Erakunde publikoak beren merkataritza interesen araberazuzendu, baldintzatu eta kontrolatzeko gai dira.

Hala, ekoizpen txiki asko izatetik gutxi eta izugarri handiak izatera igaro gara. Nekazarietatik, nekazaritzako langileetara. Tokiko merkatuetatik, saltoki handietara. Konfiantza eta hurbiltasun harremanak izatetik produktoreekin, apal beteak eta kutxa erregistratzaileak izatera. Ekoiztetik espekulatzera. Elikatzetik, urdailak betetzera. Tomate gozoak dastatzeko irrikaz udara arte itxarotetik, urte osoan barietate zaporegabeak eskura izatera.

“Tximeleta efektuan” bezala, kontsumitzaileen aburuz elikagai ekoizpeneko sisteman hegalean astinalditxo bat izan zena, hamarkada batzuk geroago, tsunami bat izaten ari da gure bizitzako alderdi askotan: munduan gosea zero izateko promesatik, gosete, malnutrizio eta planeta osoan elikadurarekin lotutako gaixotasun gehiago izatera pasatu gara. Elikadura ez da eskubide bat, GJH (Garapen Jasangarrirako Helburu) bat da orain. Bi-garrena, zehazki. Berotze globala eta planetaren desoreka eragin dira, eta horren arrazoien %30, gutxienez,

elikadura sistema globalizatuari dagokio; biodibertsitateari dagokionez, espezie autoktonoen, hazien, baso masen eta landu daitezkeen lurren kopuru handia galdu da. Desertifikazioak aurrera egin du planeta osoan; nekazarien klasea pobretuz joan da pixkanaka, eta horrek nekazaritza jarduera bertan behera uztea ekarri du, landa eremuko exodo masiboak eraginda hirira; elikagaiak edukitzetik, “produktu jangarri” soiletara pasa gara, gure elikagaien kalitate eskasa normalizatuz; elikagai osasungarriei “super-elikagai” deitzera iritsi gara, iruditeria kolektiboan egunerokotasunetik urrunduz.

Azken batean, elikagaien ekoizpena merkantilizatzeak eta industrializatzeak gizarteratu egin ditu elikagai sistema globalizatuaren eraginak eta kostu materialak eta ingurumenekoak, eta, aldi berean, esku gutxi batzuetan kontzentratu ditu merkatuen monopolioa, eta uraren, biodibertsitatearen eta lurraren gaineko boterea eta jabetza. Elikaduraren multinazional horiek dira munduko geopolitika eta estatuen nekazaritza politikak baldintzatzeko gai diren eragile politiko berriak, baita gosea eta karitatea negoziatzeko ere.

Elikagaien industria globalak duen monopolioa ez da jangarriak ekoiztera, banatzera eta merkaturatzera mugatzen; produkzioaren soberakinari ematen zaion erabileraren gainean ere eragiten du: nekazaritzako elikagaien enpresa handiak solidaritate sistemak sartzen ari dira planeta osoan, karitatearen frankiziekin dituzten loturei esker. Gainera, dagoeneko ez dute beren negozioia merkatu komertzial tradizionalera mugatzen, baizik eta elikadura zerbitzu publikoak ere hartzen ari dira, eskoletan, ospitaleetan, espetxeetan, egoitzetan, adingabeen zentroetan eta abarretan. Hori guztia neoliberalismoaren esku diharduten administrazioei esker, non

prezioa baita zerbitzu hori azpikontratatzeko orduan garrantzia duen aldagai bakarra.

Monopolioa hain da handia, ezen gizartean esku hartzen duten hirugarren sektoreko erakunde gehienek beren elikadurako esku-hartzeak nekazaritza industriak ezartzen dituen parametroetatik bideratzen baitituzte pobrezian eta/edo gizarte bazterketan dauden pertsonekin. Eta beste ikuspuntu batetik egin nahi badute, gizarte zerbitzuen bide administratiboek sistemaren uztaikit pasatzera behartzen dituzte.

Hori ezinezkoa zatekeen, ideien eremua kolonizatu gabe, eta horretarako publizitatean eta marketinean inbertsio handiak egiten dira. Ez da harritzekoa, dokumentu honetan ikusiko dugunez, pertsona publikoek, ospetsuek eta erakundeek gosearen aurkako kanpainekin bat egitea, eta herri bakoitzeko supermerkatu nagusiek bultzatutako janari bilketa handien alde egitea. Hala, elikadura eta nutrizio egokirako eskubideari buruzko narrazioak eta diskurtsoak ere aldatu egin dira, elikadura sistemarekin batera. Hainbestetan entzun ondoren, giza eskubideak eta duintasuna urratzen dituzten zenbait iritzi eta adierazpen publikotara ohitu gara, fundamentalismoetarako bidea irekitzen dutenak: *“Pobreei soberakinak ematea”*, *“ezin dut nik produktu hori erosi eta, gainera, pobreei emango diete”*, *“gosearen ilaretan inori ez zaio azken belaunaldiko smartphone bat falta”* ohiko esaldiak dira, eta, okerrenea dena, ez dute gizartearen gehiengoaren arbuiorik eragiten.

Ondorioz, zailtasun handienak eta baliabide gutxien dituzten pertsonei elikatze egokia izateko aukerak murgatzen zaizkie, bai bakarka, bai behar bezala elikatzeke duten eskubidea zaindu beharko luketen erakundeen

bidez ere. Horrela, bazterketa bikoitza eragiten zaie. Eta hori guztia, gainera, nekazari txikiak lurra lantzeko eta produktua merkaturatzeko oztopo guztiak jasaten dituen bitartean gertatzen ari da.

Egoera hori ia planeta osoan gertatzen da, eta bereziki nabaria da herrialde *azpigaratzaile*<sup>2</sup> eta “garapen bidean” daudenetan. Egoera horrek areagotu egiten du elikadura burujabetzaren, nekazarien eskubideen eta elikadura eta nutrizio egokirako eskubidearen aldeko borroka.

Distantzia posible guztiak alde batera utzita —geografiakoak eta soziopolitikoak—, elikaduraren esparruan gaude, planeta osoan antzeko ezaugarriak eta tresnak dituen arazo/mehatxu global baten aurrean. Uste sendo horretatik abiatuta, “Zer jaten dute gaizki jaten dutenek” arazoari beste latitude batzuetan, nazioartean, begiratuta ekin behar zaio; izan ere, uste osoa dugu ezen, elikagaien oligopolioak antzeko estrategiak erabiltzen baditu planeta osoan, posible dela nekazarien eta gizartearen arteko borroka ere globalizatzea, agronegoiaren aurka eta nekazaritzako elikagaien sistema soziala, agroekologikoa eta lurraldeari lotutako nekazaritzaren alde. Herrialde askotan gertatzen ari diren proposamen alternatiboen arrakasta faktoreak eta gakoak ateratzea lortzen badugu - nekazarien mugimendu antolatua modu erabakigarrian parte hartzen ari den kasuena -, hurbilago egongo gara elikadura sistema globala tokian tokitik eraldatzea lortzetik.

.....  
<sup>2</sup> Manuel Vázquez Montalbán idazle katalanaren esamoldea da, iparraldeko herrialde globalizatuei eta bilketari buruz hitz egiteko erabiltzen duguna: “herrialde azpigaratuak badaude, herrialde azpigaratzaileak daudelako da”.

Galeano parafraseatuz “jende txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake”. Hala ere, gure erronka da jende txikiaren gauza txiki horiek guztiak elkarrekin lotzea eta sarea, ezagutza eta antolaketa sortzea, baita maila globalean ere.

## TESTUINGURU HISTORIKOA

1 irudia. Gizarte laguntza Espainiako Estatuaren gerraostean



Iturria: Carrer Roger de Flor. Laguntza soziala. Espainiako gerraostea. Argazki historikoak.

Espainiako estatuan, beste askotan bezala, “elikagaien pobrezia” sailkatu edo zatitu egin da, eta ez da testuinguru zabalago baten zati gisa ikusi; testuinguru horretan, pobrezia (edozein modutan) sistema bidegabe baten emaitza konplexua da, eta ez elikadurari soilik eragiten dion zerbait. Ikuspegi horretatik, erakundeen erantzuna honako hauen inguruan egituratu da: gizarte erakundeei, karitate erakundeei edo elikagaien banaketari lotutako enpresei, hau da, bitartekariei, dirulaguntzak ematea, eta elikagaiak ematea, “banaketa ilara” bidez hornitzeko

janaria euren kabuz eskuratzeko baliabide ekonomikorik ez dutenei eta pertsona prekarioei.

Diktadura frankistan, elikagai laguntzak eskasia garaian biziraupena bermatzea zuen helburu, gizarte laguntza deiturikoaren bidez (Auxilio social), baina propaganda-rako eta gizarte kontrolari eusteko ere erabiltzen zen. Garai hartan, oraindik ere Espainiako Estatuak gizarte sare garrantzitsua zuen, eta, aldi berean, landa inguru-netik hiri ingurunera migratutako pertsona askok beren elikagaiak ekoizten zituzten. Hala eta guztiz ere, garai haietan ere migrazio horren zati handi bat “baserritarren formatatik” urruntzen saiatu zen, kontsumo eredu “modernoago” batean integratzeko. Gerra eta gerraos-tea jasan zuten belaunaldiek aurrerakada handi gisa sumatu zuten eredu desarrollista.

Elikadurari dagokionez, pertsonak hirietara egindako exodoarekin beharrezkoa bihurtu zen janariak ere bidaiatzea. Horren ondorioz, nekazaritzako kooperatibak sortu ziren, produktu gehiago biltzeko. Herriak husten ziren, baina geratzen zirenek gehiago ekoitzi behar zuten hiri ingurunean bizi zirenei bidaltzeko. Banaketa handiaren hasiera izan zen, 1960ko hamarkadaren amaieran hasi ziren lehenengo supermerkatuak irekitzen (Eroski, 1968), 70eko hamarkadan hazi eta 80ko hamarkadan booma izan zutenak. Boom horrek eragile garrantzitsu bat izan zuen: emakumeak lan merkatuan sartzea, etxeko lanak birbanatu gabe. Horren ondorioz, gero eta produktu prozesatuagoekin “erosketa azkarreko” espazioak bilatzen ziren. Horrela, su moteleko eltzetik lapiko espresera, handik mikrouhinera eta produktu ultra-prozesatuetara igaro ziren. Eredu horri eusteko, produktu asko behar ziren apalak betetzeko, inoiz hutsik ager ez zitezkeenak, eta horrek ere eragiten

zuen –eta oraindik ere eragiten du– produktu asko ez kontsumitzea.

Hor ageri da jateko produktuen soberakina. Hasieran, iraungita zeudenean, iraungitzeaz zeudenean edo akatsen bat zutenean, supermerkatuko edo dagokion ekoi-zen kateko langileei uzten zitzairen beren etxeetara doan eramaten. Ondoren, karitatezko erakundeek produktu horiek eskatzen hasi ziren, batez ere pobrezian dauden familien artean banatzeko. Eta geroago, 90eko hamarkadan, langileei debekatu egin zitzairen produktu horiek eramatea, baita edukiontzia zaintzea agindu ere, pobreek zaborrontzietatik produktuak atera ez ditzaten.

Testuinguru horretan, 80ko hamarkadan gobernuz kanpoko erakundeak sortu ziren (Elikagaien Bankuak) eta elikagaien laguntzarako programak ezarri ziren. Programa horiek enpresek eta partikularrek ematen dituzten janarietan oinarrituko ziren, eta haien banaketa gizarte erakundeen bidez eginen litzateke, edo zuzenean onuradunei banatuta.

Elikagaien Bankuaren<sup>3</sup> kasua, adibidez, saltoki askoren elikadura xahutzeari erantzuteko modu gisa sortzen da; eredu kontsumistaren “hondakinen kudeaketa” besterik ez da hartzen gizarte eskubide bat estaltzeko erantzun gisa. Hasieran ohiz kanpoko zerbait izan arren, krisi anitzak direla eta, Elikagaien Bankuak gure ohiko bizi-moduan integratu dira, eta produktuak gero eta hurbigarriago dauden pertsonentzat izatea ere normalizatu egin da.

.....  
<sup>3</sup> Dokumentuan, EB siglekin ariko gara Elikagaien Bankuaz.

Gaur egun, ohituta gaude sentsibilizazio kanpainak egiten, elikagaiak alferrik galtzeari aurre egiteko kanpainak, elikagai industriak soberakinak eman ditzan bultzatzekoak eta saltoki handi batzuetan txartelarekin ordaintzen den bakoitzean dirua ematekoak. Horrek guztiak onura handiak dakarzkie banatzaileei eta elikadura kate handiei; izan ere, produktu horiek errentagarri bihurtzen dituzte erabili eta botatzeko produktuen salmentarik merkeenaren bidez, zerga hobariak dituzte dohaintzen kasuan, eta bezeroen borondate onaz baliatzen dira; izan ere, bezeroek produktuak erosten dituzte beren establezimenduetan, elikagai bankuei edo erakunde karitatiboek dohaintzan emateko. Horrek guztiak negozio biribila eskaintzen du eta irabaziak handitzen ditu gehien sufritzen dutenen kontura.

Elikadura laguntzaren kanaletatik iristen diren produktuen kalitateak ez du aldaketa handirik izan. Ia ez dago produktu freskorik banaketetan, eta gehienak ontziratutako edo prozesatutako produktuak dira. Alde horretatik, funtsezkoa iruditzen zaigu bereiztea elikagaitzat hartzen duguna eta jangarri hutsa dena. Nahiz eta produktu batzuk jangarritzat har daitezkeen arau higieniko-sanitarioak betetzen dituztelako, ingurumenaren, nutrizioaren eta gizartearen ikuspegitik begiratuta, gure ustez ezin dira elikagaiak deitu. Eztabaida handia da hori, baina ez da gizartean ia gertatzen ari; izan ere, herritarrak gero eta gehiago bultzatzen dira prozesatutako, kontserbako edo aurrez prestatutako produktuak erostera, nutrizio murrizketaz, ingurumen toxikotasunaz (agrokimikoak, plastikoak, beira...) jabetu gabe, eta, gainera, elikadura eredu horrek, gero eta indibidualistagoa denez, harremangabezia eragiten digu. Eredu horietan, badirudi beste eztabaida batzuk ere sortzen direla,

hala nola pertsonak beren elikadurari buruz erabakitze-ko duten gaitasunaz, edo elikadura pobrezia gai isolatu gisa ikusiz, ikuspegi sistemiko batetik egin beharrean. Jaten dugunaz gero eta kontzientzia gutxiago badugu, eta erosten dugunarekiko ahalmen gero eta eskasagoa, errazagoa izango da, nahi gabe ere, elikagaiak baino, produktu jangarriak eskuratzea edo jaten ditugun produktuez erabakitzeke aukerarik ere ez izatea.



## NON GAUDE? LEGE ESPARRUA

Jarraian, hainbat legedia eta araudi bildu dira, maila askotakoak (Europa, Espainiako estatua, EAE, herrialde mailakoak), honako gaietara buruz: elikagaien segurtasunari buruzko bermea, eskuratzeko moduko jakien horniketa eta eskuragarritasuna, eta elikadura pobrezia murrizteko beste araudi batzuk.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da ikerketa hau egiten den aldian Espainiako estatuan gobernu berria prestatzeko prozesuan gaudela 2023an, eta Europar nahiz Estatuan aldaketak gertatzen ari direla, aztergai dugun gaiari dagokionez. Hona hemen aldaketa nagusietako batzuk: Alde batetik, Pertsona Pobrenei Laguntzeko Europako Funtsetik (FEAD deitzen dena) datozen laguntzak amaitu egin dira. Horiek funtsak pobrezia egoeran eta gizarte bazterkerian dauden pertsonentzako oinarrizko elikagaien eta laguntza materialaren erosketa publikoa egiteko ziren. Bestalde, prozesuan dago Elikagaien Galerak eta Hondakinak Prebenitzeko Lege Proiektua. Lege horren prozedura berriro hasi da 2024an, eta, azkenik, Estatuko oinarrizko elikagai bermearen eskumena autonomia erkidegoetara transferitzen da, EAERA barne.

Hona hemen eskala desberdinetako jarduera ildo nagusiak.

## EUROPAKO ESPARRUAN:

Europan, oraingoz ez dago berariazko legerik; aitzitik, herrialdeek garatzen dituzte horri buruzko legeak eta politikak. Nolanahi ere, garatzeko esparruak daude. Hauek dira lerro nagusiak:

- Elikatzeko eskubidea: Europako herrialde gehienetan, elikatzeko eskubidea ez dago jasota beren konstituzioetan. Hain zuzen, gaur egun, FAOren 2023ko informazioaren arabera, soilik Armenian, Belgikan, Bosnia-Herzegovinan, Zipren eta Suitzan jasotzen da modu inplizituan elikatzeko eskubidea.
- Gizarte eta ongizate politikak: Europan uste da beren estatuak ongizatea babesteko politikak dituztela. Hori dela eta, besteak beste, herrialde emaille bihurtzen dira nazioarteko lankidetzaren programean, eta ezin dira hartzaile izan. Estatu askok gizar-te eta ongizate politikak dituzte, pobrezia egoeran dauden pertsonei jaten emateko programak barne. Herrialde batzuetan, gobernu zentralak kudeatzen ditu programak, eta beste batzuetan tokiko erakundeek (Espainiako estatuan, adibidez). Erakunde horiek eskualde mailakoak eta/edo udal mailakoak izan daitezke.
- Elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko arauak: Europako Batasunak arau higieniko-sanitarioak eta kalitate arauak ditu, Europan merkaturatzen diren elikagaiak kaltegabeak direla eta estatu kide guztiei aplikatzen zaizkien arauak betetzen dituztela bermatzeko.

- Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB; PAC bezala izendatzen dena): NPB Europako nekazaritza ekoizpenaren bidea zehazten duen esparrua da. Funtz gehien jasotzen dituen Europako politika da. Bere ekintzen artean, dirulaguntzak eta produkzioari laguntzeko programak eta elikagaiak banatzeko merkatuari eusteko neurriak daude.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da adieraztea gaur egun ere aldaketa une batean gaudela Europar Batasunean. Duela urte batzuk hasi zen “Baserritik mahaira” estrategia prestatzen. Elikadura katearen hainbat alderdiri heldu nahi dien esparrua da, eredu iraunkorrakoak lortzeko. Esparru horretan, lau ekintza multzo daude: Elikagaien ekoizpen iraunkorra, kontsumo iraunkorra, elikagaien banaketa eta eraldaketa jasangarria eta elikagaien galera eta hondakinak ekiditea. Multzo horietako ekintzek erosketa publikorako neurriak hartzen dituzte, baita elikagaien hondakinak murrizteko juridikoki lotesleak diren helburuak ere.

“Baserritik mahaira” markoaz gain, eztabaida fasean dago *Elikagai Sistema Iraunkorretarako Legea*, “Baserritik mahaira” strategiako puntu askorekiko juridikoki loteslea izango den tresna gisa balioko duena. Hasieran, 2023. urtean argitaratu zen, baina, gaur egun, estatu ki-deen arteko eztabaidaren zain dago.

Bitartean, Pertsona Pobreenei Laguntzeko Europako Funtsetan (FEAD) eragina duten beste araudi batzuk daude, Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funttsaren (FEGA) funtzionamenduari lotuak: Funtz horren bidez, oinarrizko elikagaiak eta laguntza materiala eman izan zaizkie pobrezian eta gizarte bazterkerian dauden pertsonei. Emandako laguntzaren %85 Europako

funtsek finantzatzen zuten eta %15 Estatuko Administrazio Orokorraren aurrekontuek.

2024tik aurrera, FEAD kendu egingo da, eta haren jardura Europako Plus Gizarte Funtza 2021-2027 berrian (FSE+) integratuko da.

## **ESTATUAN**

Estatuan, pobrezia egoeran dauden pertsonen elikadurari lotutako arau esparruak lau eremu nagusitan laburbil daitezke: Alde batetik, elikagaien galerarekin eta hondakinekin zerikusia dutenak. Arestian aipatu bezala, lege bat tramitatzen ari dira, elikagai hondarrak eta soberakin horiek pertsona pobreekin lan egiten duten entitateei banatzea lotzen duena. Bestalde, banaketaz arduratzen diren entitateen funtzionamendua arautzen duten erregelamenduak daude, bai eta entitate horiek administrazio, garraio edo biltegi gastuetarako jaso beharreko funtsak ere. Hirugarrenik, elikagaien segurtasunarekin eta malnutrizioarekin lotutako araudiak egongo lirateke, ahulenen eskubideak babesteaz ari direnak, eta, azkenik, diru baliabideak (Bizitzeko Guxieneko Errenta - IMV, esate baterako) edo baliabide materialak eskuratzea arautzen duten gizarte politikei buruzko araudiak.

Araudi horiek guztiak *IV. eranskinean daude.*

## **EAE MAILAN**

EAEk eskumenak ditu pobretze egoeran dauden pertsonen arretari dagokiona aplikatu eta kudeatzeko. Ildo horretatik, Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzari lotutako lege, araudi eta neurriak daude, eta horien funtsezko araudia 185/2015eko Katalogoaren Dekretuan (Decreto de Cartera), arautzen da. Bertan, Foru Aldundien, Udalen eta/edo eskualdeen eskumenak zehazten dira. Bizirauteko laguntzak, elikagaien banaketak eta ezarri diren elikadura laguntzak banakatuko ditugu. Aurreko mailetan azpimarratu dugun bezala, kudeaketa hirugarren sektoreko zerbitzu erakundeen esku uztea eta zerbitzu horiek erabil ditzaketen pobretze egoeran dauden pertsonen sarbidea arautzea dute helburu beste ezer baino gehiago.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE; RGI bezala ezagutzen dena) eskuratzea legoke, Eusko Jaur-laritzak Lanbideren bidez duen eskumen eksklusiboa.

*Araudiak IV. eranskinean zehazten dira.*

## **UDALERRIAK ETA ALDUNDIAK:**

Katearen azken maila dira, eta, beraz, ez dute ia araudi propiorik; EAEko legeriak eta araudiak markatzen dituzte. Eskumenak Lehen Mailako Arretaren bidez ezartzen dira. Arreta hori Udaleko Gizarte Zerbitzuen menpe dago, eta Bigarren Mailako Arreta, berriz, gizarte bazterketako egoeran dauden eta foru aldundien eskumenekoak diren kolektibo espezifikokoak hartzen ditu. Lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuak nabarmendu nahi ditugu, edozein baliabide materialetarako sarbidea delako. Lehenengo baldintza pobretze egoera mugatzea da, eta

hortik, lehenik eta behin, Lanbidera bideratzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskatzeko (RGI). Eta sartzeko baldintzak betetzen ez badira, gainerako prestazio ekonomikoak edo zerbitzuak jartzen dira martxan, bai Udalak berak kudeatutakoak, bai Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, bai “elikagaiak biltzeko” hirugarren sektore-ra bideratzekoak, bai unean-unean ezartzen diren elikagai laguntzetarako Foru Aldundira bideratzekoak.

*Araudi horiek VI. eranskinean ere zehazten dira.*

Azaldutako guztiagatik, dokumentu honen gaiari eragiten dioten araudien zerranda luzea da, eta administrazio eta arlo desberdinei dagokie. Alde horretatik, planak egiteko orduan aurkez daitekeen erronketako bat alorren eta administrazioen arteko erlazioa bera da.

Bestalde, Estatuan janari hondakinen aurkako legearen egungo izapidetzea nabarmendu nahi dugu. Lege hori hondakinak murrizteko Europako eskakizunek bultzatzen dute, eta zuzenean lotzen du hondakinen murrizketa hori giza kontsumoarekin, bereziki baliabide gutxien dituzten pertsonen kontsumoarekin. Gaur egun, lege hori zirriborro moduan dago, eta, beraz, ezin dugu eman gauza itxitzat, baina esan dezakegu egungo zirriborroak ez duela elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea bere printzipio gidarien barruan sartzeko. Aitzitik, printzipio horiek “elikatze katearen baliabideen eraginkortasuna” edo “elikagaien dohaintza sustatzea” dute helburu.

Hori FEAD Europako funtsa amaitzearekin batera tramitatzen ari dira, eta horrek elikadurarako funtsak aldatzea dakar.

2023. urtea amaitu arte, funts<sup>4</sup> horiekin, Espainiako Gobernuak lizitazio publikoa egiten zuen Estatu osoan elikagai hotzak hornitzeko. 2024tik aurrera, Espainiako Estatutik zentralizatu beharrean, eskumena Autonomia Erkidegoena izango da, eta horiek zehaztuko dute kudeatzeko modua. Autonomia erkidegoekin adostasunik ez zegoenez, 2024ko urtarrilean, Estatuko Gobernuak Errege Dekretu bat argitaratu zuen, Madrildik kudeaketa beste urtebetez luzatuz eta Gurutze Gorriak kudeatuko duen txanpon-txartelen sistema ezarriz, supermerkatuetan erosketak egiteko.

Azterketa hau egin aurretik ikusi dugu hainbat establezimendutan gastatzen ahal diren txartel digitalen bizidako produktuen kudeaketarako joera hori; batez ere saltoki handietan erabili ahal direnak, edo Gurutze Gorriak gaitutako guneetan, haiek era berean saltoki handietako janari hondarrekin hornitzen direlarik. Orain arte EAEko hiriburu batzuetan plan pilotu gisa proposatzen ziren ekimen horiek Errege Dekretu honekin ofizialdu egiten dira. Hala, ikusten dugu *de facto* bateratu egiten direla pobrezia egoeran dauden pertsonentzako laguntzak eta banatzaile handiek elikagai hondakinak murrizteko duten beharra.

Arazo kezkarria da inoiz ez dela hitz egiten elikadura eta nutrizio egokirako eskubideaz, baizik eta soberakinei dagokionez emaitza kuantitatiboak lortzeko aukera ematen duela, horretarako pobrezia egoeran dauden pertsonak hartzaile gisa erabiliz. Horrek esan nahi du pertsonentzako elikagai egokiak bermatu ordez, edukiontzi gisa erabiltzen dituela. Gainera, kudeaketa erakunde pribatuen esku dago eta eremu publikotik urruntzen da.

.....

<sup>4</sup> Funtsen %85 inguru Europatik (FEAD funtsetik) datoz, eta Estatuak %100era arte osatzen ditu.



# METODOLOGIA





Lan hau egiteko metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dugu, hau da, ikuspegi mistoa. Fenomeno konplexu batekin lan egitean, biak erabiltzea interesatzen zitzaigun ulermenean sakontzeko.

Ikuspegi kuantitatiboari esker, informazioa bildu ahal izan dugu, EAEn pobretutako pertsonen elikatze eskubidearen egoeraren erradiografia bat ezartzeko; adibidez, zerbitzu eta prestazio batzuen erabiltzaileen datuen bidez (horietako partaideek dituzten ezaugarriak), edo lurraldeka zer ezaugarri dituzten, baliabide publiko edo pribatuak, etab.

Ikuspegi kualitatiboak subjektibotasun handiagoko kontuetan sakontzea errazten digu, hala nola, agertoki horretan aktoreak zein motibazio edo azalpenek mugitzen dituzten (bai egoera ahulean dauden pertsonak, bai sistema publikoko profesionalak, langileak, kudeatzaileak, etab.), zer esanahi eraikitzen dituzten mobilizatzen diren taldearen baitan, zer nolako narratibak ematen dituzten komunikabideek, zergatik azal daitekeen fenomeno hori modu jakin batean, eta ez beste batez, eta abar. Horrez gain, informazioa biltzen laguntzen digu, azterlanaren garapenean analisi lerro berriak edo ondorengo proposamenak ireki ahal izateko.

Gure helburuen arabera, esplorazio ikerketa bat egin da, aipatutako epean eta tokian elikadura eta nutrizio eskubide egokiaren estaldura publiko eta pribatuaren egoera aztertu eta gutxi gorabeherako ikuspegia lortu nahi baitzen (EAE 2023).

Iturri eta teknika motei dagokienez, elkarrizketa erdi-egituratuaren teknikaren bidez lehen mailako iturriak zein bigarren mailako iturriak erabili ditugu, batez

ere dokumentuen berrikuspenaren bidez (bibliografi-koa eta web dokumentazioa).

Elkarrizketa erdi-egituratuak egitea erabaki dugu, galdera konplexuei (motibazioak, pentsamenduak, sinesmenak edo jarrerak) erantzun ahal izateko, eta, hartara, ikuspegi zabal eta integrala izateko. Banakako elkarrizketa erdi-egituratuetan parte hartu zutenak aukeratu ziren:

- Profilen arabera
  - i.** Gizarte langileak eta profesionalak
    - a) sektore publikoak
    - b) sektore pribatukoak
  - ii.** Elikadura gabezia dauden pertsonak/pobretuak
  - iii.** Elikagaien bankuetako zuzendari eta ordezkariak
  - iv.** Beste entitate batzuetako zuzendari eta ordezkariak
- Herrialdeka:
  - i.** Araba
  - ii.** Bizkaia
  - iii.** Gipuzkoa

1. taulan profilak eta herrialdeak ikus daitezke, eta gizonetzkoak, emakumezkoak edo beste genero batzuetakoak direla zehaztu.

1 taula. Elkarrizketatutako pertsonen profila

| HERRIALDEA | SEKTORE PUBLIKOA |        |     | HIRUGARREN SEKTOREA |        |     | IKERKETAREN ESPARRUA |    |     | ELIKADURA ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK |        |     |
|------------|------------------|--------|-----|---------------------|--------|-----|----------------------|----|-----|---------------------------------------------------|--------|-----|
|            | H                | M      | Otr | H                   | M      | Otr | H                    | M  | Otr | H                                                 | M      | Otr |
| ARABA      |                  | A1: A3 |     | C1: B1              |        |     |                      | D1 |     |                                                   | E8     | E2  |
| BIZKAIA    | D2               | A2     |     | B2                  | B3     |     |                      |    |     |                                                   |        |     |
| GIPUZKOA   |                  |        |     | B4: F4              | B5: C3 |     |                      |    |     | E3: E4: E5: E5                                    | E1: E8 |     |

Une horretatik aurrera, pertsona bakoitzari buruz bildutako informazioa aipatuko dugu hemen aurkeztutako kodeen bidez. Adibidez: Informatzailea: A1, D2, etab.

Bibliografia eta dokumentu estatistikoak kontsultatzeaz gain, web dokumentuak berrikusteari esker (webgrafia), sare sozialak erabiltzen dituzten pertsonen iritzia eta ikuspegiak eskuratu ahal izan ditugu. Gaur egun, oso narrazio iturri baliotsua da, eta, era berean, gai horri komunikabideetatik eta publizitatetik ematen zaion tratamendua aztertzeke aukera ere eman digu. Horretarako, hainbat webetako argitalpen eta artikulua hautatu dira aztertzeke, kanal hauen bidez:

- Prentsako web artikulua
- Sare sozialetako post edo mezuak: Instagram, X (Twitter)
- Gaiarekin lotutako erakundearen blogak



# KRONOGRAMA





Lan hau 2023an egin da. Informazio bilketa 2023ko otsailetik uztaileira bitartean egin da, ondoren sistematizazioa eta analisia egiteko. Jarraian, kronograma partekatuko dugu, faseekin:

| 2023                                                           | URT | OTS | MAR. | API | MAI | EKA | UZT | IRA. | URR. | AZA. | ABE |
|----------------------------------------------------------------|-----|-----|------|-----|-----|-----|-----|------|------|------|-----|
| Ikerketaren plan-<br>teamendua eta<br>hasierako bilerak        |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |
| Datu bilketa (Doku-<br>mentuen eta web<br>orrien berrikuspena) |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |
| Datu bilketa (elkarri-<br>zketak)                              |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |
| Datuak prozesatzea<br>(transkripzioa-elkarri-<br>zketak)       |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |
| Informazioaren<br>azterketa                                    |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |
| Txostena idaztea eta<br>taldeekin bilerak<br>egitea            |     |     |      |     |     |     |     |      |      |      |     |

Ikerketa proiektu oro, argazki finko bat erakutsi nahi badu ere, beti da argazki bizia, prozesuan zehar beti alda daitezkeen egoerak izaten baitira. Kasu honetan, hori nabarmen gertatzen da; izan ere, lehenago aipatu den bezala, lan honen denbora esparrua hiru aldaketak zeharkatu dute, eta eragin handia dute lanaren emaitzetan. Hona hemen aldaketa horiek:

- Elikagaien Galerak eta Hondakinak Prebenitzeko Lege Proiektua. Haren onarpena bertan behera geratu zen azken hauteskunde deialdiaren ondoren, eta berriro ekin diote prozedurari 2023ko azaroan.
- Pertsona Behartsuentzako Laguntzaren Europako Funtsa (FEAD) amaitzea.

- Gobernu aldaketa Estatuan.

Aldaketa horiek modua alda badezakete ere, ez dute aldatzen Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia egoeran bizi diren pertsonen elikatzeko beharrari erantzuteko erabiltzen den ikuspegia.

# EMAITZAK





Azterketa horren emaitzak hiru multzo handitan aurkeztuko ditugu. Lehenengotik hasita, elikadurarako eskubidea bete beharra duten pertsonen egoera **diagnostiko** gisa islatzen saiatuko gara, bai eta EAEn pertsona horien eskura jartzen den produktuari buruzko zenbait datu ere; bigarren multzoan, **pertsonen ibilbideak elikagaietaraino eta elikagaien ibilbideak pertsonengaino** jarriko dira, eta, hirugarrenean, kontakizunak eta diskurtsoak aztertuko ditugu.



## A) EA EKO EGOERAREN ERRADIOGRAFIA

### **NORETAZ ETA ZENBAT PERTSONAZ ARI GARA?**

Atal honetan, janarien beharra beren kabuz asetzen ez duten pertsonak eta premia hori erakunde publiko edo pribatuaren bidez betetzen dutenak interesatzen zaizkigu. Nortzuk dira? Zeintzuk dira haien egoerak? Horietako zenbatek erabiltzen dituzte elikagai laguntzarako baliabideak?

Elkarrizketak egin eta datu estatistikoak berrikusi ondoren, talde edo profil hauek identifikatu ditugu:

- Bitoki bazterketa egoeran (etxe gabe) edo askatasunik gabe dauden pertsonak: etxebizitzarik gabekoak, presoak.
- Etxebizitza izanik, elikagaien segurtasuna bermatzeko diru sarrera nahikorik ez duten pertsonak (bai lan prekarioagatik, bai DSBE eskuratze-ko aukerarik ez izateagatik, bai gerora sortutako egoeragatik).
- Bitoki bazterketa egoeran ez egon arren, gizartean egoera ahulean dauden pertsonak, hau da, gizarte bazterketako arriskuan jartzen dituzten hainbat bizi egoerari aurre egiten dietenak (mugikortasuna, irisgarritasuna, energia pobrezia).

Profil orokorrago horien barruan, ondoren, profil zehatzagoen zerrenda dago, elkarrizketatutako pertsonen lekukotzetatik ateratako datuen arabera. Hauek dira gehien errepikatu direnak, eta zapalketa eta pobretze handiena jasaten dutenak.

Zerrenda horretan, bereizi egiten dira kozinatu gabeko produktuak jasotzen dituzten pertsonak eta jantokietara edo janari beroaren banaketetara joaten direnak.<sup>5</sup>

### **A. Produktu hotzaren zuzeneko banaketan:**

- Adin txikikoak dituzten familiak, guraso bakarrekoak gehienak, batez ere enplegu faltaren eta diru sarrera txikien arazoei aurre egiten dietenak. Emakumeen kasuan, zailtasun horiek adingabeen zaintzaz bakarrik arduratu behar izateak eta enplegu duinik lortu ezin izateak eragiten ditu.
- Pertsona migratuak: Aurreko puntuaren zati bat dira; izan ere, Atzerritarren Legearen ondorioz egoera irregularrean dauden eta familia kargak dituzten emakumeak dira, eta ezin dute lana eskuratu lan baimenik ez izateagatik.
- Bakarrik dauden adinekoak: Adineko pertsonena ere elikagai banaketetara jotzen duen talde esanguratsua da. Askotan, pentsioa ez delako nahikoa, edo ez dagoelako pentsiorik. Gainera, zailtasunak izan ditzakete elikagaiak eskuratzeko, mugikortasun edo osasun arazoak direla eta.

.....  
<sup>5</sup> Alde batetik, “Janari beroa” terminoarekin, plater beroan (edo tuperrean) jateko prestatu berria zerbitzatzen den elikagaiaz ari gara. Bestetik, produktu hotza deitzen duguna (galkorra eta ez-galkorra, prozesatua edo prozesatu gabea).

- Soldata eskasak dituzten langileak: Azken urteotan, handitu egin da lanpostu bat izan arren elikadura beharrak asetzen ez dituzten pertsonen kopurua. Funtsezko faktorea etxebizitzaren prezioa da, batez ere alokairuak, baina baita oinarriko hornidurak, zorrak eta abar ere.

## **B. Janari beroaren banaketan:**

- Gizonak: gizarte bazterketa arazoarekin daude. Emakume gutxiago egotearen arrazoietakoa bat da jantokietan ez dagoela baimenduta haurrak sartzea, eta emakumeek adin txikikoak izaten dituzte beren ardurapean. Hala ere, gizon askok, gurasoak izan arren, ez dute zainketa karga hori hartu.
- Pertsona migratuak: Atzerriartasun Legearen ondorioz egoera irregularrean dauden gehienek ezin dute lana eskuratu, lan baimenik ez dutelako.
- Heldu nagusiak: Jantoki sozialek janaria prestatzeko edo behar bezala elikatzeko zailtasunak izan ditzaketen adinekoak erakartzen dituzte, haien osasun egoera, diru sarrera falta edo bakardadea dela eta. Gizon heldu asko ez dira gai sukaldean aritzeko bakarrik geratzen direnean. Hainbat jantokitan prezio murriztua ordainduta sartzeko aukera dago. Adineko pertsona askok elikagai beroa jasotzen dute Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (EELZ) bidez; honek bakarrik dauden edo mugitzeko zailtasunak dituzten adinekoei janaria banatzen die.

Profil horiek erakusten digute, batez ere, janari bero-rako sarbideen maskulinizazioa, zainketa lanetan karga desberdina izatearen ondorioz; izan ere, emakumeak arduratzen dira batez ere adingabeak zaintzeaz, eta debekatuta dute adingabeok eremu horietara sartzea. Emakumeak produktu hotzen banaketan mende daude, gero etxean prestatu behar baitituzte. Horretarako, prestatzeko denbora eta energia behar dira.

Elikadura pobrezia-ri buruzko datu zehatzak aurkeztean aurkitu dugun zailtasuna islatu nahi genuke, bi arrazoi-rengatik: gai honi buruzko datuak eskuratzeko zailtasuna, eta hori neurtzeko adierazle egokirik eza. Herrialde gehienek ez dute etxeetako elikagaien segurtasunik ezari buruzko estatistika ofizialik; kalkuluak zeharkako neurriak erabiliz egiten dira, hala nola pobrezia-aren atalasearen batz besteko neurketak. Neurketa falta zehatz horrek eragina du haien ikusezintasunean. Baina aipua dioen bezala, “daturik gabe, ez dago arazorik, eta ez dago ekintzarik” (Ainhoa Carcavilla 2022). Izan ere, politika publikoak hobetzeko, adierazleetatik ateratako datu argiak beharko genituzke, elikagaien segurtasunik eza eragiten duten arazoietan sakontzen lagunduko digutenak. Datu horiek, ekonomiaren eskuragarritasuna aztertzeaz gain, sarbide fisikoa (ez da gauza bera landa eremua edo metropoli eremua), elikaduraren kalitatea, generoa edota lege egoerari erreparatu beharko liekete.

Horrekin batera, nabarmendu nahi dugu elikadura pobreziaz hitz egiten dela, baina pobrezia ezin dela zati-tu, gabezia material bati erantzuten baitio, eta gabezia hori ordena honetan gertatzen da (Carvajal 2019): lehenik, egunean bizitzea eta oporrak kentzea. Bigarrenik,

etxebizitzaren mantentze gastua ere kentzen da, ordainketak atzeratzen dira, energia aurrezten da, berogailua ez da pizten, etab. Hirugarrenik eta azkenerako, egoerak etsipena ekartzen duenean, autoa alde batera uzten da eta elikadura murrizten da. Prozesu horretan, elikaduraren murrizketa kuantitatibo bat egin edo laguntza bila dabiltzan lekuetara joan aurretik, elikagai eskasagoak eskuratzen dira kalitatearen eta nutrizio baliorearen kaltetan. Elikadura gastua oso zati malgua da egoera ahulenean dauden familien aurrekontuetan, gosea negoziatzen den zerbait baita, baina gosera iritsi eta estatistiketan agertu aurretik, prekarizazio prozesua oso handia izan da. *Qué comen las que malcomen (2020)* testuan esaten den bezala, *gizarte bazterketako egoeraren dauden pertsonen egingo duten lehen gauza izango da ondo jateari uztea (ez da gauza bera jatea edo ondo jatea), eta egoera horretatik ateratzen badira, elikadura ona berreskuratzea izango da egingo duten azkenengo gauza.* (Alvárez, Fidalgo, Herrero, & Shaw, 2020)

Ikerketa datu mailan kokatzen saiatzeko, Espainiako populazioaren zifrak hartzen ditugu: 48.446.594 biztanle 2023ko urriaren 1ean, INEren arabera. Bartzelonako Unibertsitateko eta Daniel & Nina Carasso Fundazioko “*Alimentando un futuro sostenible*” azterlanaren arabera, familien %13,3 (2,5 milioi pertsona) elikagaien zaurgarritasunean bizi dira, hau da, *bizitza aktibo eta osasungarria izateko behar adina elikagai elikagarri eskuratzeko aukerarik gabe.*

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 2023ko urtarriaren 1ean, 2.196.745 biztanle zeuden guztira, Eustaten arabera. Lurraldearen araberrako banaketa:

1 taula. EAEko biztanleak lurraldeka (2023ko urtarrilaren 1a)

|                             | <b>Guztira</b>   |
|-----------------------------|------------------|
| <b>Guztira</b>              | <b>2.196.745</b> |
| <b>Lurralde historikoak</b> |                  |
| Araba/Álava                 | 332.851          |
| Bizkaia                     | 1.144.019        |
| Gipuzkoa                    | 719.875          |

AROE<sup>6</sup> indizeak erakusten digu EAEko datuak beste autonomia erkidego batzuetakoak baino baxuagoak direla, EAPNk (2023) Autonomia Erkidegoetako Pobreziaren Egoerari buruzko 13. txostenean jasotzen duenaren arabera. Zehazki, 2022an EAEko tasa %15,7koa izan zen, eta Espainiako estatuko batez bestekoa %26koa. Hala ere, EAEko biztanleriaren zati handi batek ez du bere oinarrizko beharrak asetzeko beharrezko baliabiderik; izan ere, 2022an 2.200.000 biztanle ingurutik %12,2 pobrezia arriskuan zegoen.<sup>7</sup>


Lupa ireki eta leku zehatzetara begiratzen badugu, azken urteetan pobretutako pertsonen kopuruak gora egin duela ikus dezakegu. Adibidez, Gasteizen, gizarte ongizaterik ez duten familien ehunekoa 2008ko %6,6tik 2020ko %12ra igo da. Oro har, datuek erakusten dute

.....  
<sup>6</sup> AROPE (At Risk Of Poverty and/or Exclusion) adierazle erabilia da Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Europako Saretik pobrezia eta gizarte bazterketa neurtzeko. Adierazle horrek hiru osagai edo azpiadierazle biltzen ditu, etxeko pobrezia, gabezia materiala eta lan intentsitate txikia neurtzeko.

<sup>7</sup> Pobrezia arriskua: Oinarrizko beharrei aurre egiteko beharrezkoa denaren atalasea baino diru sarrera txikiagoak dituzten etxeak pobrezia larrian egoteko arriskuan daude. (Eustat, 2023)

ia eskualde guztietan hazi egin dela, eta Bilbo, Gasteiz eta Debabarrena batez bestekoaren gainera daudela (%9,5).

2 taula. EAEko pobrezia-arriskua



3 taula. Pobrezia eta prekaritate errealeko egoeren bilakaera eskualdeka. 2008-2020

## Familia etxebizitzetako populazioa % Inzidentzia

| Eskualdea                  | Mantenu pobrezia |      |      |      |      |      | Metatze pobrezia |      |      |      |      |      | Pobrezia erreala |      |      |      |      |      | Benetako ongizaterik eza |      |      |      |      |      |
|----------------------------|------------------|------|------|------|------|------|------------------|------|------|------|------|------|------------------|------|------|------|------|------|--------------------------|------|------|------|------|------|
|                            | 2008             | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020 | 2008             | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020 | 2008             | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020 | 2008                     | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020 |
| Gasteiz                    | 6,1              | 7,4  | 11,3 | 9,7  | 8,2  | 10,2 | 1,7              | 1,3  | 1,3  | 2,4  | 1,3  | 0,7  | 4,4              | 6,2  | 8,9  | 10,6 | 6,9  | 7,7  | 6,6                      | 10,8 | 15,9 | 14,6 | 13,7 | 12,0 |
| Aiara                      | 4,3              | 6,4  | 5,6  | 9,8  | 4,2  | 7,4  | 2,1              | 0,1  | 2,4  | 1,8  | 0,0  | 0,0  | 2,3              | 2,2  | 4,4  | 9,1  | 2,2  | 5,1  | 6,2                      | 3,5  | 11,3 | 11,9 | 4,5  | 6,8  |
| Urtze Kosta eta Hago Urtze | 5,3              | 5,5  | 5,2  | 3,5  | 6,0  | 6,0  | 0,2              | 0,7  | 0,5  | 0,8  | 0,2  | 0,0  | 3,0              | 5,1  | 3,3  | 2,4  | 3,3  | 3,6  | 5,7                      | 9,1  | 7,3  | 4,8  | 6,4  | 5,7  |
| Bilbo                      | 10,1             | 10,6 | 11,4 | 8,8  | 12,6 | 12,2 | 2,3              | 2,3  | 3,5  | 4,0  | 2,4  | 0,7  | 7,6              | 9,5  | 8,4  | 7,7  | 10,1 | 8,2  | 13,8                     | 13,6 | 15,9 | 14,2 | 18,5 | 13,5 |
| Ezkerrialdea               | 5,8              | 8,0  | 9,2  | 8,6  | 10,0 | 7,7  | 3,3              | 2,7  | 3,5  | 2,1  | 1,4  | 0,3  | 5,6              | 5,8  | 6,5  | 5,2  | 7,7  | 4,6  | 11,8                     | 12,4 | 14,1 | 13,6 | 15,2 | 9,5  |
| Bizkaia-Kostaldea          | 3,2              | 6,9  | 6,3  | 8,0  | 7,6  | 3,5  | 1,3              | 1,1  | 0,7  | 0,3  | 0,1  | 0,0  | 2,0              | 2,9  | 5,9  | 5,6  | 4,6  | 2,6  | 5,2                      | 6,0  | 11,7 | 7,8  | 10,1 | 5,1  |
| Durangaldea                | 5,3              | 3,8  | 4,9  | 5,8  | 6,5  | 6,2  | 1,1              | 0,2  | 0,6  | 1,2  | 1,0  | 1,0  | 2,8              | 2,4  | 4,3  | 4,7  | 4,0  | 5,6  | 3,5                      | 10,3 | 8,4  | 8,6  | 8,0  | 7,0  |
| Donostialdea               | 4,7              | 6,9  | 7,0  | 5,1  | 5,7  | 7,6  | 0,4              | 0,8  | 1,6  | 0,3  | 0,1  | 0,0  | 3,1              | 4,1  | 4,0  | 4,0  | 5,0  | 5,2  | 6,6                      | 8,7  | 7,7  | 8,6  | 12,6 | 9,1  |
| Toiasso-Goteri             | 2,1              | 6,8  | 5,1  | 4,0  | 4,6  | 4,6  | 0,3              | 2,4  | 1,8  | 0,7  | 0,1  | 0,3  | 1,3              | 4,5  | 5,0  | 3,7  | 2,4  | 4,2  | 4,7                      | 6,7  | 7,5  | 8,2  | 7,9  | 6,5  |
| Debaegoiena                | 1,2              | 2,5  | 4,8  | 4,7  | 4,0  | 4,2  | 0,9              | 0,1  | 0,2  | 0,0  | 0,2  | 0,0  | 0,4              | 2,0  | 4,1  | 1,3  | 3,1  | 3,5  | 1,9                      | 8,4  | 8,5  | 3,7  | 5,4  | 7,8  |
| Deba Beherea               | 3,4              | 4,9  | 8,4  | 7,9  | 9,3  | 10,3 | 0,0              | 0,2  | 0,6  | 0,7  | 0,2  | 1,2  | 1,8              | 2,2  | 3,8  | 8,1  | 5,9  | 8,2  | 4,9                      | 6,9  | 6,7  | 11,4 | 10,3 | 10,9 |
| Guztira                    | 5,7              | 7,3  | 8,2  | 7,1  | 8,0  | 8,0  | 1,5              | 1,4  | 2,0  | 1,6  | 0,9  | 0,3  | 4,2              | 5,3  | 5,9  | 5,7  | 6,1  | 5,6  | 8,2                      | 10,1 | 11,5 | 10,8 | 12,5 | 9,5  |

(Gobierno Vasco, 2021)

EAEko elikagai pobreziaziari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, 2020an 81.268 pertsonak zuten elikadura segurtasunik eza, eta hor daude elikadura arazo *larriak edo oso larriak* dituztenak.

#### 4. taula. Diru sarrerren/mantenuaren dimentsioko gabezia adierazle espezi- fiko batzuen bilakaera (pobrezia adierazleak). 1986-2020

4.a taula  
Diru sarrerren/mantenuaren dimentsioko gabezia adierazle espezi-  
fiko batzuen bilakaera (pobrezia adierazleak). 1986-2020  
Datu absolutuak  
Familia etxebizitzetako populazioa

| Indicadores                                                               | 1986    | 1996    | 2000    | 2004    | 2008    | 2012    | 2014    | 2016    | 2018    | 2020    | Evolución<br>2018/2020 | Evolución<br>2008/2020 |
|---------------------------------------------------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|------------------------|------------------------|
| Necesidad de reducir gastos básicos                                       | 612.756 | 148.234 | 130.717 | 190.353 | 174.145 | 362.989 | 275.901 | 353.212 | 252.162 | 284.248 | 12,7                   | 63,2                   |
| No cubre en la actualidad los gastos básicos                              | 0       | 77.352  | 142.624 | 113.541 | 66.241  | 124.808 | 101.776 | 117.261 | 121.659 | 103.499 | -14,9                  | 56,2                   |
| <b>Problemas de acceso a la alimentación</b>                              |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |                        |                        |
| <b>Indicadores FSS</b>                                                    |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |                        |                        |
| Problemas graves de alimentación                                          |         |         | 49.782  | 52.493  | 75.915  | 100.980 | 99.415  | 77.999  | 46.149  | 40.885  | -11,4                  | -46,1                  |
| Problemas muy graves de alimentación                                      |         |         | 22.369  | 56.373  | 46.084  | 67.144  | 63.396  | 66.546  | 39.111  | 40.383  | 3,3                    | -12,4                  |
| - En hogares donde se ha sentido hambre                                   |         |         | 17.289  | 26.477  | 21.271  | 46.122  | 25.834  | 36.680  | 25.674  | 28.328  | 10,3                   | 33,2                   |
| Total problemas de inseguridad FSS                                        |         |         | 72.151  | 108.866 | 121.999 | 168.124 | 162.811 | 144.545 | 85.260  | 81.268  | -4,7                   | -33,4                  |
| <b>Indicadores EU-SILC</b>                                                |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |                        |                        |
| No comida proteínica al menos cada dos días                               |         |         |         | 70.687  | 49.845  | 78.038  | 66.503  | 72.556  | 50.529  | 39.321  | -22,2                  | -21,1                  |
| <b>Problemas en cobertura de obligaciones y gastos habituales</b>         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |                        |                        |
| Impagados o atrasos en el pago (alquileres, créditos, hipotecas, recibos) | 54.803  | 42.948  | 48.606  | 55.769  | 63.411  | 127.589 | 134.673 | 135.516 | 141.092 | 121.832 | -13,7                  | 92,1                   |
| Cortes de suministro (agua, luz, teléfono)                                | 55.156  | 17.209  | 21.953  | 23.940  | 35.191  | 52.413  | 38.255  | 42.291  | 29.774  | 17.336  | -41,8                  | -50,7                  |
| Embargo de bienes                                                         | 0       | 3.801   | 12.680  | 7.284   | 7.130   | 17.270  | 10.679  | 17.208  | 19.966  | 20.640  | 3,4                    | 189,5                  |
| Venta de propiedades, cambio de vivienda o de colegio                     | 72.906  | 12.587  | 13.387  | 11.072  | 5.426   | 16.700  | 11.946  | 19.607  | 14.157  | 45.764  | 223,3                  | 743,5                  |
| <b>Otros problemas asociados a la subsistencia</b>                        |         |         |         |         |         |         |         |         |         |         |                        |                        |
| Recurso a prendas de segunda mano                                         | 0       | 108.286 | 75.644  | 121.820 | 79.657  | 153.965 | 138.701 | 142.628 | 185.358 | 101.956 | -45,0                  | 28,0                   |
| Recurso a prendas de segunda mano (individual)                            |         |         |         |         |         |         |         |         |         | 101.638 |                        |                        |
| Prob. temperatura adecuada meses de invierno                              | 88.668  | 110.669 | 113.664 | 88.611  | 180.210 | 237.526 | 189.805 | 199.654 | 150.439 |         | -24,7                  | 69,6                   |

Fuente: ESSDE-1986, EPDS 1996, 2000, 2004, 2008, 2012, 2016 y 2020, y EDSS-ENS 2014, 2018

Notas: El indicador de evolución muestra la variación en % en el volumen de personas afectadas en la encuesta respecto a la existente, respectivamente, en 2008 y 2018.

Salvo en el caso del indicador relativo a No cubre en la actualidad los gastos básicos y la pregunta relativa al acceso a una comida proteínica cada dos días, en los demás casos los indicadores hacen referencia a la ocurrencia de las circunstancias consideradas en algún momento del año anterior al momento de la encuestación

Iturria: Eusko Jaurlaritz (2021)

## II. ZENBAT PRODUKTURI BURUZ ARI GARA HIZKETAN ETA NONDIK DATOR?

Atal honetan, hotzeko produktuen zifrak kontabilizatu-  
tuko ditugu batez ere. Kanal bakarra ez izan arren, ba-  
natzen diren produktu kg-ei buruzko datuak ditu (au-  
rrerago, jaki prestatuak non eskura daitezkeen azalduko  
dugu).

Lehen esan dugun bezala, produktua sartzeko iturrie-  
tako bat aldatzen ari da, Europako Gizarte Funtsaren

ohar berriak direla eta. Hala ere, interesgarria iruditzen zaigu hizpide dugun produktu kantitatea ezagutzea.

2022an, EAEn honako janari kopuruak banatu ziren: 1.533.926 kilo banatu ziren Araban, 4.336.255 kg. Bizkaian eta 2.548.000 kg, Gipuzkoan; 73.791 pertsona/familiari guztira.

Estatuan 151.684.045 kg. elikagai banatu ziren 1.246.106 lagun/familiatan. Iturri hori deskribatutako gainerako datuei (FEGA, 2023) gehituz gero, kalkulatzen da banatutako kantitatea ez dela iristen pertsona batek urtebetean behar dituen 590 kiloak betetzera.

2023an, EAeko FEAD funtsekin erositako elikagai lehorraren banaketa 427.031,20 kg-koa izan da, 707.922,75 €-koa, apirileko lehen fasean. Horretarako baimena duten bi entitateek banatu dituzte: Curutze Gorriak eta Elikagaien Bankuak. *I. eranskinean fase* honetan banatu diren elikagai batzuen adibideak ikus ditzakegu.

5 taula. EAEn egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko 2023 programa

| EAEn egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko 2023ko programaren datuak |            |                       |                      |                              |            |            |                  |
|-----------------------------------------------------------------------------|------------|-----------------------|----------------------|------------------------------|------------|------------|------------------|
| Autonomia Erkidegoa                                                         | Herrialdea | Elikagai kopurua (kg) | Balio ekonomikoa (€) | Lotutako erakundeak          | CAD zbkia. | OAR zbkia. | Onuradun kopurua |
| EAE                                                                         | ARABA      | 35.771,28             | 59.232,84            | GURUTZE GORRIA<br>ETA FESBAL | 2          | 17         | 2.411            |
|                                                                             | GIPUZKOA   | 133.637,68            | 222.508,75           | GURUTZE GORRIA<br>ETA FESBAL | 2          | 53         | 11.956           |
|                                                                             | BIZKAIA    | 257.622,24            | 426.181,16           | GURUTZE GORRIA<br>ETA FESBAL | 2          | 61         | 21.495           |
| GUZTIRA                                                                     |            | 427.031,20            | 707.922,75           |                              | 6          | 131        | 35.862           |

Iturria: FEGA (2023)

Banatutako **produktuen jatorria** askotarikoa da, taula honetan ageri den bezala:

6 taula. Jatorriaren arabera bildutako 6 elikagaiak

| JATORRIAREN ARABERA                                                      | 2021             |               | 2022             |               |
|--------------------------------------------------------------------------|------------------|---------------|------------------|---------------|
|                                                                          | Kg               | %             | Kg               | %             |
| Nekazaritzako elikagaien industriari emandakoak                          | 1.000.404        | 47,88         | 831.468          | 43,17         |
| Elikagaien Bankuek egindako erosketak, dohaintzen eta bonoen funtsetatik | 450.380          | 21,56         | 557.624          | 28,95         |
| Beste Elikagai Banku batzuetatik ekarriak                                | 416.480          | 19,93         | 294.838          | 15,31         |
| Fruta eta barazkien programa (Nekazaritza Ministerioa)                   | 125.070          | 5,99          | 115.839          | 6,01          |
| Elkarte, enpresa eta ikastetxeetan egindako kanpainak                    | 48.648           | 2,33          | 43.412           | 2,25          |
| FESBALetik jasotakoak (Elikagai Bankuen Federazioa)                      | 47.161           | 2,26          | 24.318           | 1,26          |
| Bilketa Handian eta dendetako beste kanpaina batzuetan jasotakoak        | 1.283(*)         | 0,06          | 58.351           | 3,03          |
|                                                                          | <b>2.089.424</b> | <b>100,00</b> | <b>1.925.850</b> | <b>100,00</b> |

(\*): Kanpaina honetan dohaintza soilik elikagaiekin trukatzeko Bonoen bitartez egina izan zen

Iturria: Arabako Elikagaien Bankua (2023)

Nabarmendu da, azken urteotan, nekazaritzako elikagaien industria dela sarrera iturri nagusia, baina, lehen esan dugun bezala, produktuaren sarrera horrek ez duela nutrizio irizpiderik. Izan ere, elikagai horiek alferrik galtzea saihesteko ematen dituzte, ezin direlako saldu edo merkaturatu. Kasu horietan, industria arduratzen da merkaturatu ezin den soberako produktua kudeatzeaz. Kudeaketa modu horrek, dohaintzak, ez dakar inolako kosturik; gainera, dohaintzat hartzean onura fiskalak sortzen ditu.

Produktu motari dagokionez, taula honetan ageri da Bizkaian zenbat kilo banatu diren produktu mota bakoitzeko 2022an. Garrantzitsua da azpimarratzea, banakatura ez egon arren, edari eta zukuen atalean gehienak azukre asko duten produktuak direla.

Ondoko grafikoa Bizkaiko Elikagai Bankuaren 2023ko memorian ageri da, eta bertan banatzen diren elikagaien jatorria ikusten dugu. Elikagai enpresak dira kanal nagusia, %30 baitira.

7 taula. 2022an Bizkaiko Elikagaien Bankuak banatutako produktu kiloak

| 2022AN BANATUTAKO ELIKAGAIK (KG) / ALIMENTOS REPARTIDOS EN 2022 (KG)     |                  |
|--------------------------------------------------------------------------|------------------|
| ELIKAGAI-TALDEA / GRUPO DE ALIMENTOS                                     | GUZTIRA / TOTAL  |
| ESNEKIAK / LACTEOS                                                       | 822.010          |
| FRUTAK / FRUTAS                                                          | 454.995          |
| BARAZKIAK / VERDURAS                                                     | 266.284          |
| PASTA ETA ARROZA / PASTAS Y ARROZ                                        | 266.279          |
| KONTSERBAK / CONSERVAS                                                   | 230.157          |
| OLIOAK / ACEITES                                                         | 125.226          |
| LEKALEAK / LEGUMBRES                                                     | 190.730          |
| EDARIAK ETA ZUKUAK / BEBIDAS Y ZUMOS                                     | 50.200           |
| GOZOK ETA GOSARIAK / REPOSTERÍA Y DESAYUNOS                              | 189.123          |
| ARRAIN ETA HARAGI / PESCADO Y CARNE                                      | 185.080          |
| SALTSAK ETA AURREZ SUKALDATUTAKO PLATERAK / SALSAS Y PLATOS PRECOCINADOS | 50.224           |
| UMEENTZAKO ELIKAGAIK / ALIMENTOS INFANTILES                              | 38.428           |
| HAINBAT PRODUKTU / PRODUCTOS VARIOS                                      | 300.100          |
| ARRAUTZAK ETA PATATAK / HUEVOS Y PATATAS                                 | 279.980          |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                                                   | <b>3.448.816</b> |

(Bizkaiko Elikagaien Bankua, 2023)


8 taula. Elikagaien jatorria Elikagaien Bankua Bizkaia

| ELIKAGAIEN JATORRIA (KG) / ORIGEN DE LOS ALIMENTOS (KG) |                  |               |
|---------------------------------------------------------|------------------|---------------|
| EB / UE                                                 | 630.598          | 14,54 %       |
| BILKETAK / COLECTAS                                     | 693.709          | 15,99 %       |
| MERCABILBAO                                             | 464.438          | 10,71 %       |
| NEKAZARIEN KOOPERATIBAK / COOPERATIVAS AGRÍCOLAS        | 236.841          | 5,46 %        |
| ELIKAGAIEN ENPRESAK / EMPRESAS ALIMENTARIAS             | 1.286.350        | 29,66 %       |
| BANAKETA-ENPRESAK / EMPRESAS DE DISTRIBUCIÓN            | 239.448          | 5,52 %        |
| GALKORRAK / PERECEDEROS                                 | 664.771          | 15,33 %       |
| HAINBAT / VARIOS                                        | 120.100          | 2,76 %        |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                                  | <b>4.336.255</b> | <b>100,0%</b> |

(Bizkaiko Elikagaien Bankua 2023)

Datuen atala amaitzeko, Arabako Elikagaien Bankuak 2022. urteko memoriarako egindako taula bat partekatzen dugu. Taula horretan, elikagai bankuak finantzatzeko moduak zeintzuk izan diren azaltzen da. Azterketa horretan nabarmendu behar da diru sarrera gehienak pertsona eta enpresa pribatuen dohaintzetatik datozela (dirutan nahiz gauzatan), funts publikoetatik egindako ekarpenen gaintetik. Horrek esan nahi du elikadura bezalako oinarritzko eskubide baten estaldura gaur egun dohaintza pribatuen mende dagoela.

9 taula. 2020an, 2021ean eta 2022an Arabako Elikagaien Bankuak jasotako diru-ekarpenen iturriak



|                | 2020             | 2021             | 2022             |
|----------------|------------------|------------------|------------------|
| <b>GUZTIRA</b> | <b>717.304 €</b> | <b>568.484 €</b> | <b>553.192 €</b> |

(1): 2022an jasotako bono kopuru txikiagoaren azalpena izan liteke urte horretako Bilketa Handian elikagaiak ere eman zirela, aurreko bi urteetan ez bezala.

(2): Jundizko poligonoko pabilioien eta Brasil kaleko lokalean alokairua, urtean 50.000 €-koa eta Eusko Jaurlaritzak barkatzen duena ez da zenbatu ekarpenetan

Iturria: Arabako Elikagaien Bankua (2022)

Atal honetan, supermerkatu batzuek egiten dituzten “zentimo solidarioko” kanpainen funtzionamendua aipatu nahi dugu. Hilabete hauetan, kanpaina horien entitate hartzaileekin hitz egin ahal izan dugu, eta adierazi digute funtzionatzeko era hau dela: Supermerkatuak dohaintzen dirua jaso ondoren, entitateari dirutan ordaintzen die. Ondoren, entitate horrek kopuru bera “erosi” du supermerkatuan, elikadura-bonuen bidez, erakunde horretan bertan gastatzeko. Ez dugu daturik esateko supermerkatuek lehen ordainketa dohaintza gisa deklaratu dutela, baina horrela egingo balute onura fiskalak lortuko lituzkete horregatik, kontuan hartu gabe diru hori ez dela entitateentzat benetan, baizik eta pertsona txirotuek erosketak entitate “emaile” berean egin ditzaitez, eta, beraz, esan dezakegu dohaintzaren zenbatekoa berriro ere supermerkatuan geratzen dela.

### **III. ZENBAT PRODUKTU JASOTZEN DITUZTE PERTSONEK HOTZEN BANAKETETAN?**

Orain arte EAEn modu orokorrean banatutako aurrekontuez eta kopuruez hitz egin dugu, baina uste dugu garrantzitsua dela datu horiek lurreratzea, jakiteko familia bati dakarkiotena. Zer jasotzen dute familiek banaketetan? Zenbat eta nolako produktuez ari gara hitz egiten?

Hotzeko banaketetan, jasotzen diren produktuak ez dira galkorrak izaten normalean, eta produktu fresko pixka batekin osa daitezke, erakundeen ahalmenen arabera. Adibidez, Gipuzkoako EBn, 2022an, 38.428 kg fruta eta barazki banatu ziren 3.829 lagunen artean, hau da, urtean batez beste 10 kg familia bakoitzeko.

8 taula. 2020an, 2021ean eta 2022an Arabako Elikagaien Bankuak jasotako diru-ekarpenen iturriak



Iturria: Altas Rias-eko Elikagaien Bankua

Europako funtsetatik datorren oinarrizko packa argazkian ikus daiteke. Hauek izan ohi dira: babarrun egoziak, arroz zuria, kakao disolbagarria, atun kontserbak, haragi kontserbak, sardina kontserbak, fruta kontserbak, galletak, txitxirio egosia, espageti motako pasta, fideo motako pasta, haurrentzako potetxoak (fruta eta oilaskoa) eta kontserbako tomate frijitua. Produktu horiek hilean behin jasotzen dira, eta kuantifikatu ondoren 48-52 euroko kostua dutela kalkulatu da. Familiako kide kopuruaren arabera alda daiteke, batez ere adingabeak, eta haientzat esnekien kopurua handitu daiteke.

#### **IV. NORK BANATZEN DU PRODUKTU HOTZA?**

Orain arte, Espainiako Estatutik zentralizatutako Europako funtsen kasuan, bi erakunde zeuden egiaztatuta produktu horiek Estatuan jaso eta banatu ahal izateko Erakunde Elkartu Banatzaileen bidez (OAD). Erakunde horiek Gurutze Gorria eta Elikagaien Bankuen Federazioa (FESBAL) dira. Haiek jasotzen dute produktua, eta, era berean, tokian tokiko erakunde txikiagoen artean banatzen dute: Errepartorako Erakunde Elkartuak (OAR). Bizkaian 160 erakundek baino gehiagok banatzen dituzte produktuak herritarren artean, Araban 2022an 30 ziren eta Gipuzkoan 164.

#### **V. PRODUKTU BEROEI BURUZKO DATUAK:**

Taula honetan, 2022. urteko zifrak dituzten zentroak ikus ditzakegu lurralde historikoka. Kopuru horretan, EAEko jantoki sozialen zentro kopurua ikus dezakegu, etxerik gabekoentzako edo etxea izanda ere sukalderrako sarbiderik ez duten pertsonentzako. Ikusi dugunez, pertsona guztiak ezin dira haietara sartu; izan ere, denbora bat eman behar da herrian edo errolda izan behar da pertsona egoiliartzat hartzeko eta horietako batzuetara sartzeko. Herri batzuetan itxaron zerrenda dago.

Produktua eskaintzen den espazio publikoei dagokienez, 2022. urtean 3.150 pertsona inguruk hartu zuten jantoki arloko plaza bat, eta horietatik 900 inguru eguneroko joaten dira jantoki sozialetara. Nabarmendu behar da etxerik gabeko edo sukalderra sarbiderik gabeko

etxedun pertsonentzako zentroetan aritzen diren langile guztien artetik 1/3 inguru boluntarioak zirela 2022an eta gainerakoak, langile kontratatuak.

10 taula. Etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentrozen magnitude nagusiak EAEn

|                                               | 2022   | 2020   | Incremento % |
|-----------------------------------------------|--------|--------|--------------|
| <b>Plazas:</b>                                |        |        |              |
| - Plazas de alojamiento:                      | 4.313  | 4.260  | 1,2          |
| -- En albergues y centros de baja exigencia   | 748    | 1.098  | -31,9        |
| - Plazas de restauración:                     | 2.775  | 3.158  | -12,1        |
| -- En comedores sociales                      | 809    | 899    | -10,0        |
| <b>Personas sin hogar alojadas:</b>           | 3.410  | 3.471  | -1,8         |
| - En albergues y centros de baja exigencia    | 638    | 993    | -35,8        |
| <b>Servicios de restauración</b>              | 4.472  | 5.581  | -19,9        |
| <b>Personal:</b>                              | 2.385  | 2.752  | -13,3        |
| - Asalariado                                  | 1.756  | 1.903  | -7,7         |
| - Voluntario                                  | 452    | 642    | -29,6        |
| <b>Gastos de funcionamiento (miles euros)</b> | 76.072 | 65.708 | 15,8         |
| - Financiación pública (%)                    | 90     | 91     | -1,3         |
| <b>Gasto por habitante (euros)</b>            | 34,8   | 29,9   | 16,4         |

Nota: Las plazas y ocupación se refieren a la media de 15 de junio y 15 de diciembre

Fecha 26 de Septiembre de 2023

Fuente: Eustat. Estadística de recursos para personas sin hogar

Iturria: Eustat (2023)

Taula honetan, zentro motak ikus ditzakegu, prestazio motaren arabera (gosaria, bazkaria edo afaria), 2022ko bi daten arteko konparazio batean, eta horietako bakoitzean emandako zerbitzu kopurua. Adibidez, jantoki sozialetan gehien ematen diren otorduak bazkariak dira, baina kopuru osoari erreparatuz gero, kopuru hori orekatu egiten da; izan ere, eskakizun txikiko zentro batzuek ez dute bazkaririk ematen eta horko pertsonak jantokietara joaten dira.

11 taula. Etxerik gabeko pertsonentzako zentrozen ezaugarriak EAEn, prestazio motaren, zentro motaren eta dataren arabera. 2022

|                        | Total centros |              | Centros con alojamiento               |              |                                     |              |              |              | Centros sin alojamiento |              |                               |              |     |     |
|------------------------|---------------|--------------|---------------------------------------|--------------|-------------------------------------|--------------|--------------|--------------|-------------------------|--------------|-------------------------------|--------------|-----|-----|
|                        | Total         |              | Albergues y centros de baja exigencia |              | Alojamientos colectivos y viviendas |              | Total        |              | Comedores sociales      |              | Otros centros sin alojamiento |              |     |     |
|                        | A 15-06-2022  | A 15-12-2022 | A 15-06-2022                          | A 15-12-2022 | A 15-06-2022                        | A 15-12-2022 | A 15-06-2022 | A 15-12-2022 | A 15-06-2022            | A 15-12-2022 | A 15-06-2022                  | A 15-12-2022 |     |     |
| <b>Restauración</b>    |               |              |                                       |              |                                     |              |              |              |                         |              |                               |              |     |     |
| Número de servicios    | 4.382         | 4.562        | 3.160                                 | 3.196        | 1.138                               | 1.179        | 2.022        | 2.017        | 1.222                   | 1.366        | 708                           | 869          | 514 | 497 |
| -Número de desayunos   | 1.475         | 1.511        | 1.148                                 | 1.164        | 449                                 | 470          | 699          | 694          | 327                     | 347          | 68                            | 111          | 259 | 236 |
| -Número de comidas     | 1.523         | 1.575        | 875                                   | 864          | 252                                 | 241          | 623          | 623          | 648                     | 711          | 428                           | 488          | 220 | 223 |
| -Número de cenas       | 1.384         | 1.476        | 1.137                                 | 1.168        | 437                                 | 468          | 700          | 700          | 247                     | 308          | 212                           | 270          | 35  | 38  |
| Plazas de restauración | 2.756         | 2.794        | 1.443                                 | 1.474        | 591                                 | 613          | 852          | 861          | 1.313                   | 1.320        | 806                           | 811          | 507 | 509 |

Iturria: Eustat (2023)

Guk identifikatu dugun arazo handienetako bat da baliabide gehienak hiriburuetan kokatzen direla, baliabide publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan adierazitako biztanleria irizpideen arabera kokatzen baitira. Mapa horretan, lurralde osoan biztanle kopuruaren arabera antolatzeke oinarriak zehazten dira. Horren ondorioz, etxerik gabeko pertsonen hiri handietan biltzeko joera dute. Horren arabera, (Eustat 2023), baliabide gehienak ere EAEko hiru hiriburuetan kokatu ziren. Gasteizen, alojamendu plazen %95,3 eta jantoki plazen eta Arabako eguneko zentrozen %100 kokatu ziren. Bilbon alojamendu plazen %75,4, jantoki plazen %76,1 eta Bizkaiko eguneko zentroetako plazen %71,1 bildu ziren. Gipuzkoak, berriz, lurralde eredu deszentralizatuena izan zuen, Donostian alojamendu plazen %42,2, jantoki plazen %33,7 eta eguneko zentroetako plazen %44,5 eskaini baitziren.



## B) ELIKAGAIEN LAGUNTZARAKO BIDEAK: IBILBIDEAK

Atal honetan, elikagaien laguntzarako bideak deskribatuko ditugu, bai pertsonenak bai elikagaienak. Ereku publikotik kudeatutako baliabideetarako ibilbideei arreta handiagoa jarriko diegu, eta, amaieran, beste sarbide batzuk aipatuko ditugu. Hor aurkituko ditugu, adibidez, erlijio erakundeek kudeatutako espazio pribatuak edo autogestioan eta/edo eraikuntza kolektiboan oinarritutako funtzionamendu moduak dituzten espazioak.

### **PERTSONEN IBILBIDEAK**

Hasteko, EAEko oinarrizko elikadura beharren bermeari buruzko informazioa aurkeztuko dugu, eta, horretarako, dauden laguntzen esparrua zehaztuko dugu.

Jarraian ageri den eskeman islatzen da pertsona edo familia batek zer ibilbide egin beharko lukeen, pobretua izanik, elikadura ziurtatzeko baliabide bat eskatzeko. Ibilbide hau hainbat tokitatik igarotzen da, eta aurrerago ikusiko dugunez, hainbat baldintza eta epe ditu. Batzuetan, elikadurarako berariazko baliabideak dira, eta beste batzuetan, oinarrizko beharretarako laguntzak dira, eta horien artean sartzen da elikadura.

Pertsona presoan kasuan, espetxe erakundearen barruan ematen zaie janaria.


Hurrengo orrialdeetan, baliabide horiek aurkeztuko ditugu modu apur bat garatuagoan, beren berezitasunekin, denak ez baitira pertsona guztientzat eskuragarriak. Bi multzotan banatuko ditugu: batetik, dirulaguntzak, eta, bestetik, janaria zuzenean ematen duten laguntzak, bai janari prestatua bai prestatu gabea.

Esan bezala, baliabide bakoitzak sartzeko baldintza batzuk ditu, baina arazo gisa ikusi da elikagai laguntzaren baterako ez dagoela irizpide argirik ezarrita. Horrek esan nahi du hirugarren sektoreko erakundearen irizpide subjektiboen mende egon daitekeela, neurri handiagoan edo txikiagoan. Katalogoaren Dekretuan<sup>8</sup> (Decreto de Cartera), gizarte politikak kudeatzen dituzten EAEko erakundeen artean irizpideak bateratzea helburu duen dekretuan, ez da ageri zuzeneko zein zeharkako elikagai laguntzei buruzko irizpide zehatzik edo bateraturik.

.....  
<sup>8</sup>185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoari buruzkoa.

# ZER JATEN DUTE GAIZKI JATEN DUTENEKEAE-N?

3 irudia. Pertsona/familia batek eremu publikoan elikatze baliabideak erabiltzeko egiten duen ibilbidea.




Iturria: Geuk egina

## DIRULAGUNTZAK:

Orain, oinarrizko beharrak eta/edo elikadura asetzeko EAEn eska daitezkeen dirulaguntza nagusiak<sup>9</sup> aztertuko ditugu, baita horien ezaugarriak eta betekizun nagusiak ere.

4 irudia. Laguntza ekonomiko motak



Iturria: Geuk egina

<sup>9</sup> Badira beste laguntza batzuk ere, hala nola maniobra funtsak, sostengurako laguntzak, etab.

**a. DBE edo diru sarrerak bermatzeko errenta (RGI bezala ezagutzen dena):**

- Azalpena: Baliabide nahikorik ez duten pertsonen eta familien oinarrizko beharrei erantzuteko hileko prestazio ekonomikoa da, eta lan irteera bat aurkitzen laguntzen die.
- Erregulazioa eta aurrekontua: EAEko DBE EAEko Aurrekontu Orokorren bidez finantzatzen da, foru aldundien ekarpenekin eta Espainiako estatuaren transferentziekin.
- Kudeaketa: Eusko Jaurlaritzako Enplegu Zerbitzua (Lanbide)
- Sarbidea: Lanbide.
- Baldintzak: Lege berria 2023ko apirilean jarri zen indarrean, eta, harekin batera, hainbat aldaketa izan dira, besteak beste, zenbatekoak eta sartze-ko baldintzak.
  - 18 urtetik gorakoa izatea eta BU (bizikidetza unitatea) modu independentean ezarria izatea Euskal Herrian, urtebetez jarraian.
  - Diru sarrerak bermatzeko errenta eskuratze-ko ezarritako diru sarreren mugak ez gainditzea. Muga horiek bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera aldatzen dira.
  - Ezarritako mugak gainditzen dituen ondasunik edo ondarrerik ez izatea.
  - Ezarritako mugetatik gorako diru sarrerak dituen bizikidetza unitate bateko kide ez izatea.

- Nahitaez eskatu behar da, Ondasun Higiezi-  
nen gaineko Zerga eskatu aurretik.
- Kopuruak: Ikusi hemen:
- Arazoak:
  - Batzuetan sartzeko zailtasuna, EAEko errolda salerosketaren ondorioz, erroldatzerik ez dagoelako. Errollda salerosketaz ari garenean esan nahi dena da egoera larrienean dauden pertsonen, kasu askotan, bizi diren etxeko jabeen aldetik erroldatzea eragozteko estort-sioa jasaten dutela, edo, beste batzuetan, erroldatzea errazteko ordainketak eskatzen zaizkiela.

#### **b. Bizitzeko Gutxieneko Diru sarrera (IMV):**

- Azalpena: Bizitzeko Gutxieneko Diru sarrera bakarrik bizi diren edo bizikidetzat unitate batean integratuta dauden eta oinarritzko beharrak betetzeko oinarritzko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen pobrezia arriskua eta gizarte bazterkeria prebenitzera bideratutako prestazioa da.
- Erregulazioa eta aurrekontua: Estatukoa, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketarekin. Diru sarrerak bermatzeko errentaren (RGI) osagarri da EAEn, diru sarrerak bermatzeko errentaren baldintzak betetzen badituzu, laguntzen helburua berdina baita.
- Kudeaketa: EAEn Lanbide (euskal enplegu zerbitzua). Estatu mailan Gizarte Segurantza.
- Sartzeko baldintzak:

- Errentak: errentarik edo ondarrerik ez izatea BUko (Bizikidetzeta Unitatea) kide kopuruaren bidez ezartzen diren baremoen arabera
- NAN edo AIZ (NIE) ez duten pertsonak ezin dira IMVra sartu
- Ez eta Estatuan urtebete baino gutxiago daramatenak ere (3 salbuespenekin)
- Sarbidea: EAEn Lanbideren bidez (presentziala). Kanpoan, Gizarte Segurantzaren bidez.
- Kopuruak: *II. eranskinean* ikusi
- Arazoak:
  - Ukapenak
  - Kobratutako zenbatekoak itzultzeko eskaera, handik denborara.
  - Kopuru eskasa: Ez da nahikoa izaten etxe ahulenen oinarritzko beharrak asetzeko.
  - Zenbait talde baztertzea: 18 eta 21 urte bitarteko gazteak; egoera irregularrean dauden pertsona migratzaileak.
  - Izapideak motelegi egitea: Urtebete baino gehiagoko itxaronaldia. Bereziki, DBErako (RGI) baldintzak betetzen ez dituztenei eragiten die, DBEren guztizko zenbatekoa kobratzen ez bada IMV ebatzi arte.
  - Aurreko urteko errentan oinarritua, beraz, ez du oraingo egoera kontuan hartzen.
  - Eskaera konplexua eta burokratikoa. Horrek zaildu egin dezake laguntza benetan behar duten pertsonen sarbidea.

### **c. Egoera oso ahulean dauden pertsonen eta fami- lien oinarrizko beharretarako laguntzak:**

- Azalpena: Laguntza hauek oinarrizko beharri-  
nak (elikadura egokia, higiene pertsonaleko pro-  
duktuak...) lehenbailehen betetzeko dira. Bi bide  
osagarriren bidez banatuko dira.
  - supermerkatuetarako txanpon txartelak
  - aplikazio mugikorra, zeinaren bidez hartzai-  
leek merkeago eskuratu ahal izango baitituz-  
te egunean zehar saltokiek saldu ez dituzten  
produktuak.
- Erregulazioa eta aurrekontua: Eusko Jaurlarit-  
za. Euskal Autonomia Erkidegoan egoera ahu-  
lanean dauden pertsonen laguntzeko 2023 pro-  
grama. Aurrekontua: Erakundearen beraren  
aurrekontu baliabideak; energia eta finantza  
enpresen errekarguaren ondoriozko ezohiko  
funtsak; eta RePOWER EU ekimenaren Euro-  
pako funtsak, energia neurriak finantzatzeko.
- Kudeaketa: Gurutze Gorria.
- Sarbidea: Norbera joanda (Gurutze Gorria) edo  
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez.
- Baldintzak: Gutxienez urtebetez EAEn erroldatu-  
ta egotea eta baremoaren eta BUko kideen ara-  
berako gutxienerako errentarik ez izatea.
- Kopuruak: Entregatutako zenbatekoak 150 €-tik  
300 €-ra bitartekoak izango dira, eta urtean ge-  
hienez 3 entrega egingo dira.
- Arazoak:

- Funts publikoak izan arren, entitate pribatu batek kudeatzen du laguntza.
- Ez du saltoki txikirik aintzat hartzen, tamaina handiko supermerkatuekin hitzartu da.

## **d. Gizarteratzeko laguntza bereziak<sup>10</sup>:**

- Definizioa: Udalerrri handietako udalek gizarteratzeko ematen dituzten laguntzak dira. Kasu batzuetan, diruzkoak ez diren txartelen bidez osagarriak dira, gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu baten ondorioz sortutako oinarritzko premiei eta gastuei lotutako gastuak estaltzeko. Subsidiarioa da, eta baliabide eta prestazio ekonomiko batzuen osagarria.
- Erregulazioa eta aurrekontua: Udalak. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Diagnostiko Sozialeko Tresnari buruzkoa. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa. 207/2011 Foru Dekretua, abenduaren 13koa, Gizarteratzeko Laguntza Berezia arautzen duen martxoaren 22ko 60/2011 Dekretua aldatzen duena. (BAO, 241. zk., 2011/12/21). Aurrekontuko zuzkiduraren menpe.
- Sarbidea: Udalaren gizarte zerbitzuak
- Baldintzak:

.....  
<sup>10</sup> Udalaren arabera, bere izena alda dezake: gizarteratzeko laguntza berezia; oinarritzko beharretarako laguntza, etab.

- Diru sarrerek bermatzeko errenta jasotzeko eskubiderik ez izatea, 18 eta 23 urte bitarteko pertsonak izan ezik.
- Eskabidea aurkeztu baino gutxienez 12 hilabete lehenago bizikidetza unitate bat osatzea. Salbuespena: Adin nagusitasunera iristean haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko dispositiboetan laguntza jasotzeari uzten dioten pertsonak.
- Udalerrian erroldaturik egotea eta bertan bizitzea gutxienez 30 hilabeteko antzintasunarekin.
- Hitzartutako errenta eta ondare mugak betetzea.
- Haren hileko diru sarrerek bizikidetza unitate osoaren (BU) hileko laguntzaren zenbatekoa baino txikiagoak izatea.
- Dagokion Oinarrizko Gizarte Langilearekin banakako arreta/esku-hartze plana sinatua izatea, eta plan hori osorik betetzen aritzea.
- Betebeharrak ez betetzeagatik edo arau haustek egiteagatik DBE edo beste prestazioen bat iraungita edo etenda ez izatea.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egotea.
- Beharrizan egoeran egotea
- Kopuruak: Dirua edo diruaz bestelako txartelak izan daitezke supermerkatuetarako. Oinarrizko elikadura eta higiene ondasunak. Kopuru aldakorra familia unitateko kide kopuruaren arabera.

- Arazoak:
  - Tramitazioa motela da, nahiz eta urgentziazkoak diren oinarrizko beharren laguntza izan.
  - Aurrekontuari lotuak.
  - Txartelaren modalitatean, erosten diren edo ez diren produktuak kontrolatzen dira, kalitate handiko produktuak baztertu egiten dira, eta batez ere saltoki handietan erabil daiteke, eta oso gutxitan saltoki txikietan.

## **e. 200 bonoa:**

- Azalpena: Ondorio kaltegarriei aurre egiteko neurria, Ukrainako gatazkaren ondorioz sortutako prezioetan, gizarte izaerako beste prestazio batzuek estaltzen ez dituzten egoera ekonomikoetan.
- Erregulazioa eta aurrekontua: Estatukoa
- Kudeaketa: EAEn Foru Ogasunak
- Sarbidea: Eskaera Foru Ogasunetan, baliabide elektronikoen bidez edo Zuzenean bidez.
- Baldintzak:
  - 2022 errentan urteko 27 mila eurotik beherako diru sarrerak eta urteko 75 mila eurotik beherako ondarea aitortu duten pertsonak/familiak.
  - Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren berdinak edo antzekoak diren IMV eta kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonak/familiak izan ezik.

- Ez dira onuradunak izanen NANik edo Al-Zrik ez dutenak, gutxienez urtebeteko antzinasunarekin.
- Kopuruak: 200 €/ Urtean behin
- Arazoak:
  - Laguntzatik kanpo geratzen dira kotizaziopeko pentsio apalenak, alargun pentsioak izan ohi direnak eta gehienbat emakumeak kobratzen dituztenak.
  - Kanpo geratzen dira IMVa jasotzen duten pertsonak/familiak, nahiz eta diru sarrerek bermatzeko errenta (RGI) jasotzen dutenek kobratu ahal duten. Diru sarrerek bermatzeko errentaren zenbatekoa IMV baino handiagoa da.

#### **f. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako jantokiko beka:**

- Azalpena: Kontzeptu horrek (“jantokiak”) eragindako gastuetan laguntzeko da, Haur Hezkuntzako (2 urtetik hasita), Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen familiei.
- Erregulazioa eta aurrekontua: Eusko Jaurlaritza.
- Sarbidea: Eusko Jaurlaritzaren webgunean aurkez daiteke, Internet bidez edo eskaera betez, eta ikastetxean aurkeztuz.
- Baldintzak:

- Euskal Herriko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea.
- Jantokira gutxienez 20 egunez joatea.
- Familiaren errentak ez du gainditu behar Eusko Jaurlaritzak beka horietarako ezarritako 2. atalasea.
- Kopuruak: Gehienez ere 818,80 €. (Hala ere, ikaslea jantokira joaten den egunen arabera). 178 eskola egun, eguneko gehienezko prezioarekin biderkatuta (4,60 €).
- Arazoak:
  - Batzuetan, jantokiaren kostua osagaiaren gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izan daiteke, hau da, 818,80 euro. Zenbateko hori kalkulatzeko, jangelako egun kopurua (178 egun gehienez) bider 4,60 euro egiten da eguneko, eta familiak aparteko kostu hori ordaindu egin beharko luke.
  - Kasu batzuetan, familiek zenbatekoa aurreratu behar dute. Gero, beka ematen bada, itzuli egiten da.

EAEko elikagai pobreziaren arazoari erakunde publiko eta pribatuetatik heltzeko moduak desberdinak dira, eta “baldintzak” atalean ikusi dugun bezala, laguntzak eskuratzeko hainbat baldintza daude: lege egoera, diru sarrerak, erroldatze denbora, etab. Lanbideren prestazioaren kasuan, DSBEak, esaterako (RGI), 51.514 titular izan ziren 2023ko martxoan, eta Bizitzeko Gutxieneko Diru sarrerarenak (IMV) 20.184.

12 taula. LANBIDEk eskaintzen dituen inklusio-prestazioen estalduraren laburpena


| TOTAL CAE | Titulares           | IMV             |        | API    |                 | RGI    |        | PCV    |        |        |        |
|-----------|---------------------|-----------------|--------|--------|-----------------|--------|--------|--------|--------|--------|--------|
|           |                     | Modalidad       | mar-23 | feb-23 | Modalidad       | mar-23 | feb-23 | mar-23 | feb-23 | mar-23 | feb-23 |
|           |                     | Sin RGI         | 10.059 | 10.055 | Con IMV         | 7.789  | 7.888  | 51.514 | 50.107 | 24.573 | 23.713 |
|           |                     | Con RGI         | 10.125 | 9.846  | Sin IMV         | 799    | 701    |        |        |        |        |
|           |                     | Total titulares | 20.184 | 19.901 | Total titulares | 8.588  | 8.589  |        |        |        |        |
|           | Total Beneficiarios |                 | 42.963 | 42.048 |                 |        |        | 86.470 | 83.639 |        |        |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren euskadi.eus (2023)

## GAUZAZKO LAGUNTZAK

Epigrafe honetan, produktua zuzenean ematen duten baliabideak ditugu, batzuetan sukaldatuta (“*produktu beroa*” deituko diogu) eta besteetan prestatu gabe (“*produktu hotza*”). Ondoren, erantzunak nolakoak diren aztertuko dugu, baita horiek eskuratzeko baldintzak ere.

5 irudia. Gauzazko laguntza motak



Iturria: Geuk egina

## PRODUKTU HOTZEKO BALIABIDEAK:

### a. Elikagaien banaketa

Baliabide hori da pertsonen bizitzan eta dokumentu honetan zentralitate handiena duenetako bat. Haren funtzionamenduari buruzko informazio gutxi dagoelako erabaki da, hain zuzen ere, atal hau argitzea. Oinarrizko beharrak bermatzera bideratuta dagoenez, arlo publikotik kudeatu beharko litzateke, baina, praktikan,

ikusten dugu ez duela bermatzen pertsonak elikadura eta nutrizio egokia izatea, eta, gainera, erakunde pribatuek kudeatzen dute, dohaintzak egiteko borondatearen eta boluntarioen gaitasunen mende.

Azalpena: Elikagaiak banatzean, gizartean bazterturik dauden edo baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsona eta familia unitateei produktuak ematen zaizkie.

Eskumena: Estatukoa 11 (2023ra arte). Kudeaketa pribatua (langileak: boluntarioak, hirugarren sektoreko langileak). Elikagaiak banatzeko baimena duten bi erakunde handi daude: Gurutze Gorria (GG) eta Elikagaien Bankua (EB).

Aurrekontua: Funts publikoak eta pribatuak

Sarbidea: Gizarte Langilea (GL) duen hirugarren sektoreko entitatearen eratorpenez (adibidez: Gurutze Gorria, Caritas, etab.) edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez. EBek 3 hilabeteko epea ematen dute janaria banatzeko, GLrekin hitzordua lortu arte.

Lehen deskribatu dugun bezala, kudeaketaren ardura-dunak Banaketarako Erakunde Elkartuetako (OAD) biltegitratze eta banaketa zentroak izan arren (Espainiako estatuan EB eta Gurutze Gorria izan direnak); banaketa egiten dutenak baimendutako Errepartoko Erakunde Elkartuak dira (OAR).

Baldintzak:

- Kasu gehienetan, errolda edo egoitza frogagarria.

.....  
<sup>11</sup> Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko FEGAREN Laguntza Unitateak jakinarazi digunez, FEAD 2023 programa izango da FEAD 2014-2020 Programa Eragileko azkena, eta hurrengo programazio-aldirako trantsizio gisa balioko du, non pertsona behartsuenentzako laguntza Europako Gizarte Funtsean + 2021-2027.El AFEGA Azpizuzendaritza Nagusian sartuta egongo baita.

- Baldintza ekonomikoak (diru sarrera urriak edo diru sarrerarik ez).

Kantitateak eta elikagai mota: Banaketa entitatearen, bizi den eremuaren eta bizikidetzaren unitate eskatzaileko pertsona kopuruaren arabera. Baina minimo bat dago. Banatzen diren elikagaiak:

- Galkorrak ez diren elikagaiak banatzen dira nagusiki: arroza, pasta, lekaleak, olioak, arrain eta haragi kontserbak, esne hautsa, zerealak, irina, azukrea, kafea, tea, besteak beste.
- Elikagai freskoak ere banatu ditzake, hala nola frutak, barazkiak eta esnekiak, baina ez da berdintzailea, hau da, pertsona guztiek ezin dituzte jaso; izan ere, gaur egun, haien eskuragarritasunaren eta biltegitratzeko gaitasunaren arabera da.
- Elkarrizketetan esan digutenez, hileko otarra 50 € ingurukoa da.

### Arazoak:


- Banatzen den janari mota. Produktu lehorra, hidratoak, azukreak, trans gantzak, fresko gutxi: ez da nutrizio irizpiderik erabiltzen.
- Janari mota ez da berdina pertsona guztientzat, banaketa unitateen instalazio motaren arabera izaten da. Batzuetan, banaketa unitateen irizpidearen arabera izaten da.
- Ez du eskubide baten berme gisa erantzuten, boluntariorik oinarritutako sarea baita.

- Askotan beharrezkoa izaten da erroldan sartzea.
- Produktuak hautatzeko aukerarik ez dago.
- Etekin handia banatzaile handientzat.

Funtzionamendua:

Eskema honetan, produktuak biltegietara sartzen denean atera eta entregatu arte egiten duen ibilbidea laburbiltzen da:

6 irudia. Produktuen sarrera eta irteera zikloa



Iturria: Geuk egina

## PRESTATUTAKO PRODUKTUEN BANAKETA BALIABIDEAK:

### 1) Gizarte jantoki publikoak:

Azalpena: Etxerik gabe, edo etxea izan baina sukaldean aritzeko aukerarik gabe, baztertuta dauden pertsonen oinarrizko elikadura beharrak asetzeko arreta zerbitzua.

Erregulazioa eta aurrekontua:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak arautzen du.
- Aurrekontua udaletatik atera eta Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera antolatzen da.

Kudeaketa: Kudeaketa Udalarena da, zorroaren dekretuaren arabera. Gehienetan azpikontrataturako entitate eta enpresekin funtzionatzen dute. Kasu horietan, Udalak aurrekontu bat ezartzen du, erakunde emakidadunekin egingo dituen kontzertazio/lizitazioen bidez.

Sarbidea: Udaleko gizarte zerbitzuek eta/edo gizarte larrialdietako udal zerbitzuak kontuan hartu behar dute planteaturako eskaera. Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuaren bidez (GLUZ), edo Gizarte Zerbitzuetako teknikariak GLUZ ez duten hiri eta guneeetan.

Baldintzak:

- Laguntza jasotzeko, laguntza jasotzen duen pertsonaren zaugarritasun eta/edo premia egoeraren balorazio profesionala egin behar da.
- Kanean edo etxerik gabe dauden pertsonak, udalerrian errotuta edo errolatuta daudela egiaztatzen dutenak.

## Arazoak:

- Ezin dira adingabeak sartu.
- Kalitate baxua: Batzuetan catering-eko janaria banatzen da (adibidez: Peñascal Fundazioa, Gureak, etab. ). Catering horiek eskaintzen dituzten menuen arteko merkeena izan ohi da.
- Plazak mugatuak eta eskasak dira. Adibidez: Gasteizko jantokiak 50 plaza ditu.
- Udalek azpikontratutako zerbitzuak direnak beheranzko prezioaren arabera lizitatzen dira, ez baita Zorroaren Dekretuan araututako zerbitzua. Jarduketa horien ondorioz, azpikontratazio horiek kalitate txikiko catering zerbitzuak azpikontratatu dituzte edo dohaintzak eta boluntariora erabiltzen dute zerbitzua garatzeko.

## **2) Funts publikoekin hornitzen diren alojamendu baliabideak, janaria ere ematen dutenak:**

Azalpena: Alojamendua emateko baliabideak, ostatu hartzeko, mantenurako eta higienarako oinarritzko beharrak asetzeko; (adibidez: Gizarte Harrerarako Udal Zentroa, tutoretzapeko etxebizitzak, etab).

Erregulazioa eta aurrekontua: Udalekoa. Zorroaren dekretua eta Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak arautzen du.
- Aurrekontua udaletatik atera eta Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera antolatzen da.

Sarbidea: Udaleko Gizarte Zerbitzuak edo Esku-hartze Komunitarioko Gizarte Lana.

Baldintzak:

- Adinez nagusia izatea
- Bizilekurik ez izatea edo bizigarritasun baldintzarik ez duen batean egotea.

Kopuruak: Gosaria, bazkaria eta afaria, toki batzuetan afaria eta gosaria, jantoki sozialarekin osatua.

Arazoak:

- Sarbide baldintza aldakorrak, udalerrriaren arabera
- Egonaldi epeak aldatu egiten dira, herriaren eta zentro motaren arabera. Zorroaren Dekretuaren arabera, gehienez ere 5 eguneko egonaldia egin ahal izango da, eta 2 egun gehiago luzatu, dago-kion Gizarte Laneko Unitatearen balorazioaren arabera. Hala ere, gizarteratze zentroetan egonaldia luzatu egin daiteke, gizarteratze ibilbide bat egiteko konpromisoarekin eta sinadurarekin, eta horrek egonaldi laburreko plazak mugatu ohi ditu.
- Edukiera mugatua (neguan handitu egiten da hotz garaiko mekanismoak aktibatzen direnean).
- Alojamentu baliabide batzuetan ez dago sukaldetik, ez dira otorduak sartzen, etab. Horregatik, toki batzuetan jantoki sozialera sartzen dira, alojamentu baliabide batean egon arren. Adin txikikoak daudenean, batzuetan tuperra egiten zaie jantokietan, eramateko.

### **3) Espetxeak:**

Azalpena: Kartzelak edo askatasunik gabeko zentroak; bertan presoek janaria prestatu edo zerbitzatzen dutenean.

Erregulazioa eta aurrekontua: Duela gutxi, espetxeen gaineko eskumena Eusko Jaurlaritzara pasatu da, baina oraindik egiteke daude aurrekontuko zuzkidurak eta arauen garapena.

Arazoak:

- Martutenen izan ezik, euskal kartzelek catering ereduari jarraitzen diote, eta presoek iritziaren arabera egiaztatu ahal izan dugu Martuteneko janariari buruz egiten den balorazioa altua dela, catering-eko janaria ematen duten espetxe berrien aldean. Martutenek sukaldea eta sukaldari kontratatu bat ditu, eta horri gehitu behar zaizkio askatasunik ez duten pertsonak, janaria prestatzen laguntzen dutenak. Kasu honetan, presoek uste dute janaria ugaria eta aberatsa dela.
- Martutenen egiten den produktuaren jatorria ez dakigu hurbilekoa den, baina gutxienez produktu freskoa eta askotarikoa da barazkietan, haragietan eta arrainetan. Catering janaria ematen duten gainerako espetxeetan, berriz, kalitate eta aniztasun gutxiagokoa da.

### **4) Diruz lagundutako hiri udalekuak:**

Hiri udalekuak deitzen diegu oporraldian sortzen diren hezkuntza guneei. Dirulaguntza jasotzen dutenak publikoak eta/edo administrazio publikoek bultzatutakoak

dira (gehienetan, udalek). Ere mu horietan, eskoletan bezala, parte-hartzaileei janaria ematen zaie. Kolektibo sozial batzuen aldarrikapena da diru sarrera gutxi duten familien haurrei lehentasuna ematea hiriko kolonietan sartzeko, oporraldietan eguneko otorduetako bat bete dezaten.

### **BESTELAKO BALIABIDE PRIBATUAK:**

Deskribatutako baliabideez eta laguntzez gain, beste baliabide pribatu batzuk ere badaude. Baliabide horiek erlijio erakundeek, auzotarrek, elkarte kulturelek, auto-gestionatuek eta abarrek kudeatzen dituzte. Batzuetan, funts publikoak jaso ditzakete zerbitzuaren zati bat finantzatzeko. Horien artean daude jantoki sozialak, alojamendu baliabideak, oinarrizko beharrak betetzeko dirulaguntzak, produktu prestatuak eta produktu hotza.

Atal hau oso dinamikoa da azken urteotan. Covid19ren pandemian, krisi egoeran sartu zen populazioa handitzeak eta eskura zeuden baliabideekin erantzuteko ezintasunak beste espazio batzuk sortzea eragin zuen, sortzen ari ziren beharrak asetzeko.

Gasteizko Judimendi eta Bilboko Atxuri auzoetan elikadura eskuratzeko erantzunak antolatu ziren eta horietako asko oinarri komunitario batetik egin ziren. Ekimen horien artean, Komunitateak Sostengatutako Elikadura ekimenak ditugu. Ekimen horietan, baserritarrak eta baserritarrak ez diren pertsonak antolatzen dira taldeko pertsona guztiek elikadura osasungarria eskuratzeko aukera izan dezaten. Auzoetako sukalde komunitarioak eratu dira, esate baterako, elkarte gastronomikoetako

sukaldeak aprobetxatuz, modu kolektiboan janaria prestatu eta tokiko produktua eta produktu agroekologikoa eskuratzeko. Ekimen horietako batzuk zehatzago deskribatuko ditugu txosten honen hurrengo atalean.

## Produktuen ibilbidea

Aurreko orrialdeetan, elikadurari buruzko berariazko laguntzak jasotzeko pertsonak egiten dituzten ibilbideak berrikusi ditugu. Atal honetan, produktuen ibilbideak deskribatuko ditugu, hau da, produktuak behar dituzte-nengana iristeko banaketa bideak.

Lehenago ere aipatu ditugu produktuak hainbat erakundetara iristeko bide batzuk. Ondoren, xeheago deskribatuko ditugu:

### 1. Produktuen sarrera:

13 taula. Produktuak eta dirua biltegitratze eta banaketa zentroetara sartzeko jatorria

| UE-FEAD<br>DIRULAGU<br>NTZA<br>DUTEN<br>PRODUKTUAK.<br>2023,<br>AZKEN<br>URTEA | BESTELAKO<br>ERAKUNDEENTZAKO<br>DIRULAGUNTZAK                                               |                                                                                                 | PRODUKZIO<br>-<br>DOHAINTZ<br>AK<br>(iraungitze<br>data hurbil,<br>estandarrak<br>betetzen<br>ez dituen<br>produktua,<br>etab.) | SUPERMER<br>KATUKO<br>DOHAINTZ<br>AK | PARTIKULARREN DIRU<br>DOHAINTZAK                            |                                                                   | "BILKETA<br>HANDIA"<br>KANPAINA |                 |
|--------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|---------------------------------|-----------------|
|                                                                                | FEGA<br>NEKAZARITZA<br>MINISTERIO<br>A<br>(PRODUKTU<br>FRESKOEN<br>LEVANTEKO<br>SOBERAKINA) | BESTE<br>ERAKUNDE<br>BATZUK<br>(UDALAK,<br>ALDUNDIAK...)<br><br>(Ingurumena,<br>lokalak, etab.) |                                                                                                                                 |                                      | ZUZENAK<br>(bazkideak,<br>dohaintza<br>puntualak,<br>etab.) | SUPER<br>MERKA<br>TUETAKO<br>KUTXAN<br>("zentimo<br>solidarioak") | PRODUK<br>TUA                   | DIRUA<br>KUTXAN |
| Banaketarako Erakunde Elkartuak                                                |                                                                                             |                                                                                                 |                                                                                                                                 |                                      |                                                             |                                                                   |                                 |                 |
| Errepartoko Erakunde Elkartuak (OAR) eta Kontsumo Erakundeak                   |                                                                                             |                                                                                                 |                                                                                                                                 |                                      |                                                             |                                                                   |                                 |                 |

Iturria: Geuk egina

**1.1 Produktu publikoak hornitzeko iturriak:**FEAD-Behartsuei Laguntzeko Europako Funtsa:

Estatu mailako programa bat da, Europako Laguntza Funtsak (% 85) eta Estatuko Administrazio Orokorrek (% 15) elkarrekin finantzatua. Programak barnean hartzen ditu merkatuan erositako elikagaiak erostea eta horiek biltegitratze eta banaketa zentroetara (Banaketarako Erakunde Elkartuak) eramatea. Europako Batasuneko funts ekonomikoekin eskuratutako elikagaiak hainbat fasetan banatzen ditu programa honek. 2023ko urrian, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, FEGA-ren bidez, "Pertsona behartsuenei elikagaiak laguntzeko 2023 Programa"-ren bigarren eta azken fasea hasi zuen. Programa horretan 36 milioi kilo elikagai inguru banatzea programatu zen. Kopuru hori 2023 programan banatu beharreko kopuru osoaren % 71 da, beste % 29 apirilean entregatu baitzen.

OPFH programa: Produktu freskoa da (frutak eta barazkiak), eta Fruta eta Barazkien Ekoizleen Erakundeari erosten zaio merkatutik kentzeko, prezioak egonkortzeko, eta Elikagaien Bankuei ematen zaie. Produktu hau freskoa denez, azkar banatu behar da. FEGAk kudeatzen du (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa), Eusko Jaurlaritzaren bidez.

**1.2 Produktu pribatuen hornidura iturriak:**

Bilketa handia: Produktu iraunkorrak jasotzeko kanpaina da, egun jakin batzuetan egiten dena, supermerkatuetan. Urtero egiten da azaroa eta Abendua bitartean. Kanpaina honetan, elikagai bankuetako boluntarioek produktuak erostera eta kutxetan edo Interneten bidez dirua ematera animatzen dituzte bezeroak.

Supermerkatuetan biltzea: Supermerkatu batzuetan (Eroski, Carrefour...) produktu ez-galkorren bilketa egi-ten da “Bilketa Handia” ez den egunetan.

Produktuak ikastetxeetan, enpresetan, elkarteetan eta abarretan biltzeko kanpaina. : Produktu iraunkorren bilketak edo bilketa kanpaina txikiak dira, goian aipatu- tuko espazioetan antolatuak, eta entitate horiek be- raiek antolatzen dute bilketa eta produktua elikagaien bankuetara helarazten dute.

Soberakinak berreskuratzea: Nekazaritzako elikagaien enpresek, supermerkatuetako soberakinek eta partiku- larrek emandakoa. Elikagai hauek ez dira ematen nu- trizio irizpideen arabera; enpresek eta supermerkatuek soberakinik ez botatzea edo kudeatzea dute helburu. “Mermak” izeneko produktuak dira; edo kontsumitzeko azken data gertu dute, edo ontzia hondatu egin da, bai- na kontsumitzeko egoera onean daudela jotzen da. Pro- duktu emate mota horri “azken minutukoa” esaten zaio, eta elikagai bankuetako boluntarioak joaten dira super- merkatu eta dendetara produktua jasotzera, eta haiek garbitzen eta hautatzen dute. Hona hemen bildutako produktuak:

- Produkzio soberakinak (betiere kontsumo al- dian badaude).
- Sasoiko produktuak (denboralditik kanpo, baina iraungi gabe).
- Amaitutako merkataritza kanpainetako sobe- rako produktuak.
- Etiketa edo bilgarri akastuna duten produktuak.
- Amaitutako sustapen edo eskaintza berezietakoak.

- Irizpide estetikoak betetzen ez dituen produktua (adibidez: moldeko ogia, ohikoa ez den xigortze tonuarekin).
- Bezeroek itzultitako partidak.
- Soberakina ez den produktua.
- Berehala kontsumitu beharreko catering soberakinak.
- Eskabideen soberakinak, zerbitzatu gabeak.

Entitateek erosia: Produktoreei erositako produktu freskoa (arrautzak, olio, oilaskoa, etab.) edo supermerkatuei erosia, produktua eman ordez dirua emateko aukera duten bilketa kanpainetatik datorren diruarekin. Hauek dira prezioen igoeraren ondorioz gehien murrizten ari diren elikagaiak.

## **2. Elikagaiak biltegitratzea:**

Goian azaldutako iturrietatik Banaketarako Erakunde Elkartuen ontzietara iritsi diren produktuak elikagaia ateratzeko beharraren eta helmugaren arabera biltegitratzen dira. Biltegi horiek, batzuetan, pabilioi publikoak izaten dira, errenta txikikoak edo diruz lagundutako alokairukoak (adibidez, Gasteizen, bat Foru Aldundiak lagatakoa da eta bestea errenta baxukoa). Hauek dira biltegitratzeko moduak, produktuaren iraungitze dataren eta irteera beharraren arabera:

- Irteera azkarra (produktu freskoa bada edo aurrez prestatuta badago: "azken minutua")
- Ertaina (iraungitze data hurbil duten elikagai galkorrak)

- Iraunkorrek edo biltegitratuta denbora gehiago iraun dezaketenak.

### **3. Elikagaiak biltegitatik atera eta banaketa unitateetara banatzea:**

Produktu motaren arabera, irteera bat edo beste ematen zaio. Banaketa Erakunde Elkartuetatik (gaztelaniaz OAD) Errepartorako Erakunde Elkartuetara (gaztelaniaz OAR) egiten da. Azken horiek, esan bezala, boluntarioek osatzen dituzte, eta elkarte erlijiosoak, kulturalak, sozialak, udalak eta abar dira. Hiru irteera mota daude:

- Irteera azkarra (produktu freskoa edo aurrez prestatua bada: “azken minutua”. Normalean, egun berean banatzen dira gizarte jantoki gisa baimendutako entitateetara.
- Ertaina (iraungitze data hurbil duten elikagai galkorrak).
- Iraunkorrek edo luzarago biltegitratu daitezkeenak: Hainbat produktuz osatutako sortetan antolatzen dira, “oinarrizko saski” deritzenetan, eta OARei bialdu edo ematen zaizkie.

### **4. Elikagaiak ematea:**

Azken fasean, produktua banaketa edo kontsumo erakundeen bidez eskatzen duen pertsonari iristen zaio.

- Kontsumo entitateak: Kontsumo erakundeak dira OADek emandako elikagaiak manipulatzen eta eraldatzen dituztenak, janari prestatua emateko. Biltegitatik 24 ordu baino gutxiagoan irten behar duten produktu fresko edo prozesatuak ematen dira (adibidez: eskoletako jangeletako soberakinak); jantokia duten eta

irteera azkarra emango dioten entitateei banatzen zaizkie.

- Banaketa entitateak: Produktua jasotzen dute eta zuzenean banatzen dute pertsonen eta familien artean. Gizarte Zerbitzuetatik edo gizarte laneko unitatetik bideratu ondoren, bere auzoan hurbilen dagoen banaketa gunera jakinarazten da. Banaketa erakundeek berek deitzen dituzte pertsonak/familiak "oinarrizko saski" horiek jasotzeko. Hilean behin izaten da, baina banaketa erakunde bakoitzaren baliabideen arabera. Normalean, zerbitzu hori ez da iristen udalerrri txikietara, eta pertsonak hirigune handienetara joan behar izaten dute.

## **Ibilbideetan laster gertatuko diren aldaketa batzuk**

### **1. FEADaren amaiera eta haren jarduera FSE+ berrian sartzea**

Aurreikusita zegoen Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioak 2024tik aurrera Europar Batasunak finantzaturako produktuak erosteko laguntza sistema aldatzea eta haren kudeaketa autonomia erkidegoen eskumena izatea. Azken formula oraindik negoziatzen ari dira, baina, oraingoz, orain arte bidaltzen zituzten produktuen ordez, Europako laguntza txanpon txartelen bidez administratuko da, eta txartel horiek zuzenean erabili ahal izango dira supermerkatuetan. Programaren urteko aurrekontua 565 milioi eurokoa izango da: % 10 autonomia erkidegoek finantzatua eta %90

Europako Batasunak. Dirudienez, gutxienez adingabe bat ardurapean duten familiek bakarrik jaso ahal izango dute laguntza hau. Janariak eta oinarrizko higieneko gaiak erosi ahalko dira. Laguntzaren erreferentzia baliola 100 eurokoa izanen da hilean. Zenbateko horri %30 gehituko zaio kide bakoitzeko: 130 euro hilean guraso bakarreko familientzat, eta 220 euro hilean, gehienez, bost kide edo gehiagoko familientzat.

FEAD-en zailtasunak eta gabeziak:

- Seme-alabak dituzten familientzako da bakarrik. Horrek egun laguntza jasotzen duten pertsona asko baztertu egingo ditu.
- Orain arte, FEGAk janariak esleitzen zituenean, supermerkatuetan erosten dena baino merkeagoa zen erosketa prezioa. Orain, txartelen onuradun diren familiek gehiago ordainduko dute produktuengatik, eta supermerkatuek izango dituzte irabaziak.
- Supermerkatuek etekina aterako dute, saltoki txikien aldean.
- Programa berriz ere kanpora aterako da, eta autonomia erkidegoek erabaki beharko dute ea Gurutze Gorria eta Elikagaien Bankuekin hitzartuko duten ala ez. Oraingoz, badirudi Gurutze Gorria izango dela arduraduna, eta EBk lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko duela.

## **2. Ekonomato ereduak: Lagun Gunea (Bilbo)**

Gizartean bazterkeria egoeran dauden edo bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonen elikagaiak emateko banaketa zentroa da. 2018an sortu zen Bilbon,

BBK, Bizkaiko Gurutze Gorria eta Elikagai Bankuaren finantziario eta bultzadarekin. Gurutze Gorriak banaketa tradizionalaren eredu aldatzeko ideiarekin hasi zuen. Ohiko banaketa eredu hori auzoetan izaten da, lehen aipatutako erakunde eta elkarten bidez; aldiz, Lagun Gu-nea produktuen supermerkatu/banaketa gune izateko sortu zuten, eta, horrez gain, pertsonei arreta zerbitzuak ere eskaintzeko asmoz, besteak beste, lan-aholkularitza, aholkularitza ekonomikoa, laguntza eta abar.

Lehena Santutxu auzoan kokatu zen eta 2023an hasi ziren bertatik hiriaren erdia artatzen, Udalarekin batera, Europar Batasuneko gizarte funts berriak bideratzeko asmoz. Bigarrena Basurtun irekiko da, Bilbo osoa estaltzeko.

Auzo entitateetako banaketa ereduarekin alderatuta, hobekuntza bat dakar ekonomato ereduak, zenbait produkturen artean hautatzeko aukera ematen baitu. Prestakuntza eta orientazio zerbitzu gehigarria ere ematen du, eta kontuan hartzen du jendeak produktu mota bererako sarbide nahikoa izatea, hori instalazioen ezaugarrien mende egon beharrean, banaketa eredu klasikoan gertatzen zen bezala.

Desabantaila gisa, pertsonek joan-etorri handiak egin behar dituzte, guneak ez baitaude auzoetan banatuta. Gainera, funts publikoak entitate pribatuak erabiltzen ditu oraindik ere, eta, azkenik, pertsonaren hautatzeko gaitasuna mugatuta dago oraindik.

### **3. Aplikazio mugikorrak:**

Adibidez, Gurutze Gorriak “Encantado de comerte” aplikazioa jarri du martxan Araban. Euskadiko Gurutze

Gorria da, 2023ko urtarrilaren 1az geroztik, Eusko Jaur-laritzaren Hitzartu laguntzak koordinatzeko ardurua jaso duena. Programa hori berezko aurrekontu baliabideekin, energia eta finantza enpresei egindako errekar-guen diruetatik eta RePOWER EU ekimenaren Euro-pako funtsekin finantzatzen da.

Aplikazio mugikor bat da, eta, haren bidez, egunean zehar saltzea lortu ez duten saltokietako elikagaiak erosi ahal izango dituzte pertsonak. Merkealdia jatorrizko prezioaren %70ekoa izan daiteke.

Baliabide digitala denez, jende guztiak ezin du hura eskuratu (adinekoak, Interneteko konexio finkorik ez duten pertsonak, smartphone-ik ez dutenak...). Eta, gainera, berriro ere ikusten dena da pertsona pobreei "soberakinak" emateko ideia nabarmentzen dela.

Bestalde, hala ere, azpimarratzekoa da aplikazio mugikor horiek etorkizunean izan dezaketen potentziala, bereziki, saltoki txikien bidezko kontsumoa indartzeko, aukeratzeko aukera izateko, malgutasuna, prezio murriztuetarako sarbidea...

## C) NARRAZIOAK ETA EZTABAIDAK

### Eztabaidako elementu nagusiak

Atal honetan, ikerketan parte hartu duten eragileekin izandako elkarrizketa erdi-egituratuetan azalatu diren elementu edo gai nagusiak jaso ditugu.

Eztabaidagaiak deituko diegu elkarrizketetan errepikatu diren eztabaidei. Alderdi horiek ez dira eztabaida itxiak, eta hainbat esparrutatik ekarritako iritzi, argudio eta, azken batean, narrazioen aniztasuna ikusarazteko balio dute.

|                                       |                                         |            |                                               |
|---------------------------------------|-----------------------------------------|------------|-----------------------------------------------|
| #IKUSPEGI<br>OROKORRA                 | #DUINTASUNA/<br>#ESTIGMA                | #KARITATEA | #SEGURTASUN<br>EZA<br>ESKUBIDEAREN<br>BERMEAN |
| #ELIKAGAIEN<br>INDUSTRIAREN<br>ONURAK | #XAHUTZEA                               | #PREZIOAK  | #ERABAKITZEKO<br>ESKUBIDEA                    |
|                                       | #GIZARTE<br>ZERBITZUEN<br>PRIBATIZAZIOA | #NUTRIZIOA |                                               |

## #1. GAIA: ELIKADURA BERMEAREN ESTALDURAREN IKUSPEGI OROKORRA:

Elkarrizketetan egiaztatu dugunez, elikadura eta nutrizio eskubide egokia interpretatzeko modua funtsezkoa da hori nola bideratu ulertzeko:

*“Elikadurari erantzutea ez da ogitartekoa ematea” (C3).<sup>12</sup>*

Aipu honetan ulertzen da ez dela gauza bera urdailak betetzea eta elikadura eta nutrizio beharrak betetzea. Horrek lotura estua du laguntza hori ematen duen pertsona edo erakundearekin; ea ikuspegi kritikoa eta solidarioa edo asistentzialista duen, karitatezkoa den, etab. Bere ikuspegiaren arabera, baliabidea bideratzeko eta pertsonak ikusi eta tratatzeko modu desberdinak izango ditu.

*“Elikadurari erantzutea oso zaila da. Ustea da ez dagoela ideologiarik erakundeetan, baina egon, badaude” (C3).*

Badira pobrezia ez zatitzearen garrantzia nabarmentzen duten ahotsak:

*“Pobrezia benetan pobrezia da, osotasun bat; baina zatitu egin da pobrezia, eta jateko iristen ez bazaizu, zerbaitegatik da eta modu globalean heldu behar zaio horri, beste gauza batzuk huts egiten ari direlako” (D1).*

.....  
<sup>12</sup> Ikerketa taldeak informazio hori ematen duen pertsona informatzaileari esleitutako kodea. Hemendik aurrera, kode hauek gehituko ditugu elkarrizketen zatiak aipatzeko.

Elkarrizketatutako pertsona batzuek uste dute elikadura laguntzaren antolaketa eredu ez-nahikoa dela; moralitatea aipatzen dute, gaitasun logistikoa edo, are gehiago, politika publikoek bere gain hartu beharko lituzketen zereginen ordezkotza gisa (Yter, 2023) ari direla. Pobrezia ez zatitzeko ideiarri jarraituz, begirada eta erantzun integralen beharra azpimarratzen da, larrialdi zehatzak ebazteko haratago. Helburua, pertsona guztien bizi kalitate duina izan beharko litzatekeela eta ez eguneroko partxeak konpontzen aritzea.

*“Askotan, pobreei begira jartzen gara hor, baina arazo nagusia diru sarrerak eta etxebizitza izaten dira. Familia batzuek ezin dute jan, etxebizitzak beren enpleguko diru sarreren %70 jaten duelako” (C3).*

Oro har, ahots horiek uste dute, elikagai laguntzarik izanez gero, larrialdi baliabide bat izan beharko lukeela, ezustean gainera etorritako egoerei erantzuteko, eta ez denboran luzatutako zerbait.

Beste ahots batzuek, ereduaren urritasunarekin ados egon arren, sistemak huts egiten duela eta beste erakunde batzuetatik jardun behar dela azpimarratzen dute. Pobrezia egoeran dauden pertsonak azkar erantzun behar diete beren behar ugari. Larrialdietako erantzunak epe ertainekoak eta integralagoak diren prozesuekin orekatzeko modua da erronka.

*“Pertsona galdetzen badiezu, askok nahiago dute banaketa berehalakotasunagatik, txar-telek kudeaketa eta burokrazia eskatzen dute eta horrek denbora esan nahi du. Gosea duzunean, ez dago denborarik” (F4).*

*“Pobreziak eragina du familia nukleoen beste eremu askotan, eta, normalean, ez dute arazo ekonomiko bat bakarrik; beraz, egoera aldatu ahal izateko beste gauza batzuk landu behar dira, eta elikagaiak ematea lagungarri izan daiteke prozesu horretan, baina horrek ez du inolako zentzurik beste prozesu batzuetan laguntzen ez badiegu” (C2).*

Huts egindako sistemen aurrean, batzuek beste eredu batzuk zeintzuk izan litezkeen aztertzen dute, inor ez baitago gaur egungoarekin pozik:

*“Paradigma aldatzen aitzindari izango den eredu baterantz goaz; biltegiak, ilarak, eta alde aurretik ezarritako produktuak alde batera utzi eta jendeak hilaren amaierara iristeko laguntza eskatu behar izanda ere, laguntza hori elikagaien gaia baino pixka bat haratago joango den eredu” (C2).*

*“Funtzionamenduaz hitz egiten denean, inor ez dago oso pozik egiten denarekin; hau da, ez da elikagaia hornitzeko modu duina, baina batzuetan ez dago beste erremediorik”. (D1).*

Etorkizunari begira, elkarrizketatutako pertsona batzuek uste dute pobrezia murrizteko irtenbide bat administrazio publikoari oinarrizko errenta bat eskatzea eta banaketa sistema amaitzea izango litzatekeela.

## #2. GAIA: DUINTASUNA/ESTIGMA

Elkarrizketa guztietan agertzen den gaietako bat *estigma/duintasuna* binomioa da. Bereziki, elikagaiak banatzeko baliabideei dagokienez: Jaten dena erabakitze-ko eskubidea, banaketaren ilarak, ilaren ikusgarritasuna eta pertsonak seinalatzeko leku batean jartzea.

Esaldirik errepikatuena *“ilarak ez dira duinak”* izan da, eta ahots askok adierazi dute, beren ikuspuntutik; estigma okerragoa izan daitekeela zure herriko edo auzoko jendeak leku batera janari bila joaten ikusten zai-tuenean, pertsona baten elikadura eta munduan duen lekua lotzen direlako. Alde batetik, banaketa unitateek hitzorduak emateko joera dute *“gurdi-ilara”* horiek arintzeko, baina, hori era berean, batzuetan errealitatea ez ikusteko estrategia izan daitekeela ere esaten dute.

*“Ilarak ezkututzen baditugu, ez dugu arazoa ikusten, ezkutatu egiten dugu” (D1).*

Batzuek laguntza eredu berrien alde egiten dute, hala nola txartelak edo ekonomato eredia, non pertsonak “aukeratu” baitezake zer produktu eraman. Supermerkatuan erosteko txartela da, eta diskrezioa ziurtatzen du.

*“Aurreko elikagai banaketako eredia utzi eta eredu hori aldatzeak hobekuntza nabarmena dakar familientzat, eta duinagoa da” (C2).*

Azkenik, batzuek diote duinena pertsonak bere dirua izatea dela, eta horrekin nahi duena erostea, gainerako herritarrek egiten duten bezala. Aukera hori DBEk (RGI) ematen du, adibidez.

Deigarria egin zaigu ezen, administrazioko eragileekin egindako elkarrizketetan estigmatizazioari buruzko ikuspegi horiek agertzen diren arren, esan baitute pobrezia egoeran dauden pertsonen iritziari buruz galdetzen zaienean, inoiz ez dietela galdetu eta ez dituztela beren iritziak jaso zerbitzua hobetzeko. Horrekin lotuta, ikusten dugu administrazio batzuek ez dietela agentziarik ematen pobrezia egoeran dauden pertsoneri; aitzitik, prestakuntzarik gabeko izaki gisa ikusten dituzte, eta azpimarratzen dute prestakuntzak ebatziko duela haien egoera, egiturazko desberdintasunak kontuan hartu gabe.

*“Emakume batek hiru pertsona desberdinen seme-alabak izatea, eta hiru pertsona horietako bat ere ez arduratzea eta onartzea edo laguntzea... prestakuntza kontua da. Kasu honetan, emakumeak bere duintasunaz jabetu behar du, eta ez du onartu behar inork adarra jotzerik; noski, pobrezia hori endemikoa dela. Emakume horiek ez dute ez familiaren ez gizartearen babesik, eta horregatik ezin dira prestatu, ezin dute... ikasi, eta lan prekarioetan beti... Gero, seme-alabak eskola porrotera behartuta daude, gurpil izugarri baten antzera. Prestakuntza jarri ezean, arazo hori ez da inoiz konponduko” (B2).*

### **#3. GAIA: KARITATEA**

“Karitate” hitza errepikatu egin da ikerketan zehar, eta egiaztatu dugu profesionalek eta erakundeek horri

buruz duten ikuspegia aldatu egiten dela alde batetik bestera, eta erabakiak eta esku hartzeko edo esku-hartzea ulertzeko modua markatzen dituela berriro.

Batzuek, batez ere boluntarioen menpe daudenek, parte hartzen duten pertsonen karitatea laguntzak funtzionatzeko motorra dela diote.

*“Hori guztia herritarren elkartasunari esker doa aurrera” (B1).*

Beste batzuk, ordea, logika horretatik urruntzen saiatzen dira, lanean ari diren pertsonentzat kaltegarria dela uste baitute, mendekotasuna sor baitezake, eta, askotan, karitatea berehalako laguntza ematera bideratzen da, eta ez arazozen egiturazko arazoiei aurre egitera.

*“Badira pertsonen autonomiaren aurka eraso dezaketen ekintza soziokaritatiboak, mendekotasuna sortzen dutenak, elikagaiak edo janaria ematea bezalakoak” (C1).*

Karitatean oinarritutako dinamikek ez dute eskubideen esparrurik, baizik eta eskubide gisa onartuta dagoen oinarrizko behar bat asetzea, horretarako gainerakoen solidaritatera joz. Ikuspegi hori dela eta, Eguberrietan kanpainak ugaritu egiten dira, eta emozioak mugitzen dituzten egunak bilatzen dira, produktu gehiago bildu ahal izateko. Gainera, kanpaina horiek baltsamo gisa jokatzeko dute dohaintza ematen dutenentzat, solidarioak izateagatik gogobetetzen dituzte eta, funtsean, eskubideak erabat falta diren dinamikak iraunarazi egiten dituzte.

*“Supermerkatuetan zentimo solidarioak uztea iradokitzen digute. Zergatik egiten dugu?”*

*Dohaintza emaileak gogobetetze maila handia duelako dohaintza hori ematean. Gabonetan, adibidez, handitu egiten da erakundee-tara elikagaiak banatzen laguntzeko deitzen duten pertsonen kopurua” (C3).*

#### **#4. GAIA: SEGURTASUNA ESKUBIDEAREN BERMEAN**

Elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea aitortuta dago Espainiako Estatuak berretsitako zenbait itunetan. Hala ere, ez dago Konstituzioaren aitortpenik, eta barne-zuzenbidean horren edukirik ez da garatu, Estatuan (Observatorio del Derecho de Alimentación en España 2018) adierazten duen bezala. Halaber, ez dago behar adinako estatistika neurketarik, ez eta analisi se-guru, fidagarri eta kalitatezkorik ere, elikagai eta nutrizio eskubidearen ikuspegitik, elikagaien eskuragarritasunari buruzko informazioa emango duenik.

*“Ongizate estatu batean, hau da, diru sarre-ra handiko herrialde baten barruan, elikadura osasungarria eta egokia bermatuta egon behar harko luke. Behar hori ez dago estalita eta hutsune bat dago. “Soberan dagoena” emateak ez du bermatzen pertsonen beharrak beteko direnik” (D1).*

Elikagaien laguntza sistema bi zutabetan oinarritu da urteetan, hain zuzen ere, elikagai laguntza erabiltzen duten pertsona pobreen segurtasun-eza agerian uzten duten bi oinarritan. Alde batetik, *“soberan dagoena ematea”*: soberan dagoena nekazaritza industriaren

interesagatik ematen da, eta, batez ere, soberakinetatik libratzeko, elikadura irizpiderik aplikatu gabe. Eta beste-tik, boluntarioen lana.

*“Hemen ia guztiok boluntarioak gara, gehie-nak erretiratuak. Ea, hemen ordaindu beharko balitz, ezinezkoa izango litzateke, ze orain ere oso justu gabiltza” (B1).*

Adibidez, pandemiaren hiletan, are nabarmenago geratu zen sistemaren segurtasunik eza, boluntarioen batez besteko adina altua baita eta arrisku handiko populazioa beraz; horregatik, leku askotan ez zen en-tregarik egin. Hau da, krisi egoeran, familia ahulenak laguntzarik gabe geratu ziren. Gainera, boluntario bat-zuek esan ziguten bezala, bilketak mugatu egin ziren, ezin ziren bildu enpresetako elikagaiak, ez azalera han-dietakoak, ezta bilketa handiak egin ere. Banatzen den produktu motak ez du egonkortasunik, zoriaren men-de dago, *“banaketa entitatearen lokala nolakoa den eta bere instalazioetan izoztuak, fruta edo barazkiak bana ote ditzakeen”.* (B3)

Banatzen duten pertsonak ere ez dute prestakuntzarik, produktuak batetik bestera mugitzen dituzte, lagundu nahian.

*“Boluntarioek ere ez dute zertan nutrizioaren ikuspegitik pentsatu; izan ere, jende superba-liagarri batek gauza asko egiten ditu bere bo-rondate onenarekin, eta ez du prestakuntzarik izan beharrik, baina, noski, ez dugu nutrizio az-terketarik egin zer eman behar dugun jakiteko, eta freskagarriak, poltsako patatak eta abar ematen ari dira” (D1).*

*“OARek ezin dute elikatzeko eskubidea bermatu” (D2)*

*“Orain arte, Elikagaien Bankuaren janariak ematen ari ziren erakunde batzuek ez zituzten betetzen ez antolakuntzako gutxieneko baldintzak, ez produktuaren kalitatea kontrolatzeko gutxieneko baldintzak, etab.” (C2)*

Boluntarioekiko mendekotasunak eta elikadurarekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntzarik ezak eragindako mugez gain, baliabideak pertsonen/familien benetako beharretara egokitzeko mugak eta ezinak ere aipatzen dira, eta horrek areagotu egiten ditu jada pairatzen dituzten desberdintasun batzuk.

*“Artatutako familien laurdena guraso bakarrekoak dira, eta ez dago ibilbiderik familientzako gizarte zerbitzuetan; jantoki soziala adibide bat da, familiak ezin dira sartu. Gizarte bazterketa jasaten duten gizonen ibilbidea errazagoa da gizarte zerbitzuetarako” (C3).*

## **#5. GAIA: ELIKAGAIEN INDUSTRIARENTZAKO ONURAK**

Gai hau beste batzuk bezainbeste agertu ez den arren, gai eztabaidagarria dela ikusi dugu, interes asko baitaude tartean, eta horregatik... *“elikaduraren munduan eragile asko daude tartean, erakunde publikoak, azalera handiak, beste erakunde batzuk” (C1).*

Elikagaiak ematen dituzten enpresek, solidariotzat jotzen diren arren, hainbat onura lortzen dituzte hainbat arlotan: Dohaintzen zerga hobariak, inbentarioaren eta “elikagai-xahuketaren” murrizketa, erantzukizun sozial korporatiboaren irudia eta aitortza, eta marketina. Azken finean, etekinak lortzen dituzte diru mailan eta baita irudi sozialaren mailan ere, enpresak salbatzaile gisa ikusten baitira eta ez arazoaren parte gisa.

*“Elikagaien industria horren atzean dago, eta etekina ateratzen ari da. Batzuek irabazi egiten dute, eta beste batzuek janaria duintasunik gabe jasotzen dute; hori da dinamika” (D1).*

Dohaintza horietan, produktu asko ez dira aprobetxa daitezkeen produktuak, dohaintzak produktu galkorak gainetik kentzeko bide gisa ikusten dira, pertsonen osasunaren eta duintasunaren aurretik interes ekonomikoak jarritz. Gainera, produktu horiek dohaintza gisa ere kontabilizatzen dira.

*“Batzuetan, supermerkatuek eman ezin diren gauza asko ematen dituzte. Hainbat gauza bota egin behar dira, baina ezin duzu esan ez dituzula hartzen” (B1).*

*“Supermerkatuekin dugun borroka da batzuetan Elikagaien Bankuak zabortegia direla” (B2).*

Hurrengo atalean ikusiko dugunez, komunikabideen edo sare sozialen publizitatean erabiltzen da dohaintza. Komunikabideen estaldura mota horrek markaren irudia eta ospea handitzen ditu.

*“Oso galdera garrantzitsu bati erantzun behar zaio: zergatik ez daude parekatuta elikadura segurtasuna eta karitatezko elikadura baliabi-deak eraikitzeke ahalmena? hau da, Europako iparraldeko herrialdeak elikagai bankuen sisteman sartu dira, hemen garapen maila askoz handiagoan gaudela suposatzen den arren; horrek esan nahi du interesak daudela atzean, eta, agian, itzalean eraikitzen ari den sistema batean, non, agian, pobrezia erantzuna ematea baino komenigarriagoa zaien era horretako asistentzia eraikitzea” (D1).*

## **#6. GAIA: XAHUTZEA**

Elikagaiak alferrik galtzea Mendebaldeko gizartean gertaera eta arazoa da. Janaria alferrik galtzeari buruzko 2022ko txostenaren arabera (Dirección General de la Industria Alimentaria, 2023), 1.201,92 milioi kg. edo litro elikagai bota ziren zaborretara etxe barruan eta kanpoan. Aldi berean, ikusi dugun bezala, pertsona eta familia asko bizi dira elikadura segurtasun gabezia egoeran. Bi gertaera horiek kritika sozial gisa batzen dira batzuetan, eta besteetan, berriz, baterekin besteari irtenbidea eman nahi zaio, kontakizun batzuetan ikusi dugun bezala, eta 7/22 Elikagai Hondakinen Legeak eta izapidetzen ari den Elikagai Hondakinen Lege berriak adierazten duten bezala.

Alde horretatik, ingurumen arazoari eta hondakinak mugatzeari erantzuteko Elikagai Bankuak erabiltzea komeni dela dioen diskurtso bat dagoela ikusten dugu:

*“Jendea edukiontzietan janaria bilatzen ari zela eta aldi berean saltoki handietatik janaria botatzen zirela ikusi zutenean sortu ziren Elikagai bankuak” (B4).*

*“Elikagai bankuak xahuketaren aurka joatetik datoz, borroketako bat hori da; hortik gatoz. Lan garrantzitsua egiten da supermerkatuekin; izan ere, hori guztia egingo ez balitz, bota egingo litzateke janaria. Izan ere, Ingurumen Sailak arrazoi horrengatik ematen digu dirulaguntza” (B2).*

Baina, aldi berean, paradoxikoak iruditu zaizkigu bi gauza. Lehenik eta behin, Elikagaien Bankuek euren burua xahutzearen aurkako motor gisa aldarrikatzen duten arren, aldi berean, haien izatearen sostenguaren zati handi bat erosketetan eta saltoki handietan egiten den kontsumo estimuluan oinarritzen dute. Hau da, hondakinak sortzen dituen motorra bera erabili nahi da arazoa konpontzeko.

Bestalde, baliabide horien burokrazia edo barne prozedura ez oso malguak direla eta, erabiltzaileen beharrei erantzuteko erabil zitekeen elikagaiak bota egiten dira.

*“Aterpetxe askotan janaria sobratzen da beti, janari piloa botatzen da, baina zuk gauaren zain egon behar duzu zenbaketan sartzeko; eguerdian iristen bazara, ez dizute bolanterik ematen” (E5).*

## #7. GAIA: PREZIOAK

Diotenez, “ezegonkortasunak eta atzeraldi ekonomikoak eragin zuzena eta sakona dute elikatzeko eskubidean, txirotasunaren eta elikadura segurtasunik ezaren arteko sorgin gupil bat sortzen baita” (Observatorio del Derecho de Alimentación en España 2018).

Elikagaien prezioen igoerak hainbat modutan eragiten dio egungo elikadura laguntzako sistemari. Batetik, produktu hotza banatzen duten erakundeei dohaintza gutxiago iristen zaie, eta, bestetik, erosi behar dituzten produktuek kostu handiagoa dute.

*“Inflazioaren ondorioei dagokienez, 2022an %20 elikagai gutxiago erosi ditugu, %8 garestiago” (B2).*

Gainera, supermerkatuak txanpon-txartel batean laguntza duten pertsonak ere merkatuko gorabeheretarako prest daude, eta errealitate horrekin egiten dute topo.

*“Nahiago dut elikagaien otarra, supermerkatu-ra joatea baino hobeto ateratzen zait” (E1).*

Jasotzen diren loteak 50 euro ingurukoak izan arren, segurtasun handiagoa ematen dietela uste dute, produktu ukigarriak baitira, eta aldiz, txartelen zenbatekoa ez da aldatzen, merkatuan prezioek gorabeherak izan arren.

*“Txartelak publikoarentzako salmenta prezioan erosten dira, eta horrek %30 janari gutxiago dakar” (B2).*

**#8. GAIA: ERABAKITZEKO ESKUBIDEA:**

Gaur egun, banaketa antolatuta dagoen moduan, pertsonak egin dezaketen hautaketa oso mugatua da, edo ez dago. Horrela, ezin dituzte beren elikatzeko moduarekin bat datozen elikagaiak aukeratu, hala kultura, nola erlijio, osasun arazo eta abarreatatik.

*“Jantokira sartzen zarenean, mahaietan esertzen joan behar duzu, sarrera ordenaren arabera. Mahaiak osatu behar dituzu lana errazteko, baina ez dizute esertzen uzten zu atseginago egon zaitezkeenarekin. Batzuetan, ondo ez dagoen norbaitekin eseri behar baduzu, medikatu edo alkoholizatu dagoelako, nahiko desatsegina izan daiteke” (E8).*

Horregatik, batzuetan positiboki baloratzen dira txartelak emateko edo supermerkatu moduan elikagaiak jasotzeko ereduak, norberak aukeratu ahal izateko.

*“Garrantzitsua da jendeak zer erosten duen erabakitzea. Garrantzitsua da, halaber, informazioa ematea eta laguntzea” (C1).*

Baina elikagaiak aukeratzeaz gain, oinarrizko beharrei aurre egiteko eta nola egin erabaki ahal izateko baliabide nahikoak izango lituzke aukeratzeko ahalmenak. Berritiro ere, erantzun integrala behar dela azpimarratzen da, berehalako beharrei erantzuteaz gain.

*“Pobreziaren arazoa ez da inoiz konponduko zure gastuei aurre egiteko gaitasunik ez dagoen artean. Baina nik zuri eman behar badizut, askatasuna kentzen ari naiz. Laguntzetatik*

*bizi bazara, ez zara librea, ezin duzu aukeratu”  
(B2).*

Diskurtso batzuetan mesfidantza eta beldurra sumatu ditugu janarian gastatuko ez diren baliabideak ematea aipatzen denean. Diskurtso horietan argi geratzen da, berriro ere, pertsona pobretuak irizpiderik gabeko pertsonak edo “xahutzaileak” direla. Hori da, hain zuzen ere, banaketa tokietatik hurbil janaria botata aurkitzen dutela adierazten duten diskurtsoen kasua; emandakoa ez dela baloratzen adierazten dute. Diskurtso horiek loteak jasotzen dituzten pertsonekin alderatzean, produktuak batzuetan botatzen direla egia dela esaten dute, baina kontsumitzeko moduan ez daudelako, asko iraungita daude, eta banatzean ikusten badute ere, ez diete aukerarik ematen produktu horiek eraman ala ez aukeratzeko.

## **#9. GAIA: GIZARTE ZERBITZUEN PRIBATIZAZIOA**

Gizarte Zerbitzuen pribatizazioari buruzko diskurtso hori loturik dago orrialde hauetan ikusgai jarri den politikarekin: hirugarren sektorearen esku uztea gizarte babeseko erantzukizun publikoa. Gizarte babesaren arlo guztietan ikusten dugu joera hori handitzen ari dela. Hori guztia elkarrizketetan ageri da, eta argi uzten da sistema ahula dela, boluntarioen eta gizarte erakundeen baitan sostengatzen baita. Inza-Bartolomé & Rozas (2016) aipatuz, oinarrizko beharrak daude (elikadura, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei dagozkien gastuak...) ongizate eredutik estalita ez daudenak. Beraz, pertsona horiek behartuta daude

familiara edo gizarte erakunde pribatuetara laguntza bila joatera.

Joera hori handitzen ari dela ere ikusi ahal izan dugu; izan ere, Gizarte Zerbitzuak saturatuta daude eta langile gehiago kontratatu beharrean, pribatutik kudeatzea da joera.

*“Gizarte zerbitzuak gainkargatuta daude, eta elikadura deribazioak gainezka daude. Onena hirugarren sektoreak kudeatzea da, ez kolap-satzeko” (C2).*

*“Ikusi behar da, egia esan, hirugarren sekto-rea dinamikoagoa izan dela erantzuna emateko orduan; agian, erakundeak baino gehiago daudelako kalean, arazoak detektatzeko eta erantzuna emateko gai dira” (D1).*

Diskurtso horien barruan, eredia eta joerak zalantzan jartzen dituzten ahots kritikoak aurkitu ditugu.

*“Nola jokatu behar den erabakitzeko, nire us-tez, administrazio publikoa presionatzea izan beharko litzateke lehenengo bidea. Gaine-ra, erakundeek dirua emateko aukera badu-te, eman dirua, eta horrela autonomia sortuko dugu, sortzen den bizitza eta normaltasunaga-tik” (C3)*

## #10. GAIA: NUTRIZIOA:

Elikadurarekin harreman estua izan arren, elikadura ez da izan elkarrizketetan gehien aipatu den gaia. Agertu denean, bi aldaera izan ditu. Alde batetik, ahots batzuk oso kritiko agertu dira elikagai laguntza erabiltzen duten pertsonak jasotzen eta kontsumitzen dituzten elikagaien nutrizio kalitatearekin.

*“Opilak emanez, elikadura txarraren arazoa sortzen duzu” (C1).*

*“Enpresei soberan geratzen zaizkien produktuak ez dira elikadura irizpideen arabera ematen” (D1).*

*“Gurutze Gorriko eta Elikagaien Bankuko saskiak gutxi gorabehera 50 eurokoak dira hilean. Lekaleak oso elikagarriak diren arren, horrekin ez dira elikadura beharrak asetzen”. (D2).*

Jantokiei dagokienez, iritzi desberdinak daude, baina, oro har, ondoen baloratutakoak sukaldaritzan propioa dutenak dira.

*“Janaria txarra eta urria da. Ezin da errepikatu, eta horregatik joaten naiz gero mojen janaria hartzera. Catering bazkaria txarra da, eta Gu-reak-en eta Auzolan-en bazkaria oso kalitate txarrekoa da. Egokiena aterpean bertan kozi-natzea izango litzateke, eta gutxirekin, seguru asko, janaria askoz hobea izango litzateke” (E4).*

Interesgarria iruditzen zaigu pertsonen osasunari eragiten dion hausnarketa batekin amaitzea; izan ere, es-kubideak mugatzeaz gain, zerbitzuan kalitaterik ez

izatearen faktura jasotzen dutenen gorputzek ordainduko dute.

*“... gaixotasuna sortzen ari gara. Ez dago barazkirik ezta frutarik ere. Pasta, galletak, gurina... Pertsona horien osasun fakturan eragina izango du” (C3).*

## **ATERA EZ DENA**

Elkarrizketetan azaleratu diren gai nagusiak deskribatu dira, baina txosten honetan, dauden errealitateak ikusarazteaz gain, diskurtso horietan ikusten ditugun gabeziak ere nabarmendu nahi ditugu. Alde horretatik, oro har, nekazaritza industriaren interesak eta banaketa handiarenak ezagutu edo hautematen diren arren, aipagarria da beste eragile posiblek ez agertzea diskurtsoan.

## **Lehen sektorea / agroekologia**

Gaur egungo esparruak eta hasieran deskribatu diren nekazaritzako elikagaien sistemen errealitateak urrundu egin dituzte jaten duten pertsonak, haiei jaten eman diezaieketenengandik; hau da, inguruko baserritarrengandik, eta horiek ez dira kontuan hartu ere egiten eragile gisa. Era berean, oso urruti ikusten dira tokiko ekoizpenetara zuzenean erositako produktu freskoa, osasungarria eta kalitatezkoa edukitzeko aukerak. Bi norabideetan gertatzen da hori. Baserritarrekin izandako elkarrizketetan, administrazioekin edo hirugarren

sektoreko erakundeekin batera jarduteko eta lan egiteko aukerei buruz, erantzunak bi norabidetan eman dira nagusiki: alde batetik, ezjakintasuna, edo aukera hori inoiz kontuan hartu ez izana produkzioarako irteera gisa, dela kanal itxi gisa hautemateagatik, dela baloratu ez dutelako. Bigarrena kontakturen bat izan den kasuetan gertatu da, baina nagusiki dohaintzan eman da eta diskurtsoak asistentzialismoaren ildotik joan dira, ikuspegi kritikorik gabe.

Horrekin guztiarekin, ikusten dugu, paradoxikoki, pobrezia egoeran dauden pertsonen elikaduraz hitz egiten denean, elikagai ekoizle hurbilenak bezain eragile garrantzitsuak agertu ere ez direla egiten. Era berean, baserriarrek beraiek, salbuespenak salbuespen, ez dituzte espazio horiek beren ekoizpenak trukatzeko toki gisa ikusten. Hori guztia deigarria da; izan ere, aurreko lanetan, “Qué comen las que malcomen” liburuan, esaterako, (Alvárez, Fidalgo, Herrero, & Shaw, 2020) ikusi genuen lehen sektoreko pertsonak, batez ere nekazaritzako eredu ekologikoetan daudenak, pertsona baztertzat jotzen direla beren egunerokoan pairatzen duten prekaritateagatik, sektorearen eta kontsumoaren arteko urruntasunagatik, bai hiriko errealitatearen eta landa ingurunearen arteko distantziagatik, bai bakoitzaren egoeraren larritasunagatik. Horrek kolektiboan artean loturarik ez dagoela erakusten digu.

## **Landa inguruneeko egoerak**

Eragileekin egindako elkarrizketetan ez dira agerian geratu landa ingurunean gerta daitezkeen elikadura bazterketa eta pobrezia egoerak, ez eta horiei erantzuteko

baliabide eta zerbitzurik eza ere. Baliabideak hirietan kontzentratzen dira, baita pobrezia egoeran dagoen biztanleria ere, baina ezin da alde batera utzi landa ingurunean ase gabeko beharrak dituzten pertsonak ere badaudela, eta paradoxa bat gertatzen da: elikagaiak ekoizten dituztenengandik hurbilen bizi diren pertsonak dira.

Nahiz eta historikoki herrietan harreman eredua komunitarioagoa izan eta oinarritzko behar batzuk auzotasunetik konpondu ahal izan, gaur egun indibidualismoak eragina du landa ingurunean ere, eta komunitate harreman hori ez da hain indartsua, batez ere iritsi berriak diren pertsonekin. Komunitateetako sareak haustek, landa ingurunean bertan enplegurik ez izateak, biztanleria zahartzeak eta gizarte estaldura publikorako eta oinarritzko gizarte zerbitzurako sarbide eskasa izateak (edo GKEen edo laguntza erakunde erlijiosoen estaldura eza) landa inguruneko pertsona eta familien exodoa eragiten dute; azkenean, bakardadera eta gizarte isolamendura kondenatuta egotearen aurrean, alde egiten dute.

### **Eraikuntza komunitarioaren ikuspegia:**

Bildu ditugun narratibak banakotasun bakartu gisako pertsonen begiradatik abiatzen dira, eta, horren ondorioz, planteatzen diren erantzunak ere paradigma horretatik eraikitzen dira, kolektibitatean eta komunitate baten parte gisa bizi garela alde batera utzita. Elikadura beharrei erantzuten dieten erakunde eta pertsona taldeei buruz hitz egin arren, kanal desberdinak modu bertikaletan eraikitzen dira, non kaltetuenek gutxitan

izaten baitute ahotsik eta erabakitzeke gaitasunik. Egia da, kasu askotan, pobrezia egoeran dauden pertsonen mugak dituztela, batez ere denborari dagokionez, komunitatean parte hartzeko. Hala ere, ikusten dugu erakunde edo administrazioek ere ez dutela hori sustatzen, ez baitute onartzen pertsonen beren inguruneetan subjektu aktiboak direnik, eta ez dute kanalik irekitzen baliabideen diseinuan eta/edo kudeaketan parte hartzeko.

Administrazioari begira problematizatzen da, eta ez da aldatzen begirada erantzunetan pentsatzean. Nahiz eta administrazioaren ardura izan pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzea, bere gabeziak eta deskribatutako larrialdiak hautematen dituen neurrian, posible izango litzateke, eta oso interesgarria, beste espazio inklusibo eta duin batzuk ere eraikitzea pertsona guztientzat.

## **Generoa eta ikuspegi intersektionala:**

Elkarrizketetan ia ez dira aipatu ere egin generoa edo arraza dela-eta pertsonen pairatzen dituzten desberdintasunak. Pertsona migratzaileen egoera soilik aipatzen da, esparru horretan kolektibo garrantzitsua delako, baina horien artean ez da bereizten generoaren gaia edo hainbat faktorek zeharkatutakoak izan daitezkeen egoerak, pertsona migratua izatea bera baino pisutsuagoak batzuetan.

Baliabide bat edo bestea erabiltzen dutenen profilak azaltzen direnean izendatzen dira emakumeak; izan ere, ikusten da emakume gutxi daudela jantokietan, azaldu dugun bezala, adin txikikoekin sartu ezin direlako,

kasu gehienetan emakumeek umeak beren ardura-pean dituzten arren. Hala ere, ez dira kontuan hartzen pobrezia zeharkatzen dituen ama bakarreko familien berariazko zailtasunak: lanpostuak eskuratzeko orduan, jasaten dituzten eta jasan ahal izan dituzten indarke-riak, eta, are gehiago, gizarte laguntzaren baitan eskatzen zaizkien prozedura burokratikoak egiteko denbora falta.

Ikusi dugunez, boluntarioekiko mendekotasuna dela-eta, arreta ematen duten erakundeetako pertsonak ez dute elikagaiei buruzko prestakuntzarik, ezta eskubideei, generoari edo arrazismoaren kontra jarduteari buruzko prestakuntzarik ere. Hori dela-eta, arretan eta hitzaldietan matxismoz eta arrazismoz estalitako adierazpenak eta begiradak agertzen dira. Adierazpen horiek pertsona boluntarioen aldetik agertu dira, baina baita administrazioen parte diren pertsonen aldetik ere.

Horrek beste tanta bat gehitzen dio eskubide ikuspegi-rik ezari eta erantzun integralik ezari. Erantzun hori eraginkorra izateko, pobrezia egoeran dauden pertsonak zeharkatzen dituzten desberdintasun ardatzak hartu beharko dira kontuan.

## **EZTABAIDA IREKIAK**

Profil ezberdinetako pertsonak elkarrizketatu ondoren eta lan honetan parte hartu duten pertsona eta taldeekin harremanetan egon ondoren, ikusten dugu oro har ez dagoela erantzun argirik EAEn dauden arazoei buruz eta, oro har, ez dagoela adostasunik eredu ideala zein izan litekeen jakiteko, lurralde bakoitzak arazo, egoera,

demografia, dinamika eta baliabide desberdinak baititu. Gainera, esan bezala, ez dago parte hartzen duten alderdi guztiak biltzen dituen konponbiderik, ezta eredu hori bilatzeko elkarrizketarik ere.

Azpimarratu behar da hurrengo taula honek, nahiz eta zenbait jarrera laburbildu nahi dituen, konplexutasun handia dakarrela; izan ere, alderdi batzuetan entzundako diskurtsoak aurrez aurre daude, baita erakunde beraren barruan ere, lehen azaldutakoagatik: alde batetik, elkarrizketarik eza eta, bestetik, eskubide hori betetzeko eskatzen duten pertsonekin ez kontaktzea; baita ere, nola ez, egoeren konplexutasuna eta aniztasuna. Horregatik, garrantzitsua da kontuan hartzea konponbideak bilatzeko orduan ez dagoela eredu bat, baizik eta asko egon daitezkeela.

Nolanahi ere, eztabaidan dauden eta horiei ekiteko eta eztabaidatzeko berariazko guneak beharko lituzketen elementuak azalduko ditugu jarraian.

14 taula. Iritzi-aniztasuna

| <b>GAIAK</b>                  | <b>1. IRITZIA</b>                                                                                                                                                                                               | <b>2. IRITZIA</b>                                                                                                                                            |
|-------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Banaketa</b>               | Ilarak ikustea<br>Banaketa egotea<br>OAREk egitea<br>Puntuala izatea<br>Nekazariei egindako erosketa publikoarekin bateratu daiteke<br>3. sektorearen, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta. | Ilararik ez egotea<br>Banaketarik ez egotea<br>OAREk ezin dute bermatu<br>Mugagabea izatea.<br>Arazo desberdinak dira<br>Publikoa                            |
| <b>Txanpon-txartelak</b>      | Pertsona duindu egiten dute<br>Zer erosi aukera dezakezu<br>Saltoki txikietan erabiltzeko konfiguratu daitezke (gaur egun, ez)                                                                                  | Arazoa ezkutatzen dute<br>Agian gaizki aukeratzen dute<br>Azalera handientzako onurak<br>Elikadura baino ez du konpontzen, pobreak hor jarraitzen du dirutan |
| <b>Soberakinak</b>            | Denek irabazten dute<br>Ziklo bat ixten da (ez bota, ez gosea)<br>Soberakinak erabilgarriak dira                                                                                                                | Jendea ezin da soberakinaren mende egon<br>Ez da duina gosea duenari soberakina ematea<br>Soberakinak ez dira osasungarriak                                  |
| <b>Elikagaien jatorria</b>    | Xahutzeta saihesteko eta katea ixteko soberakinak                                                                                                                                                               | Ez litzateke soberakinekin bete behar, elikatzea eskubidea da                                                                                                |
| <b>Erabakitzeko eskubidea</b> | Elikagaiak ematea                                                                                                                                                                                               | Dirua ematea                                                                                                                                                 |

Iturria: Geuk egina

## Elementuak hedabideetan eta diskurtso publikoan

Aurreko atalean aztertu ditugun elkarrizketetatik sortzen diren begiradak eta argudioak ez datoz soilik banakako pentsamendutik. Ingurunearekin elkarreraginean gauden heinean, pertsona guztiok gara haren eraginpean eta baldintzapean.

Horregatik da hain garrantzitsua azterketa honetan diskurtso eta narratiba hegemonikoenak eta komunikabideetan ikusten direnak bildu eta aztertzeko atal bat sartzea. Estatu osoan zabaldutako diskurtsoak izan arren, EAEn aurkitutako adibideekin lurreratzen saiatu gara.

Horretarako, prentsa digitaletik, publizitatetik eta sare sozialetatik ateratako hainbat dokumentu erabili ditugu gaiari buruzko diskurtso nagusiak identifikatzen saiatzeko.

Azterketa horretan, funtsezko galdera bat errepikatzen dugu: *zer eginkizun dute komunikabideek?* Ikusi dugunez, askotan prentsa progresistan ere, elikagaien pobrezia aztertzean, ez dira giza eskubideak aipatzen, ez estatuak eskubide hori betetzeko duten betebeharra, ezta laguntza hori jasotzen duten pertsonak eskubideen titularrak direnik ere.

Ikus dezagun zer elementu tematiko edo diskurtso aurkitu ditugun, eta zer markotan sar ditzakegun.

*taula. 15 Gaikako ardatzak. Komunikabideetatik, publizitatetik eta sare sozialetatik ateratako zatiak aztertzea.*



Iturria: Geuk egina

## #KARITATEAREN DISKURTSOA:

Sare sozialetan aurkitutako narrazioak berrikusiz, elikadura pobrezia lotutako kontzeptuetako bat *Karitatea* da. Hortik abiatuta, ondoren sistematizatzen saiatuko garen alderdi eta ikuspuntu ezberdinak jasotzen dira:

### -Karitate/elkartasunerako deia, elikagai beharra asetzeko eragile:

Publizitateari dagokionez, diskurtso hori askotan agertzen da gosearen aurkako estrategia gisa. Ikusi da nola animatzen den “dirua edo elikagaiak ematera”; izan ere, ulertzen da gizabanakoek zeregin garrantzitsua dutela pobrezia eta gosearen aurkako borrokan; hau da, eskubide horren estalduraren ardura pertsonen jardun egokian kokatzen du.

Ildo horretatik, hirugarren sektoreko erakunde batzuk eta biztanleriaren zati handi bat aurkituko ditugu, adibidez, Bilketa Handirako deialdietan.

7 irudia. Dohaintza egiteko deia



Iturria: [blog.novadiet.es](http://blog.novadiet.es)

8 irudia. Dohaintza egiteko deia



24 y 25 de noviembre, Gran Recogida 2023

Los próximos 24 y 25 de noviembre son las fechas en las que el Banco de Alimentos hará la Gran Recogida del año 2023, vamos a estar presencialmente con nuestros voluntarios en unas 95 tiendas y establecimientos de toda Gipuzkoa. Se hará recogida física de alimentos y también recogida en bonos.

Además, en casi todas las tiendas de alimentación de Gipuzkoa, aunque los voluntarios no estemos presentes, se va a poder aportar con Bonos de Alimentos, también en la semana siguiente.

La Gran Recogida anual es el punto fundamental de entrada de recursos a nuestro Banco de Alimentos para ayudar a las personas más desfavorecidas de nuestra sociedad.

Iturria: Gipuzkoako Elikagaien Bankua. <https://bancoalimentosgipuzkoa.org/>

Diskurtso horiek, ahalik eta produktu kantitate handiena lortzeko bilketen publizitatea egin nahi duten erakundeetatik ez ezik, politika publikoen arduradunen aldetik ere ematen dira, 11. irudian Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarekin ikusten dugun moduan:

9 irudia. Dohaintzarako deia. Euskadiko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua

**Irekia - Nerea Melgosa anima a la ciudadanía vasca a “participar en los Bancos de Alimentos en un momento de especial necesidad para muchas familias”**

Iturria: Euskadi.eus

Deigarria da, argitalpen beraren arabera, dohaintzarik eta boluntariotzarik gabe ezin izango liratekeela familien beharrei erantzun, hori normalizatuz eta “borondate onak” eskubide bat baldintzatu behar ez lukeela baztertuz. Pertsonen elkertasunean jartzen da arreta, eta hori zerbait positibotzat hartzen da; praktikan, pertsonak, bereziki erretiratuek, kudeatzen eta zaintzen dituzte baliabideak.

10 irudia. Odola emateko deia

RECOGIDA 25 Y 26 NOVIEMBRE

## Vuelven los voluntarios en la Gran Recogida de Alimentos

Este viernes arranca en toda Euskadi la gran recogida de alimentos, este año de nuevo con voluntarios en los establecimientos adheridos a la campaña en los tres territorios. Y es que los voluntarios animan la **donación imprescindible para atender las necesidades de alrededor de 50.000 familias en toda Euskadi**. El objetivo es mantener la ayuda básica a estas familias o bien a través de la donación en metálico a través de bonos o a través directamente de productos.

Onda Cero Bilbao  
Bilbao | 21.11.2022 13:32



Iturria: Ondacero.es

11 irudia. Dohaintza egiteko deia

Luis Crovetto, nuevo presidente del Banco de Alimentos de Bizkaia

## “La sociedad vasca destaca por su solidaridad”

**Maria Arana**

NACIDO en Oviedo hace 73 años, Luis Crovetto Castañón lleva doce años trabajando en el Banco de Alimentos de Bizkaia (BAB) aunque desde hace muy poco también es su presidente. Casado con hijos y nietos, y docente ya jubilado, cruza los dedos para que la campaña de primavera sea respaldada por los vizcaínos. Por el momento, y solo en el primer trimestre de 2022, el BAB ha repartido 671.608 kilos de alimentos.

—**¿Qué objetivos se plantea el Banco de Alimentos de Bizkaia para este año?**

—En estos momentos nuestra prioridad es conseguir que la campaña de primavera sea un éxito porque empezamos a tener problemas para atender a las más de 25.000 personas que necesitan ayuda para hacer frente a sus necesidades de alimentación. La crisis económica, la guerra de Ucrania y la inflación están afectando muy negativamente a nuestra capacidad de compra de alimentos, porque, lógicamente, con los bonos y el efectivo que tenemos han disminuido los kilos de alimentos que



dad, de hecho, es una constante estos últimos años que Euskadi y Navarra son las zonas de Europa donde es más elevada la proporción de kilos donados por habitante.

—**¿Cuántas familias vascas se han beneficiado de su actuación?**

—En estos momentos hemos recibido peticiones de 43 unidades familiares, que son un total de 127 personas, y otras veinticinco más de Bermeo.

—**¿Cómo ha cambiado el perfil del solicitante de ayuda?**

Muchas de las personas que acuden al Banco de Alimentos tienen unos trabajos precarios que no les permiten cubrir sus necesidades básicas y recurren a nosotros para poder llegar a fin de mes. Este hecho es una novedad que en los últimos años se produce de una forma cada vez más frecuente. También ha aumentado el número de vizcaínos que jamás pensaron que tendrían que pedir ayuda pero que debido a la crisis económica, en gran parte derivada del COVID, se encuentran en condiciones muy precarias.

—**El BAB cuenta con un proyecto de colaboración con**


Iturria: [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)

## -Boluntarioak: “Ematen dudana baino gehiago jasotzen dut”:

Testuinguru horretan, eta aurrekoarekin lotuta, boluntarioen iruditeriari edo “ematen dudana baino gehiago jasotzen dut” ideari buruzko diskurtsoa aurkitu dugu. Azpimarratu behar da kontua ez dela boluntarioen lana ez *baloratzea*, are gutxiago elkarri laguntzeko estrategiak, baizik eta narratiba zehatz hori kokatzea, estrategia gisa duen zeregina aztertzeko eta baloratzeko, gizarteko arazoei eta pertsona guztien elikadura eta nutrizio eskubide egokiari erantzuteko orduan.

Adierazgarria da prentsan boluntarioak sentitzen duen gogobetetasun pertsonalak zenbait egoera nola erromantizatzen dituen; gizarte arazo konplexuak eklipsatu eta sinplifikatzen ditu eta banan-banako kasuetara murrizten ditu. Horrek, azkenean, arazo horiek sortzen dituzten egiturazko kausak ikusezin bihurtzen ditu. Kasu horietan, kritika sozialik edo salaketarik eza atzeman dugu, eta, beraz, mekanismo politikoak ez aktibatzea. Hona hemen zenbait zati, adibide gisa:

### 12 irudia. Boluntarioen narratiba.



The screenshot shows the website 'bancoalimentosaraba.org'. At the top, there is a dark navigation bar with the phone number '945 213233', the email 'administracion@bancoalimentosaraba.org', and social media icons for Facebook, Twitter, and RSS. Below this is a white header with a logo on the left and a menu with items: 'Inicio', 'Actualidad', 'Quiénes somos', 'Cómo actuamos', and 'Colaboraciones'. The main content area shows a news article snippet with the following text: 'Desde primeras horas de la mañana del viernes, 30 hasta el cierre en la noche del sábado 1 de diciembre miles de personas, clientes de los supermercados alaveses, se encontraron a unos personajes que, con la sonrisa en los labios y una octavilla en la mano, les pedían una ayuda a favor de esta organización que luchan contra el hambre en la sociedad. En sus petos azules destacaban las palabras Voluntario/Bolondresa y su cometido era animar, explicar ... y recoger la ayuda que la ciudadanía les entregaba.'

Iturria: [bancoalimentosaraba.org](http://bancoalimentosaraba.org)

Interesgarria da ikustea nola diskurtso horrek garrantzi handiagoa hartzen duen eta maizago agertzen den data berezietan, hala nola gabonetan; etxerik gabeko pertsoneri edo baliabide gutxiko pertsoneri janaria edo

opariak banatzeko albisteak ugarituz, baina hori ez da gertatzen pertsonen beste premia eremu batzuekin (adibidez, etxebizitza izateko eskubidearekin).

## 13 irudia. Boluntarioen narratiba.

No somos conscientes hasta que no nos encontramos en la situación. Hay gente que estas Navidades no podrá compartir mesa con sus familiares, acostarse en una cama o dejar regalos bajo el árbol. Hay miles de personas que acuden a comedores sociales y está en nuestras manos que pueda alimentarse mucha más gente. Ahora es el momento de ser más solidarios, donar la ropa que no usamos y un poco de la comida que podemos permitirnos, para que otros cubran sus necesidades básicas y su Navidad no sea tan difícil. Que la Navidad nos haga mucho más solidarios, mucho más humanos, mucho más valientes. — Mireia Ballester. Gavá (Barcelona).

Iturria: elpais.com

Azkenik, diskurtso horren muin arriskutsua aipatu behar da. Prentsak, askotan, boluntarioen irudia botere lekuan jartzen du; izan ere, boluntariotzak egiten dituztenek baliabide eta informazio gehiago izaten dute, ustez laguntzen dieten pertsonen bano. Hori dela-eta, askotan, euren buruei erabakitzeko ahalmena ematen diote beste batzuen orde; horrela indartu egiten da “karitatezko laguntzaren” ideia, eta ez parte-hartze aktibo edo eskubidezkoa.

## 14 irudia. Boluntarioen narratiba

compañeros. «Mi única obligación es ir a por mi nieto a las 7 de la mañana. Pero, ¿qué hago a las 9? Además, a mí esto me llena en lo personal. ¿Tú sabes lo que significa para una mujer con una pensión de 400 euros y un hijo, que no tiene ayudas, recibir un lote de comida? ¿Lo gratificante que es? A menudo es la diferencia entre irse a la cama de vacío o con algo caliente en el estómago», relata sereno, con la mirada de quien ha sido testigo de muchos naufragios. «En serio, siempre digo que yo recibo mucho más de lo que doy». Antonio es de la misma opinión.

Iturria: elcorreo.com/bizkaia/

## #XAHUTZEAREN AURKAKO DISKURTSOA:

Ikuspegi horren arabera, elikagaiak ematea da klima aldaketaren konponbidearen erdigunea, eta, gainera, kontsumorako egokiak ez diren elikagaiak edo iraungitze datatik hurbil daudenak, elikagai pobrezia-aren arazoaren konponbidetzat ere hartzen dira. Diskurtso horiek argi uzten dute, alde batetik, nekazaritzako elikagaien sistema globalizatuak berak hondakinak alferrik galtzea sustatzen duela, ingurumenari kalte eginez, eta, bestetik, elikagaiak elikadura irizpiderik gabe ematen direla.

### - “Ingurumenaren alde”:

Alferrik galtzearen aurkako eta “ingurumenaren aldeko” diskurtsoan bi ideia elkartzen dira: bata, elikagaiak alferrik galtzearen ingurumen ondorioak; bestea, hori gertatzen den bitartean, milioika pertsonak gosea jasaten dutela.

Elikagaiak alferrik galtzeak ingurumena hondatzen laguntzen duela azpimarratzen da.

15 irudia. Xahuketaren aurkako narrazioa

Agenda | GIPUZKOA | Sozialek

La Diputación colaborará con el Banco de Alimentos de Gipuzkoa para combatir el despilfarro alimentario

Por Redactor - 20 marzo 2019



Iturria: Bizkaiko Elikagaien Bankua. [www.bancali-biz.org](http://www.bancali-biz.org)

Aztertutako hurrengo zatietan ikusten dugunez, narra-tiba hori administrazioen eta erakundeen arteko hitzar-menei buruzko albisteetan irudikatzen da maiz, eta hit-zarmen horietan arreta elikagaien xahubidean jartzen da.

16 irudia. Xahuketaren aurkako narrazioa



### SÚMATE Y LEVANTA LA MANO CONTRA EL DESPERDICIO

Nos encontramos en plena Semana contra el Desperdicio Alimentario (del 25 de septiembre al 1 de octubre).

El primer Banco de Alimentos surgió en el año 1957 en EE.UU. en Phoenix (Arizona). Tantos años después, los Bancos de Alimentos seguimos reaprovechando alimentos en beneficio de las personas más vulnerables y con la vocación de generar un alto impacto social y medioambiental, que es, a su vez, un aporte relevante en la lucha contra el desperdicio alimentario.

En esta Semana contra el Desperdicio Alimentario, nos unimos a esta **campaña** como uno de los principales motores de la lucha contra el desperdicio.

Porque los Bancos de Alimentos somos un **equipo de voluntarios profesional y responsable** en la lucha contra la pobreza que, ante la llegada de nuevas necesidades y un nuevo contexto regulatorio, mantenemos nuestro compromiso y "Levantamos la mano contra el desperdicio".

Iturria: [gipuzkoagaur.com](http://gipuzkoagaur.com)

## - "Win-Win":

Ildo horretan daude "Win-Win" diskurtsoak: alde guz-tiek irabazten dute. Jende pobrearentzako soberakinak. Bi aldeek irabazten dutenaren ideian oinarritzen da hori. (gosea duten pertsonak eta janaria botatzen dutenek)

En lo que respecta a la distribución, los supermercados y plataformas logísticas tienen excedentes. Acumulan productos cercanos a la fecha de caducidad, reciben alimentos en mal estado o simplemente descartan todo aquello que no cumpla con sus requisitos de producto de "calidad".

No obstante, desde hace unos cuantos años en Euskadi muchos de estos excedentes ya no acaban en los contenedores sino en bocas de personas muy necesitadas, a través de los Bancos de Alimentos, Caritas, etc.

Iturria: Eldiario.es

## Los Bancos de Alimentos como respuesta al despilfarro de comida

A causa de la crisis los Bancos de Alimentos se conocen por su labor de reparto a los más necesitados, pero su primer propósito era evitar el despilfarro de comida.

En algunos países existen empresas que cobran por recoger los alimentos que los supermercados van a tirar, pero aquí "ni se lo plantean".



PUBLICIDAD

Iturria: Eldiario.es

Hemen ez dira kontuan hartzen aintzat ez pertsonen nutrizio beharrak, ez balio kulturalak, ezta osasuna edo gaixotasunak ere.

Administrazio publikoetatik ikusten dugu ideia horrek hainbat hitzarmen sustatzen dituela, bai eta elikagai soberakinak emateko praktika egokietarako gidak egitea ere. Hala, Eusko Jaurlaritzak materiala argitaratu zuen 2023an, dohaintzetarako jarraibideak emanez eta janari hondakinak murrizteko duten garrantzia azpimarratuz.

Eusko Jaurlaritzaz gain, beste erakunde batzuek ere, hala nola OREKAK, bat egin dute narratiba horrekin, eta gako-hitzak ere gehitu dituzte, hala nola trazabilitatea eta berrikuntza, pobrezia egoeran dauden pertsonen artean jatetxeetako soberakinak banatzea bezalako praktika sinple bati maila handiagoa emateko.

## 19 irudia. Xahuketaren aurkako narrazioa.

El **desperdicio de alimentos** es inaceptable en un mundo donde una de cada diez personas se duerme con hambre todos los días, además de una carga para el medio ambiente y el clima. Reducir la pérdida y el desperdicio de alimentos requiere un cambio sistémico en todos nuestros sistemas alimentarios.

La ONU, dentro de sus Objetivos de Desarrollo Sostenible (Objetivo 12.3), se ha propuesto "reducir a la mitad el desperdicio de alimentos por habitante correspondiente a los niveles de la venta al por menor y el consumidor y reducir la pérdida de alimentos a lo largo de las cadenas de producción y suministro" para el año 2030. También la Unión Europea está tomando medidas en el marco de nuestra Estrategia de la granja a la mesa para un sistema alimentario justo, saludable y respetuoso con el medio ambiente.

El Gobierno Vasco se ha sumado al Objetivo ya a través de la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria y coordinado por ELIKA Fundazioa, ha puesto en marcha un Plan de actuaciones contra el Despilfarro de Alimentos, con el fin de dar respuesta al doble reto de reducir a la mitad el desperdicio de alimentos por habitante en los niveles de venta al por menor y personas consumidoras y reducir la pérdida de alimentos a lo largo de toda la cadena de producción y distribución, alineándose de esta manera con los ODS.

El Grupo de Trabajo para la Donación de Alimentos, en el que han colaborado el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, los Servicios de Salud de las tres capitales vascas, y empresas del sector alimentario como Ausolan, Oreka y Amatemann SL, han elaborado una «Guía orientativa para la donación de excedentes alimentarios en Euskadi».

En este ámbito, en Euskadi se han identificado varias casuísticas en la donación de excedentes alimentarios que han sido estudiadas y valoradas por el GT. La Guía pretende ser una herramienta de orientación para que los excedentes alimentarios que no han podido ser evitados y que siguen siendo perfectamente consumibles puedan llegar, principalmente a través de las entidades sociales, a las personas beneficiarias.

Iturria: uik.eus

## 20 irudia. Xahuketaren aurkako narrazioa.

Jose Maria Escudero, de la Subdirección de Salud Pública y Adicciones de Bizkaia-Gobierno Vasco, en su intervención sobre "Requisitos higiénico-sanitarios en la donación de excedentes alimentarios. Guía para la donación" destaca, entre otras cosas, el origen de excedentes en Euskadi. Para ello nos muestra los datos extraídos de la FAO: Hogares 51%, Restauración 17%, Producción 13%, Transformación 12% y Distribución 5%. En este sentido, dice que "son imprescindibles estrategias dirigidas a la persona consumidora". Respecto a la guía, descargable en [www.zerodespifarro.eus](http://www.zerodespifarro.eus), menciona que fue publicada en diciembre de 2020, con la coordinación/edición de Elika, y que se realizó desde la óptica de la higiene y de la seguridad alimentaria.

Denis Ugalde, Fundador y CEO de OREKA, nos habla sobre la "Redistribución de excedentes alimentarios desde las cocinas centrales y comedores colectivos": "Nos traslada el mensaje de que en OREKA han desarrollado una solución de extremo a extremo, es decir, están aunando esa falta de alimentos en casas y el desperdicio alimentario de una manera simple, segura y rentable. Para hacer posible todo ello, ofrecen tecnología, es decir, monitorizan el proceso. Incide en el aspecto de la seguridad, en palabras de Denis "es el eje vertebral" y se materializa en segmentos tales como: transporte adaptado, auditorías en destino, trazabilidad en tiempo real, test aleatorios y responsabilidad limitada. Cierra su intervención destacando la labor que desempeñan: "dar una solución sencilla a un problema complicado" y haciendo mención al Proyecto de Ley de Prevención de las Pérdidas y el Desperdicio Alimentario que entrará en vigor, lo más seguro, el 1 de enero de 2022. Dicha ley implicará a toda la cadena alimentaria y obligará a las colectividades.

Elena Cereda, del Proyecto Buruxka, versa sobre la "Recuperación del espigamiento como valor social y ambiental". El proyecto nace con el objetivo de reducir el impacto social y ambiental derivado de las pérdidas de alimentos en el ámbito agrario y generar un movimiento social en torno al desperdicio alimentario. Explica que se trata de un proyecto de colaboración a varios niveles, situado en el Valle de Yeri, y que su duración expira en diciembre de 2021. Respecto a los espigamientos, nos dice que consisten en la recogida de los alimentos que quedan en el campo tras la cosecha y que no se destinan a la venta. Finalmente, nos habla sobre el futuro de Buruxka, incidiendo en la idea de la creación de una entidad de economía social y solidaria para dar continuidad y forma a todo lo creado entre junio de 2020 y diciembre de 2021 y frenar la despoblación creciente.

Iturria: [www.donostiasustainabilityforum.eus](http://www.donostiasustainabilityforum.eus)

## #PROPAGANDA SOLIDARIOA:

**Marketin solidarioa** diskurtsoaren eraikuntzaren parte bat da. Alde horretatik, hainbat eragile ditugu. Batetik, diskurtso solidarioarekin bat egiten duten eta Erantzukizun Sozial Korporatiboaren laukitxoak betetzen dituzten enpresak eta korporazio handiak daude, eta, bestetik, ikusgarritasun publikoa duten pertsonak (pertsona ospetsuak), kanpaina edo erakunde jakin batzuek babesten dituztenak, asistentzialismoaren diskurtso kritikorik gabe, eta, hartara, hura indartzen laguntzen dutenak.

Aurreko puntuetan bezala, kontua ez da kanpaina edo ekimen horietan parte hartzen duten pertsonen borondateak zalantzan jartzea, baina adierazi behar da, ekintza zehatzaz gain, ikuspegi kritikoa partekatzeko (ez

dakigu halakorik duten) euren ikusgarritasuna erabiltzen ez duten neurrian, arazoaren zati bihurtzen direla.

Hala, horrelako kanpainetan, Mercadonan, esaterako, salaketa ugari daude gehiegizko lan jardunengatik edo genero bereizkeriagatik, eta nekazaritzako elikagaien sistemaren parte dira, eta horrek ekoizpen txikia eta kanal laburrak suntsitu egiten ditu; edo energia merkaturatzen/hornitzen duten enpresa ezagun batzuk, ziur asko, elikagai bankuei dohaintzak egiten dizkieten bitartean, jakinarazpenak bidaltzen ari dira energia pobrezian dauden pertsoneri, haien energia hornidura eteteko.

21 irudia. Mercadonaren gaineko artikulua-ren zatia, El Salto-n

A pesar de que “las malas prácticas laborales forman parte del ADN de la empresa”, según comentan desde CGT Bizkaia, y los casos de acoso sexual (en Valencia durante el año 2015), la represión sindical (en 2013, Francisco Enríquez, empleado en Málaga, fue despedido de la empresa por formar parte de la CGT), o abuso laboral (tres casos en Fraga durante el año 2013) son una constante en los últimos años, pocos son los que acaban teniendo un recorrido mediático que llega a la sociedad. Este silenciamiento se debe al miedo a las posibles represalias que la empresa pueda tener con trabajadores y extrabajadores y, además, con la cláusula de confiabilidad que la

Iturria: El Salto. [elsaltodiario.com/explotacion-laboral/mercadona-somete-trabajadores-silencio-sumision-sectarismo](http://elsaltodiario.com/explotacion-laboral/mercadona-somete-trabajadores-silencio-sumision-sectarismo)

## **-Karitate korporatiboa:**

Diskurtso askotan ikusten da supermerkatuek kudeatu beharko lituzketen soberakinak elikagaiak banatzeko entitateei ematen zaizkiela. Ekintza horiek, gainera, ingurumen irtenbide gisa saltzen dira batzuetan. Hona hemen Mercadonaren edo Nortegasen adibideak.

## 22 irudia. Propaganda solidarioaren narrazioa

Europa Press País Vasco

Publicado: viernes, 18 agosto 2023 11:07  
@epreuskadi



La compañía entregó las donaciones a los Bancos de Alimentos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa

BILBAO, 18 Ago. (EUROPA PRESS) - Mercadona ha donado en el primer semestre del año más de 300 toneladas de productos de primera necesidad en Euskadi a los Bancos de Alimentos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que son las entidades con las que colabora en esta comunidad autónoma.

Argentinan eta Brasilen aztertutako esperientzien eta Euskal Herriko errealitatearen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak bistakoak bezain nabarmenak dira. Ez bakarrik toki batean modu batzuk bultzatzen dituen eta bestean zailtzen dituen konfigurazio politikoaren aldetik, baita herritarren eta nekazarien mugimenduaren gizarte antolaketaren aldetik ere. Hori dela eta, ezin genuen azterketa hau amaitu bi lurraldeen arteko konparazio txiki bat egin gabe eta gure lurraldearentzat identifikatu genituen erronka nagusiak partekatuz.

Taula honetan, modu eskematikoan azaldu nahi ditugu identifikatu ditugun giltzarri nagusiak, baliagarri izan zaizkigunak eta etorkizunean baliagarri izango zaizkigunak *hegoaldeko betaurrekoekin* jarduteko gure lurraldean ditugun erronkei, pertsona guztien elikadura eta nutrizio eskubidea eskubide eraginkor gisa eraikitzen aurrera egiteko:

13 taula. Hegoalde Globalaren eta Euskadiren arteko gizarte eta elikadura politiken konparazioa

| <b>GIZARTE ETA ELIKADURA POLITIKEN EGOERAREN KONPARAZIOA</b>                                                           |                                                                                                                                                                                           |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>HEGOALDE GLOBALA</b>                                                                                                | <b>EAE</b>                                                                                                                                                                                |
| <b>Erakundeen gizarte babeserako sistema ahuldua eta, batez ere hirietan kokatutakoa</b>                               | Gizarte babes publikoko sistema sendoa eta lurralde osoan ezarria.                                                                                                                        |
| <b>Gizarte mugimenduek gizarte babeseko sisteman parte hartzen dute</b>                                                | Gizarte babeseko sistema, esku-hartze sozial profesionalizatuko Hirugarren Sektoreak kudeatua                                                                                             |
| <b>Agronegozoiari lotutako elikadura prestazioak, baina nekazari txikien ekoizpena ere oinarritzko saskian dagoela</b> | Agronegozoiari lotutako elikadura prestazioak, nekazari txikien bat ere produkturik gabe                                                                                                  |
| <b>Nekazarien eta indigenen familia nekazaritza sustatzeko politika publikoak</b>                                      | Ez zaio bultzada politiko publikorik eman lurrari lotutako nekazaritzari                                                                                                                  |
| <b>Nekazarien mugimendua, askotarikoa eta zeharkakoa</b>                                                               | Nekazaritzako sindikalismoa eta tokian tokiko ekimen agroekologikoak                                                                                                                      |
| <b>Nekazaritza politika publikoak, nekazaritzari indarra ematen diotenak</b>                                           | Nekazaritza politika publikoak, agronegozoiari indarra ematen diotenak                                                                                                                    |
| <b>Kohesio komunitario handia eta herritarren erantzun kolektiboa, egoera ahuletan.</b>                                | Garapen komunitarioaren maila txikia eta dauden egoera ahulen aurrean erakundeen esku dago erantzuna.                                                                                     |
| <b>Ekonomia herrikoiaeren proiektuetarako berariazko erregulazioa, ekimen sozial eta herriko ugari abiarazteko.</b>    | Erregulazio murriztailea eta ez oso malgua izateak mugatu egiten du ekonomia sozial eta solidarioaren garapena, baita izaera komunitarioko proiektuak eta autoenplegurako proiektuak ere. |

Iturria: Geuk egina

Hortik abiatuta, EAEko pertsona guztien eskubide eraginkor gisa elikadura eta nutrizio eskubide egokia garatzen hasteko beharrezkotzat jotzen ditugun erronka batzuk aipatuko ditugu:

## **1. erronka. Elikadurarako eskubideari buruzko eztabaida eremu publikora bideratzea**

Elikadura zeharkako elementua da pertsona eta kultura guztientzat. Elkartzeko, partekatzeko eta sozializatzeko gunea da. Janariak batzen gaituela esan ohi da. Hala ere, une honetan, gizartean, diskurtso mailan, ez dugu jakiten desberdintzen jatea eta elikatzea; ezta gosea asetzea nutrizioa jasotzetik ere. Elikadura osasungarria, kalitatezkoa eta nahikoa izatea, pertsona bakoitzaren erosteko ahalmenaren mende dago.

Osasunari dagokionez, azken bi hamarkadetan elikadura ohituretan eta dietetan izandako aldaketen ondorioak pairatzen ari gara; maila eskaseko nutrizioaren eraginez sortutako gaixotasun kronikoak biderkatu egin dira. Osasun arloko profesionalak argi eta garbi identifikatzen dituzte gaixotzen gaituzten faktore eta produktuak. Hala ere, ez dago gaur egungo elikadura sistema industrializatua aldatu edo arautuko duen elikadurarako ekintza politikorik.

Eremu publikoko esku-hartzeekin jarraituz, jantoki kolektiboetako elikaduraren kalitatea (ospitaleak, eskolak, jantoki sozialak, enpresak, espetxeak, etab.) eztabaida eta kezka iturri etengabea da, azken hamarkadetan modu izugarrian devaluatu baita. Zaborra eman digute eta ematen digute jaten. Eta guztiok ordaindu dugu,

zuzenean poltsikotik edo zergen bidez: haurrei, eskole-tako umeei, ospitaleetako gaixoei, eta abar.

Anbizio handikoa izan daiteke gizarte osoa elikadura arloan politizatzea planteatzen dugun ikuspegitik; hala ere, gure elikadura sistema errotik aldatu nahi badugu, hori bultzatuko duen gihar soziala behar dugu. Horretarako, hainbat gizarte eragile, mugimendu, elkarte eta erakunde ditugu, tokikoak, eskualdekoak, herrialde mailakoak eta nazio mailakoak, urte asko daramatzatenak elikaduraren gaiari hainbat ikuspuntutatik heltzen: ekoizpena, eraldaketa, politika publikoak, sentsibilizazioa, jantoki kolektibo eta sozialak, etab.

Elkartzeko eta diskurtso eta praktikak eraikitzeko espazioak erreskatatu eta berriro artikulatu behar ditugu, non lurrari lotutako nekazaritzako ekoizpenetik elikadurarako eskubidea zelan ase pentsatuko den, hori baita lurralde osoan eragin soziala eta politikoa izateko oinarria.

## **2. erronka. Nekazaritza eta elikadura politika publikoak garatzea, agroekologiaren eta elikadura burujabetzaren ikuspegitik**

Erakunde publikoek ez dituzte soilik gure lurraldean garatzen diren gizarte eta elikadura politikak diseinatzeko, arautzeko eta aurrekontu gaitasuna ematen. Beren ekintzarekin, zer egiten den, nork egiten duen, baldintzatu egiten dute. Alde horretatik, esan dezakegu politika publikoak ez direla neutralak.

Elikaduraren ikuspegitik, neutraltasun ezaren emaitza orain ikus dezakegu: nekazaritzako industriak biltzen ditu gizarte zerbitzuen zorroan ageri diren baliabideetan

eskaintzen diren elikagai zerbitzu gehienak. Prezioaren faktorea, hau da, merkeena izatea, kalitatezko elikadura eta nutriziorako eskubidearen gaintik ezartzen da; elikadura egokia, nahikoa eta kulturalki egokia izatearen gaintik. Gauza bera gertatzen da esternalizatutako zerbitzu horietako profesionalen lan baldintzekin.

Baliabide publikoak egoki eta zentzuz erabiltzeko beharri buruzko diskurtso politikoa ulertzen dugu; hala ere, ezarritako politiken emaitzak ez badu eragin positiborik, ez haiek ezartzen dituzten profesionalen baldintzetan, ezta zerbitzua jasotzen duten pertsonen eta horiek garatzen diren komunitatearen kalitatean ere, ez da onurarik; beraz, eredu aldatu beharra dago.

Gizarte eta elikadura politiken diseinua eta inplementazioa agroekologiaren ikuspegitik egiteak honako onurak ekarriko ditu, besteak beste:

- Lehen sektorea indartzea, tokiko produkzio dibertsifikatua bultzatuz.
- Tokiko ekonomia indartzea, hurbileko eragileen artean ondasunak eta zerbitzuak gehiago trukatzuz.
- Landaguneetan populazioa finkatzea, zerbitzuak mantentzeko (hezkuntza, osasuna, garraioa, gizarte zerbitzuak, etab.).
- Oro har, biztanleriaren eta, bereziki, gizarte baliabideen erabiltzaileen osasuna hobetzea.
- Kohesio komunitario handiagoa, tokiko eragileek inguruko gizarte baliabideetan duten parte-hartzea handitzean.

Horri aurre egiteko, beharrezkoa da parte hartzen duten eragile guztien arteko elkarrizketa (gizarteko

esku-hartzearen 3. sektorea, tokiko elkarteen sarea eta gizarte mugimenduak) arina, ohikoa eta zuzena izatea, instituzioetako maila guztietan (tokikoan, herrialdeetan eta autonomia erkidego mailan). Era berean, erakunde publikoetan, politikariak eta langile tekniko ausartak behar ditugu, berritzeko eta kudeaketa eredu berriak proposatzeko, errepika daitezkeenak eta beste administrazioentzako inspirazio iturri izango direnak.

### **3. erronka. Agroekologia eta elikadura burujabetza gizarteratzea, esku-hartze sozialeko proiektuen diseinutik abiatuta.**

Esku-hartze sozialeko programa eta proiektu gehienak gizarte zerbitzuen euskal sistema batek finantzatzen ditu. Sistema hori, hobetu daitezkeen arren, punta-puntakoa da beste lurraldeetakoarekin alderatuta, eta, gainera, babes politiko eta instituzional handia du.

Finantziazio publiko horren bidez, elikagaiak modu deszentralizatuan erosten dira, eta, askotan, baliabideak kudeatzen dituzten erakundeek berek erabakitzen dituzte gastu horiek. Maila instituzional desberdineko programak kudeatu aurreko esleipena lehiaketa bidez ematen den arren (prezioaren aldagaiak garrantzi erabakigarria du), 3. sektoreko erakundeek balio kualitatiboko ekarpenak sartu behar dituzte beren baliabideen elikadura eskaintzari dagokionez, ekarpen horiek esku-hartzearen balioa indartzen baitute eta baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen tratu hobea ematen baitiete.

Horrela, bada, erakunde eta baliabide bakoitzak, alde batetik, lan egiten duen pertsonen elikadura eta

nutrizio egokirako eskubidearen aldeko apustua egingo du ezinbestean, eta, bestetik, hurbileko lehen sektoreko eragile eta erakundeekin dituen harreman komunitarioak indartuko ditu.

Hala ere, egoera horretara iristeko, 3. sektoreko erakundeek ikuspegi agroekologikoa sartu behar dute beren programa eta proiektuen diseinuan. Horretarako, beharrezkoa da arlo horretan trebatutako eta sentsibilizatutako profesionalak izatea, edo lehen sektoreko eragileengana jotzea, bide horretan erakundeei aholku eta laguntza eman diezaieten.

#### **4. erronka. Nekazarien kopurua handitzea gure lurraldean.**

Herrialde txikia gara, elikagaien inportazioaren mendeakoa. Elikagaiak (eta ez merkantziak) ekoizten dituzten pertsonak behar ditugu, soroak lantzen, animaliekin lan egiten, modu iraunkorrean arrantzatzen. Nekazaritza eta abeltzaintza zein artisau arrantza ez dira janariz hornitzeko jarduera hutsak, inguruko munduarekin dugun harremana ulertzeko modua ere bada.

Garapenerako tresna bat da, enplegua sortzen duelako eta tokiko ekonomia sustatzen duelako; gizarte kohesiorako tresna ere bada, biztanleria eta zerbitzuak finkatzen dituelako lurraldean; eta klima aldaketaren aurka borrokatzeko tresna da, karbono-emisioak lurzoruan finkatzen eta atxikitzen dituelako, biodibertsitatea eta paisaia zaintzen dituelako, naturaren erritmoekin lan egiten duelako eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzen dituelako.

Pandemiak eta haren konfinamenduak gogor erakutsi zigun gure elikadura sistemaren ahuldadea. Baina, era berean, erakutsi zigun tokian tokiko elkarren zaintza eta laguntza sareak sortzea eta agroekologia mugimenduak sendo mantentzea posible zela, ezarritako oztopo burokratikoak gorabehera, herritarren beharrei erantzuteko.

Hain zuzen ere, politika eta programa sozialen bidez, lan merkatutik kanporatuta dauden eta/edo gizarte egoera ahulean edo bazterrean dauden pertsonen lehen sektorean aukerak ematea posible da. Prestakuntzaren bidez, eta tokiko eta lehen sektore agroekologikoari zuzendutako ekoizpen eta zerbitzu proiektuak bultzatuz, hezkuntzan lagunduz eta gizarteratu eta laneratze-ko ibilbideak diseinatuz, bi helburu lor daitezke: elikagaiak ekoitziko dituzten pertsonen kopurua handitzea, batetik, eta gure gizarteko pertsona ahulenei bizimodu duina eskaintzea, bestetik.

## **5. erronka. Politika publikoetan ikuspegi intersektzionala sartzea.**

Orri hauetan ikusten dugunez, pobrezia egoeran dauden pertsonen artean ez dago homogeneousotasunik. Egoerak askotarikoak dira, eta zeharkatzen dituzten desberdintasun ardatzak ere bai. Ikusi dugu migratzaileak izatea, emakumea izatea, prestakuntza izatea (edo ez) edo hizkuntza bat edo bestea hitz egitea faktore garrantzitsuak direla, bai pertsonak zein egoeratan dauden jakiteko, bai zein laguntza bidetan sar daitezkeen jakiteko. Ikusten dugunez, erakundeak arrazismoak, matxismoak eta klasismoak zeharkatzen dituzte, eta

horrek eragina du horietan lan egiten duten pertsonengan eta abian jartzen diren politika publikoetan.

Erantzunak testuinguruan kokatu eta egokitu behar ditugunez, beharrezkoa da opresio ardatzak agerian utziko dituzten diagnostikoak txertatzea, erantzun eraginkorrek izateko. Horrek esan nahi du, halaber, erakundeari berari eta haren praktikei begiratu behar zaiela, eta zer neurritan ez diren betikotzen edo sakontzen haietara jotzen dutenen behar eta desberdintasun egoerak, konpondu beharrean. Horretarako, beharrezkoa da azterketa, gogoeta, autokritika eta prestakuntza espazioak sortzea, baina, batez ere, ezinbestekoa da borondate politikoa, benetan eraldaketa integrala eta sakona bilatzen duena, ez bakarrik pertsona txirotuen bizitzetan, baizik eta egoera horretara iristeko arrazoietan. Eraldaketa horretarako, pertsona horiek aldaketarako subjektu gisa ikusi behar dira, ez objektu huts gisa, estatistikako zifra gisa edo ebatzi beharreko kasu gisa. Eztabaidetan, espazioetan eta zuzenean eragiten dituen gaitan erabakiak hartzean integratu behar dira. Horrek, aldi berean, iruditeria kolektiboan aldaketa bat eskatzen du, komunikabideek eta gizabanakoek ez diezaieten beren egoeraren errua egotzi beharrak dituzten pertsonei, edo beren bizitzak nolakoak izan behar duten epaitzeko zilegitasuna ez diezaieten eman.

Horiek ez dira, noski, ditugun erronka bakarrak, eta ez daude garrantziaren arabera ordenatuta. Ziur beste asko daudela. Horregatik, Bizilur eta Baladre elkarteetan, ezinbestekoa ikusten dugu espazioak sortzea, irekitzea eta partekatzea, argitalpen honetan planteatzen ditugun gai guztiak eta, jakina, bakoitzak ekartzen dituenak garatzen lagundu nahi duten pertsona eta erakunde guztiekin. Topo egin behar dugu.



# ERREFERENTZIAK





- Ainhoa Carcavilla. (2022ko iraila). *Inseguridad alimentaria: concepto y abordaje*. SIIIS Servicio de Información e Investigación Social-etik aterata: [https://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Inseguridad\\_alimentaria.pdf](https://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Inseguridad_alimentaria.pdf)
- Álvarez, I. (2018). *La salud y la alimentación desde la mirada feminista*. F. E. Agroecología, *Salud y derecho a la alimentación*. Valladolid: Secretaría Técnica de la Red de Ciudades por la Agroecología.
- Álvarez, I., Fidalgo, M., Herrero, R., & Shaw, L. (2020). *¿Qué comen las que malcomen?* Zambra.
- Banco de Alimentos Álava. (2023). *2022ko memoria*. <https://bancoalimentosaraba.org/documentacion-y-publicaciones/>
- Banco de Alimentos Bizkaia. (2023). *2022 urteko memoria*. <https://www.bancali-biz.org/wp-content/uploads/2023/04/MEMORIA-BAB-2022-final.pdf>
- Carvajal, M. C. (Febrero de 2019). *Derecho a la alimentación y Bancos de Alimentos*. [https://www.derechoalimentacion.org/sites/default/files/pdf-materiales/TFM\\_Calder%C3%B3n\\_Carvajal\\_Marta.pdf](https://www.derechoalimentacion.org/sites/default/files/pdf-materiales/TFM_Calder%C3%B3n_Carvajal_Marta.pdf)
- Datos Macro, Expansión. (2023). *Riesgo Pobreza CAPV*. <https://datosmacro.expansion.com/demografia/riesgo-pobreza/espana-comunidades-autonomas/pais-vasco>
- Dirección General de la Industria Alimentaria. (2023). *Informe del Desperdicio Alimentario en España 2022*. Nekazaritza, Arantza eta Eliakdura ministerioa. [https://www.mapa.gob.es/es/alimentacion/temas/desperdicio/20230629-informe-desperdicio-alimentario-2022\\_ok\\_tcm30-655401.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/alimentacion/temas/desperdicio/20230629-informe-desperdicio-alimentario-2022_ok_tcm30-655401.pdf)
- European Anti-Poverty Network (EAPN). (2023). *El Estado de la Pobreza 2023. Primer avance de resultados*. Madrid: EAPN España.

- Eustat. (2023). *Estadística de recursos para personas sin hogar*. [https://www.eustat.eus/elementos/not0019069\\_c.pdf](https://www.eustat.eus/elementos/not0019069_c.pdf)
- Eustat. (2023). *Instituto Vasco de Estadística*. Etxerik gabeko pertsonen estatistika: [https://www.eustat.eus/elementos/not0019069\\_c.pdf](https://www.eustat.eus/elementos/not0019069_c.pdf)
- Eustat, E. E. (26 de 09 de 2023). *ESTADÍSTICA DE RECURSOS PARA PERSONAS SIN HOGAR. 2022*. [https://www.eustat.eus/elem/ele0021200/not0021256\\_c.pdf](https://www.eustat.eus/elem/ele0021200/not0021256_c.pdf)
- Eustat, Instituto Vasco de Estadística. (Octubre de 2023). *Incremento de la población vasca en 2023*. [https://www.eustat.eus/elementos/la-poblacion-vasca-se-incrementa-en-10228-personas-en-2023-despues-de-2-anos-de-descensos/not0021452\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/la-poblacion-vasca-se-incrementa-en-10228-personas-en-2023-despues-de-2-anos-de-descensos/not0021452_c.html)
- FAO. (2023). *El derecho a la alimentación en el mundo*. Konstituzioetan duten aitortzaren bilaketatik aterata: <https://www.fao.org/right-to-food-around-the-globe/level-of-recognition/es/>
- FEGA. (diciembre de 2023). *Ayuda a las personas más desfavorecidas*. <https://www.fega.gob.es/es/ayuda-alimentaria/ayuda-las-personas-mas-desfavorecidas>
- Gobierno Vasco. (6 de Mayo de 2021). *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales CAPV*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe\\_epds\\_2020/es\\_epds2012/data/INFORME-EPDS-2020.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2020/es_epds2012/data/INFORME-EPDS-2020.pdf)
- Gobierno Vasco. (13 de Enero de 2023). *Noticias*. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2023/10-000-personas-situacion-extrema-vulnerabilidad-recibiran-ayuda-urgente-hacer-frente-sus-necesidades-basicas/>
- INE, I. N. (1 de Octubre de 2023). *Estadística Continua de Población (ECP)*. <https://ine.es/daco/daco42/ecp/ecp0323.pdf>
- Instituto Vasco de Estadística. (26 de septiembre de 2023). *Eustat*. [https://www.eustat.eus/elem/ele0010600/tbl0010680\\_c.html](https://www.eustat.eus/elem/ele0010600/tbl0010680_c.html)
- Inza-Bartolomé, A., & Rozas, M. d. (2016). *Caridad frente a la residualización; bancos de alimentos en las ciudades vascas. Respuestas transdisciplinares en una sociedad global: aportaciones desde el Trabajo Social* Ileana. Logroño: Universidad de La Rioja.

- La Vía Campesina. (s.f.). *La Vía Campesina. Movimiento Campesino Internacional*. <https://viacampesina.org/es/>
- Lanbide. (2023ko apirilak 5). *Euskadi.eus*. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2023/las-prestaciones-inclusion-lanbide-alcanzaron-marzo-51-514-titulares-renta-garantia-ingresos-y-20-184-ingreso-minimo-vital/>
- Ministerio de Agricultura, P. y. (2023). *Informe del consumo alimentario en España 2022*. [https://www.mapa.gob.es/es/alimentacion/temas/consumo-tendencias/informe-consumo-2022-baja-res\\_tcm30-655390.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/alimentacion/temas/consumo-tendencias/informe-consumo-2022-baja-res_tcm30-655390.pdf)
- Derecho de Alimentación en España. (2018). *El derecho a la alimentación en España: desafíos y propuestas*. [https://www.derechoalimentacion.org/sites/default/files/pdf-materiales/Derecho\\_alimentacion\\_desafios\\_propuestas\\_COMPLETO.pdf](https://www.derechoalimentacion.org/sites/default/files/pdf-materiales/Derecho_alimentacion_desafios_propuestas_COMPLETO.pdf)
- PNUD, P. p. (1997). *Informe para el Desarrollo Humano*. Mundi -prensa.
- Red Mundial por el Derecho a la Alimentación y la Nutrición. FIAN Internacional. (2023ko urria). Una perspectiva de derechos humanos sobre la ayuda alimentaria corporativa. (I. S. Alianza Mundial de Solidaridad para la Alimentación, Ed.) [https://www.fian.org/files/is/htdocs/wp11102127\\_GNIAANVR7U/www/files/ESP%20layout%20GSA%20%20Rights%20Not%20Charity%20-%20Briefing%20Paper%20FINAL%20\(1\).pdf](https://www.fian.org/files/is/htdocs/wp11102127_GNIAANVR7U/www/files/ESP%20layout%20GSA%20%20Rights%20Not%20Charity%20-%20Briefing%20Paper%20FINAL%20(1).pdf)
- Soberanía Alimentaria. (s.f.). *Soberanía Alimentaria*. <https://soberaniaalimentaria.info>
- Universitat de Barcelona; Fundación Daniel & Nina Carasso. (2022). Alimentando un futuro sostenible. *Estudio sobre la inseguridad alimentaria en los hogares españoles antes y durante la COVID-19*. Barcelona.
- Wikipedia. (s.f.). <https://www.wikipedia.org/>
- Yter, M. (29 de septiembre de 2023). *Desperdicio alimentario*. Ethic: <https://ethic.es/2023/09/desperdicio-alimentario-la-oportunidad-de-los-bancos-de-alimentos/>



# ERANSKINAK



## **ANEXO I**

Aurreko irudian, 2023an Pertsona Behartsuentzako Europako Laguntza Funtzaren (FEAD) Elikadura Laguntzarako Programa Operatiboak 2023an emandako saskian zeuden produktuen argazkiak eta deskribapenak daude. Gainerako produktuak hemen kontsulta daitezke: <https://www.fega.gob.es/es/ayuda-alimentaria/ayuda-las-personas-mas-desfavorecidas>

## I. ERANSKINA

33 irudia. FEAD 2023 saski batzuen adibideak.

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| <p><b>Conserva de sardina en aceite vegetal</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>DORITA</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>IGNACIO GONZÁLEZ<br/>           MONTES, S.A.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Lata de 120 g</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>1.181.399 kg</b> </p> |  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>ISABEL</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>BOLTON FOOD, S.L.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Lata de 120 g</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>390.961 kg</b> </p>                        |
| <p><b>Garbanzos cocidos</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>MOCITOS</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>MARIN MONTEJANO, S.A.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Brik de 560 g</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>2.802.240 Kg</b> </p>                       |  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>PENELAS</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>LEGUMBRES PENELAS S.L.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Tarro de 560 g</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>2.085.958 kg</b> </p>               |
| <p><b>Arroz blanco (Categoría Primera)</b></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>DACSA</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>MAICERIAS ESPAÑOLAS, S.A.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Envase de plástico de 1 kg</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>3.246.359 kg</b> </p>        |  <p>           Marca Comercial:<br/> <b>SIGNO</b><br/>           Fabricante:<br/> <b>ARROCES Y CEREALES, S.A.U.</b><br/>           Presentación:<br/> <b>Envase de plástico de 1 kg</b><br/>           Cantidad:<br/> <b>3.230.580 kg</b> </p> |

Iturria: FEGA. <https://www.fega.gob.es/>

Aurreko irudian, 2023an Pertsona Behartsuentzako Europako Laguntza Funtsaren (FEAD) Elikadura Laguntzarako Programa Operatiboak 2023an emandako saskian zeuden produktuen argazkiak eta deskribapenak daude. Gainerako produktuak hemen kontsulta daitezke: <https://www.fega.gob.es/es/ayuda-alimentaria/ayuda-las-personas-mas-desfavorecidas>

## II. ERANSKINA

### 36 irudia. IMV Zenbatekoak 2023

| Cuantías de la renta garantizada en 2023. Unidad no monoparental |             |             |
|------------------------------------------------------------------|-------------|-------------|
| Unidad de convivencia                                            | Euros / año | Euros / mes |
| Un adulto                                                        | 6.784,44    | 565,37      |
| Un adulto y un menor                                             | 8.819,88    | 734,99      |
| Un adulto y dos menores                                          | 10.855,20   | 904,60      |
| Un adulto y tres menores                                         | 12.890,52   | 1.074,21    |
| Un adulto y más de tres menores                                  | 14.925,96   | 1.243,83    |
| Dos adultos                                                      | 8.819,88    | 734,99      |
| Dos adultos y un menor                                           | 10.855,20   | 904,60      |
| Dos adultos y dos menores                                        | 12.890,52   | 1.074,21    |
| Dos adultos y más de dos menores                                 | 14.925,96   | 1.243,83    |
| Tres adultos                                                     | 10.855,20   | 904,60      |
| Tres adultos y un menor                                          | 12.890,52   | 1.074,21    |
| Tres adultos y más de dos menores                                | 14.925,96   | 1.243,83    |
| Cuatro adultos                                                   | 12.890,52   | 1.074,21    |
| Cuatro adultos y un menor                                        | 14.925,96   | 1.243,83    |
| Otros                                                            | 14.925,96   | 1.243,83    |
| Cuantías de la renta garantizada en 2023. Unidad monoparental    |             |             |
| Unidad de convivencia                                            | Euros / año | Euros / mes |
| Un adulto y un menor                                             | 10.312,44   | 859,37      |
| Un adulto y dos menores                                          | 12.347,76   | 1.028,90    |
| Un adulto y tres menores                                         | 14.383,20   | 1.198,60    |
| Un adulto y cuatro o más menores                                 | 16.418,52   | 1.368,21    |

Iturria: Gizarte Segurantzza. <https://revista.seg-social.es>

37 irudia. IMV 2024

| <b>RENTA GARANTIZADA 2024</b> |                                  |                                         |                                         |
|-------------------------------|----------------------------------|-----------------------------------------|-----------------------------------------|
| <b>Número de personas</b>     |                                  | <b>Escala de incrementos</b>            | <b>Renta Garantizada Ejercicio 2024</b> |
| 1                             | Un adulto solo                   | <b>7.250,60 €</b>                       | 7.250,52                                |
|                               |                                  | (renta garantizada para un adulto sólo) |                                         |
| 2                             | Un adulto y un menor             | 1,3                                     | 9.425,76                                |
| 3                             | Un adulto y dos menores          | 1,6                                     | 11.600,88                               |
| 4                             | Un adulto y tres menores         | 1,9                                     | 13.776,12                               |
| 5 o más                       | Un adulto y cuatro o más menores | 2,2                                     | 15.951,24                               |
| 2                             | Dos adultos                      | 1,3                                     | 9.425,76                                |
| 3                             | Dos adultos y un menor           | 1,6                                     | 11.600,88                               |
| 4                             | Dos adultos y dos menores        | 1,9                                     | 13.776,12                               |
| 5 o más                       | Dos adultos y tres o más menores | 2,2                                     | 15.951,24                               |
| 3                             | Tres adultos                     | 1,6                                     | 11.600,88                               |
| 4                             | Tres adultos y un menor          | 1,9                                     | 13.776,12                               |
| 5 o más                       | Tres adultos y dos o más menores | 2,2                                     | 15.951,24                               |
| 4                             | Cuatro adultos                   | 1,9                                     | 13.776,12                               |
| 5 o más                       | Cuatro adultos y un menor        | 2,2                                     | 15.951,24                               |
| 5 o más                       | Otros                            | 2,2                                     | 15.951,24                               |

Iturria: Gizarte Segurantzak. <https://revista.seg-social.es/-/novedades-del-imv-2024>

### III. ERANSKINA

38 irudia. Diru-sarrerak bermatzeko errenta (RGI): Zenbatekoa.

## Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE). Laguntzaren zenbatekoa

|                                                                               |
|-------------------------------------------------------------------------------|
| 800,13 euro hilean pertsona bakar batentzat                                   |
| 1.066,84 euro hilean 2 pertsona heldurentzat                                  |
| 1.093,51 euro hilean 2 pertsonarentzat (heldu bat eta adingabe bat)           |
| 1.226,86 euro hilean 3 pertsonarentzat (3 heldu edo 2 heldu eta adingabe bat) |
| 1.253,53 euro hilean 3 pertsonarentzat (1 heldu eta 3 adingabe)               |
| 1.386,89 euro hilean 4 pertsonarentzat (4 heldu edo 2 heldu eta 2 adingabe)   |
| 1.413,56 euro hilean 4 pertsonarentzat (1 heldu eta 3 adingabe)               |
| 1.546,91 euro hilean 5 pertsonarentzat (2 heldu eta 3 adingabe)               |
| 1.680,27 euro hilean 5 pertsonarentzat (1 heldu eta 4 adingabe)               |

Iturria: Erletxea. <https://www.erletxea.org/es/tabla#rgi>

## IV. ERANSKINA. ARAUDIAK:

### Europar Batasuna:

- a. 178/2002 (EE) Erregelamendua: EBko elikagai lege-riaren printzipio eta betekizun orokorrak ezartzen ditu, kontsumitzaileen osasuna eta interesak ahalik eta gehien babesteko.
- b. Europa 2020 Estrategia. Hortik sortzen da FEAD.
- c. Batzordearen 1255/2014 (EB) Erregelamendu De-  
legatua, 2014ko uztailaren 17koa, Europako Par-  
lamentuaren eta Kontseiluaren 223/2014 (EB)  
Erregelamendua osatzen duena, pertsona be-  
hartsuenentzako Europako Laguntza Funtsari  
buruzkoa, urteko betearazpen txostenen eta azken  
betearazpen txostenaren edukia ezarriz, adierazle  
komunen zerrenda barne.
- d. Europako Batzordearen Erabakia, 2014ko abendua-  
ren 17koa, Pertsona behartsuenentzako Europako  
Laguntza Funtsaren elikadura gabeziaren Espai-  
niako programa eragilea onartzen duena (CCI 2014  
ES05FMOP001).
- e. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren  
2020/2221 (EB) Erregelamendua, 2020ko abendua-  
ren 23koa, 1303/2013 (EB) Erregelamendua aldatzen  
duena, baliabide gehigarriei eta betearazpen xeda-  
penei dagokienez, COVID-19 pandemiaren testuin-  
guruan krisia konpontzen laguntzeko eta haren  
ondorio sozialetarako laguntza emateko (ILACT) eta  
REACT DIGITAL bat prestatzeko.
- f. FSE+ 2021-2027 Estrategia Dokumentua: “Egoera  
ahulenean dauden pertsonen janarien bidezko edo  
oinarrizko laguntza materiala zuzentzea, neurri la-  
gungarrien bidez, besteak beste”.

## Espainiako estatua:

- a. Elikagaien Galerak eta Hondakinak Prebenitzeko Lege Proiektua. Ez da onartu, azken hauteskunde deialdiaren ondoren haren onspena bertan behera geratu baitzen. Gaur egun (2024ko urtarrila) berriro ekin zaio prozesu horri.
- b. *FEAD 2014-2020*<sup>17</sup>. 2024ko apirilean amaituko da. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren urriaren 15eko AAA/2205/2015 Agindua<sup>18</sup>, banaketa erakunde elkartuei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira bertan, Pertsona behartsuenentzako Europako Laguntza Funtsaren Programa Operatiboaren barruan elikagaiak banatzeko, garraiatzeko eta biltegitratzeko administrazio gastuak ordaintzeko.
- c. 17/2011 Legea, uztailaren 5koa, Elikagaien Segurtasunari buruzkoa: Lege horrek Espainian elikagaien segurtasuna eta nutrizioa bermatzeko oinarriak eta printzipioak ezartzen ditu, malnutrizioari aurrea hartzea eta egoera ahulean dauden pertsonen eskubideak babestea barne.
- d. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzkoa: Lege horren arabera, autonomia pertsonala eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta sustatzeko prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea dago, oinarrizko beharrak asetzea barne, tartean, elikadura.

.....  
<sup>17</sup> 2023ko abenduaren 31n amaitu da bere exekuzioa, eta horrela programa honi dagokion elikagaien banaketaren azken fasea 2024ko apirilean amaituko da; hor emango da bukatutzat Programa. BOE-A-2024-1309

<sup>18</sup> 2023ko abenduaren 31n amaitu da bere exekuzioa, eta horrela programa honi dagokion elikagaien banaketaren azken fasea 2024ko apirilean amaituko da; hor emango da bukatutzat Programa. BOE-A-2024-1309

- e. Elikatzeko txekoa, 200 eurokoa; Gizarte Eskubideen Estatua, urteko 27.000 eurotik beherako errentetarako 200 euroko laguntza onartu duena (eta 75.000 eurotik beherako ondarea duena). Ogasun Ministerioak 200 euroko ordainketa bakarra aurreikusten zuen, zazpi milioi pertsonara iritsiko zena. EAEn, funts hori foru ogasunek kudeatzen dute.
- f. 2023ko Plan Eragilea, pobrezia eta gizarte bazterketaren aurkako prebentzio eta borrokarako es-tatu mailako estrategia garatzeko (2019-2023).

### **EAE – Euskal Autonomia Erkidegoa**

- a. 17/2012 Legea, abenduaren 27koa, EAEn elikadur-a egokirako eskubidea bermatzeko. Lege horrek beharrezko mekanismoak ezartzen ditu pertsona guztiek, bereziki ahulenek, elikadura egokia izateko aukera izan dezaten.
- b. Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Diru sarrerak Ber-matzeko eta Gizarteratzeko Legea
- c. 200 euroko txekoa EAEn. EAEn lurreratuta: Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuaren 90/2023 Foru Agindua, otsailaren 10ekoa. Diru sar-rera eta ondare gutxiko pertsona fisikoei laguntza eskatzeko prozedura onartzea, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta Pal-ma uhartea berreraikitzen eta beste zaurgarritasun egoera batzuetan laguntzeko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa.
- d. GLL (AES): 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, gizar-te larrialdietarako laguntzei buruzkoa. 2011ko otsai-laren 9ko EHAA, 27. zk.
  - i. 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte larrialdietarako laguntzen dekretua aldatzen duena. EHAA 16 zk., 2017ko urtarrilaren 24koa.

- ii. 85/2018 Dekretua, ekainaren 5koa, gizarte larrialdietarako laguntzen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena. 110. EHAA, 2018ko ekainaren 6koa. Eusko Jaurlaritzak elikadura aurreikusten du.
- e. 2023ko Gizarte prestazio eta zerbitzuen katalogo edo zorroari dagokion Dekretua. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- f. Euskal Autonomia Erkidegoan egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko 2023 programa. Lehen, oinarrizko elikagaien bermearen eskumena Estatua- ren esku zegoen, eta orain autonomia erkidegoetara pasatuko da. DBErekin (RGI) estalita dagoela ulertzen da, baina kasu batzuetan ez. Gurutze Gorria 2.500.000 euroekin finantzatu dute EAE osoan txanpon txartel-ekin esperientzia pilotua egiteko.
- g. Hitzartuz programa, 2023: Hitzartuz-en muturre-ko zaugarritasun egoeran dauden pertsonen eta familien oinarrizko beharrei presazko arreta ema- teko programa (Gurutze Gorria). 2023an sortu zen. Horretarako, 2,5 milioi euro erabili dira Hitzartuz programaren barruan. Euskadiko Gurutze Gorria arduratuko da, urtarrilaren 1etik aurrera, lurralde or- dezkaritzen bidez, haien eskaera, balorazioa eta tra- mitazioa koordinatzeaz.
- h. Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2008 Gizarte Zer- bitzuen Legea.
- i. 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Diru sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari buruzkoa.
- j. 474/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, Esta- tuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkiona, espetxeen arloko Estatuko legeria betearazteari buruzkoa.

k. 2022-2026 Gizarteratzeko Euskal Plana (Eusko Jaur-laritz, 2023).

### **Udallerriak eta aldundiak**

- a. Berariazko pobrezia planak.
- b. Gizarte zerbitzuen laguntza ekonomikoak: Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek larrialdiko laguntza ekonomikoak eskaintzen dituzte pobrezian dauden pertsonen eta familien elikadura beharrak asetzeko.
- c. Elikagaiak erosteko laguntza txartelak: Arabako udalerrri batzuek laguntza txartelak eskaintzen dituzte pobrezia egoeran dauden pertsonen eta familiei elikagaiak erosteko.
- d. Eskolako jantokiko programa: Laguntzak daude egoera ahulean dauden haurrak eskolako jantokiko programaren bidez eguneroko otorduetan sartu ahal izateko.

